



Euskararen belaunez belauneko transmisioa EAEn

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2008

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteka>

Argitaraldia: 1.a, 2008ko ekainean

Ale kopurua: 1.000 ale

© Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco
Departamento de Cultura

Internet: www.euskadi.net

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa: Leitzaran Grafikak

ISBN: 978-84-457-2768-3

L.G.: SS-1192-2008

Aurkibidea

0. Hitzaurrea	7
00. Ikerketaren aurkezpena	9
I. Ikerketaren metodologia eta xedea	13
II. Ezaugarri soziodemografikoak	17
2.1. Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriari buruzko sarrera	19
2.2. Aztertutako populazioaren ezaugarri soziodemografikoak	23
III. Euskararen belaunez belauneko transmisioa	41
3.1. Lurralde Historikoen arabera banaketa	43
3.2. Udalen arabera banaketa	43
3.3. Lehen hizkuntza adinaren eta sexuaren arabera	47
3.4. Lehen hizkuntza eta gurasoen adina	52
3.5. Lehen hizkuntza gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera	53
3.6. Lehen hizkuntza gurasoen tipologiaren arabera	55
3.7. Lehen hizkuntza gurasoen adinaren eta tipologiaren arabera	61
IV. Hizkuntza bilakaeraren indizea (BILA)	67
4.1. BILA indizearen arabera banaketa	70
4.2. BILA indizea adinaren arabera	72
4.3. BILA indizea gurasoen tipologiaren arabera	75
4.4. BILA indizea familiako elebidunen dentsitatearen arabera	82
V. Etxeko hizkuntzaren erabileraren indizea (ERABIL)	85
5.1. ERABIL indizearen arabera banaketa	87
5.2. ERABIL indizea adinaren arabera	90
5.3. ERABIL indizea gurasoen tipologiaren arabera	97
5.4. ERABIL indizea familiako elebidunen dentsitatearen arabera	114



VI. Ondorioak	119
VII. Glosarioa	123
VIII. Irudien aurkibidea	131
IX. Taulen aurkibidea	137



Hizkuntza baten biziraupena ziurtatzeko biderik naturalena, eragingarriena eta merkeena belaunez belauneko familia bidezko transmisioa da, ezbairik gabe. Hori horrela izanik, Hizkuntza Politikarako sailburuordetzak (HPS) hizkuntzaren transmisioa beren beregi aztertzeko hainbat ikerketa egin ditu azken urteotan. Horien artean, 1991tik hona bost urterik behin egin ohi den inkesta soziolinguistikoa dago. Izan ere, Euskal Herriko inkesta soziolinguistikoak inkestatuek gurasoengandik jasotako lehen hizkuntza aztertzen du modu sistematikoan, informazio hau euskararen lurralde guztietan aldi berean eta modu bateratuan jasotzen duen tresna bakarra izanik. Azken inkestan, gainera, inkestatuek gurasoengandik jasotako hizkuntza ez ezik, seme-alabei transmititu dietena ere aztertu da. Hala, azken ehun urteotan, gutxi gorabehera, eta bereziki azken 10 urteotan, Euskal Herrian euskara familian nola transmititu den ezagutzeko modua dugu.

Aldi berean, kontuan hartu behar da elebidunen ezaugarriak asko aldatu direla azken 25 urteotan. Euskara etxean jaso eta gune euskaldunetan bizi diren elebidunak gero eta gutxiago dira, eta euskara eskolan ikasi eta hiri-gune erdaldunetan bizi den elebiduna nagusitzen ari da. Lehenengo aldia da, gainera, elebidun berri horietako multzo handia seme-alabak izateko sasoian dagoela. Hortaz, garrantzitsua da euskara geroratzeko orduan elebidunen belaunaldi berri hori nola jokatzen ari den ezagutzea.

Horretarako, HPSk bi ikerketa lerro ireki ditu; batetik, gune erdaldunetan bizi eta hazi diren euskaldun berriak seme-alabei zer transmititzen ari zaien aztertzeko bi ikerlan egin zituen 2005ean. Lehenak Gasteizko Olabide ikastolako ikasle ohiak hartu zituen oinarri eta *Euskararen erabilera eta transmisioa. Olabide ikastolako ikasle ohien adibidea* izenburuarekin kaleratu zen. Jasotako emaitzak gune euskaldunago batekoekin erkatzeko, bigarren ikerketa bat egin zen. Honakoa Donostiako San Tomas lizeoko ikasle ohien artean (*Euskararen erabilera eta transmisioa. San Tomas Lizeoko ikasle ohien adibidea*); bestetik, 1996ko Erroldako datuetan oinarrituta, HPSk euskararen transmisioa bikotemotaren arabera aztertzeko lehenengo saiakera egin zuen 1999an. Horretarako, bikoteen tipologia bat ezarri zuen, eta lanaren emaitzak Eremu Urriko Hizkuntzei buruzko VII. Nazioarteko Biltzarrean aurkeztu zituen. Bigarren saiakera 2001eko Zentsuko datuekin egin da. Bikoteen tipologia hobetzeaz gain, etxean jasotako hizkuntza zenbateraino gorde den (BILA indizea) eta etxeko erabilera (ERABIL indizea) ere aztertu da.

Ikerketak hizkuntzaren eta bereziki familia bidezko euskararen transmisioa aztertzea du xede, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAEko) gurasoengandik seme-alabenganako transmisioa, hain zuzen. Horretarako, 2001eko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuan jasotako informazioa abiaburutzat hartu da eta, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak landutako diseinu bati jarraituz, EUSTATEk propio egindako ustiapen bati esker burutu da.


Azterketarako aukeratutako unibertsoa bi gurasoekin bizi diren 2 eta 29 urte bitarteko seme-alabek osatzen dute. Beraz, analisiaren oinarritzko unitateak seme-alabak dira, 462.593 gazte, guztira. Unibertsoaren mugak EUSTATEkin adostuta ezarri dira. Hori hala izanik, ez dira sartu 2 urtetik beherako seme-alabak, oraindik ondo hitz egiten ez dutelako. Adinaren gehieneko muga, aldiz, 29 urtean ezarri da, gazte kontsideratutako biztanleak adin horretara artekoak direla ezarri delako. Gainera, seme-alabek 30 urte inguru dituztenean hasten da, era are nabarmenagoan, gurasoen etxea uzteko prozesua. Unibertsoaren inguruko xehetasunak amaitzeko, argitu behar da familiaren tamaina eta familiako elebidunen dentsitatea kalkulatzeko, familiako kide guztiak hartu direla kontuan.

Hona, bada, 2006an zehar burutu den azterketaren emaitza. Euskal Autonomia Erkidegoan belaunez belaun familia transmisioa zertan den argitzeko gakoak azaleratzen dizkiguna. Etorkizunean fenomeno honen jarraipena egin ahal izateko erreferentziazko argitarapena.

Patxi BAZTARRIKA

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea





00.
Ikerketaren aurkezpena

Euskara familian belaunez belaun transmititzeari buruzko azterketa, 2001eko Biztanleriaren Zentsuko datuak oinarri hartuta

(Euskara familian belaunez belaun transmititzea, gordetzea eta erabiltzea)

Lan honen hasierako asmoa, bi gurasoekin bizi ziren 2 eta 29 urte bitarteko seme-alabak erreferentzia gisa hartu eta gurasoengandik seme-alabenganako euskararen hizkuntza-transmisioan oinarritutako azterketa egitea zen. Azken helburua, ordea, euskararen egungo egoera nahiz etorkizuneko argitzen laguntzen saiatzea zen. Horregatik pentsatu genuen euskararen transmisioa aztertze hutsak partez baino ez zuela betetzen proposatutako helburua, hizkuntzak bizirik jarraitu eta garatzeko prozesuan hizkuntzaren transmisioa lehen urratsa besterik ez delako. Baina hizkuntza familia-esparruan jaso ondoren ezagutza hori gorde eta sendotu egin behar da, ohiko bizitzaren edozein esparrutan eta unetan erabili ahal izango den komunikazio-tresna bilakatzeko. Horrek esan nahi du euskararen nahiz beste edozein hizkuntza gutxituren

etorkizuna bermatzeko azken urratsak hiztunek hizkuntza hori modu normalizatuan eta hizkuntza nagusiarekiko berdintasun-maila batean (edo oso antzekoan) erabiltzea eskatzen duela.

Hori guztia kontuan hartuta komenigarria iruditu zaigu 2 eta 29 urte bitarteko seme-alabengan hizkuntzaren belaunez belauneko transmisioa zehaztasunez aztertzeaz gain, Hizkuntza Bilakaeraren indizea ere sakon aztertzea, jasotako ama-hizkuntza zein neurritan gordetzen den ikusteko aukera ematen baitigu, eta horrekin batera Etxeko Hizkuntzaren Erabileraren indizea ere aztertzea, familian euskararen erabileraren errealitatea zein den ezagutzea ahalbidetuko baitigu. Izan ere, familia da era honetako analisi bat burutzeko behar den informazioa jasotzeko dugun esparru bakarra.

Beraz, ikerketa lau ataletan egituratu da: lehen zatia sarrera modukoa da, eta jarraian 2 eta 29 urte bitarteko seme-alaben hizkuntza-transmisioaren (ama-hizkuntzarena edo lehen hizkuntzarena) analisia dator. Ondoren, Hizkuntza Bilakaeraren indizea (BILA) azertu da, eta hori osatzeko, euskaraz arazorik gabe hitz egin ahal izateko moduko hizkuntza-gaitasuna duten seme-alaben Etxeko Hizkuntzaren Erabileraren indizea (ERABIL) aztertu dugu.



Ikerketaren helburua

Ikerketa honek hizkuntzaren, bereziki euskararen, familia bidezko transmisioa aztertzea du helburu; Euskal Autonomia Erkidegoko¹ gurasoengandik seme-alabenganako transmisioa. Belaunez belauneko transmisioa delakoa, zentzu hertsian, gurasoek seme-alabei euren bizitzako lehen 3 urteetan erakusten dieten edo dizkieten hizkuntza(k) d(ir)a. Hizkuntza horiei “ama hizkuntza” edo “lehen hizkuntza” deitzen zaie.

Aztertutako unibertsoa

Azterketarako aukeratutako unibertsoa familiaren etxebizitzan bi gurasoekin bizi diren 2 eta 29 urte bitarteko seme-alabek osatzen dute. Hala ere, guraso bakarreko familietako adin-tarte horretako seme-alabei buruzko informazioa ere jaso dugu, etorkizunean azterketa berriei bide emateko.

Laburbilduz esan dezakegu honako helburu hau lortu nahi dela: euskararen familia bidezko transmisioaren egungo fenomenoaz aztertzea, gutxienez bi gurasoekin bizi diren 2 eta 29 urte bitarteko seme-alabek osatutako unibertsoaren barruan. Beraz, analisiaren oinarritzko unitateak seme-alabak dira.

Unibertsoaren mugak EUSTATEkin adostuta ezarri dira. Alde batetik, ez dira sartu 2 urtetik beherako seme-alabak, oraindik hitz egiten ez dutelako. Adinaren gehieneko muga 29 urtean ezarri da, “gaztetzat” hartutako biztanleak adin horretara artekoak direlako. Gainera, seme-alabak 30 urte inguru dutenean hasten da, nabarmen, familia-etxea uzteko prozesua.


Azkenik, argitu behar da “familiaren tamaina” eta “familiako elebidunen dentsitatea” aldagai argitzaileei buruzko datuak kalkulatzeko, familiako kide guztiak hartu direla kontuan².

Informazioa lortzeko modua

Ikerketa egiteko datuak 2001eko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuan jasotako informaziotik atera dira eta, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak lantutako diseinu bati jarraituz, EUSTATEk berariaz egindako ustiapen bati esker lortu dira.

¹ Aurrerantzean EAE

² EUSTATEn definizioaren arabera “*Familia pertsona-talde bat da, gehienetan odoleko edo ezkontzako ahaidetasunak lotzen duena, eta, ahaidetasun gradua kontuan hartu gabe, bizimodua elkarrekin eta, normalean, etxebizitza osoa hartuta egiten duena. Familiakotzat hartzen dira baita etxeko lanak egiteko hartzen diren langileak, etxean bertan bizi badira, eta etxeko moduan hartzen diren apopiloak ere*”.



I.
**Ikerketaren
metodologia eta
xedea**

1.

Ikerketaren metodologia eta xedea

Euskararen belauneko belauneko familia bidezko transmisioari buruzko ikerketa egiten hasi aurretik, hainbat alderdi zehaztea komeni da.

Lehenik esan behar da ama-hizkuntza edo lehen hizkuntza dela haurtzaroan 3 urte bete arte ikasten den hizkuntza (edo hizkuntzak). Gainera, kontuan hartu behar da hizkuntza-aldagai hori aldaezina dela, ez duela inolako loturarik norbanakoaren hizkuntza-ezaugarriekin nahiz beste ezein ezaugarriekin.

Lehen hizkuntzaren jabe izatea, kasu honetan euskararena, transmisio-prozesu baten emaitza da, eta prozesu horretan parte hartzen dute transmititzen duen elementu batek (emailea) eta elementu hartzaile batek.

Aztergai dugun fenomenoan transmititzen duen elementua(k) aita edota ama dira, eta elementu hartzailea berriz, semea edo alaba. Baina prozesu hori burutu ahal izateko, ez da nahikoa euskaraz hizkuntza-gaitasun handiagoa edo txikiagoa izatea,

aitzitik, elementu boluntarista bat ere bada, hau da, erabaki egin behar da hizkuntza hori, eta ez beste bat, batez ere gaztelania³, transmititu nahi dela.

Alderantziz, seme-alabak prozesu horretan elementu hartzailea dira, subjektu pasibo hutsak, transmititzen duen elementuaren menpe erabat.

Kontuan izan behar da, gainera, prozesuan gutxi-asko eragiten duten kanpoko hainbat faktore ere badirela. Horien artean aipa ditzakegu: hizkuntzaren ospea edo prestigioa, eta bizilekuaren nahiz pertsonen arteko harreman-sareen ezaugarri soziolinguistikoak.

Erabat linguistikoak diren aldagaiez gain (lehen hizkuntza, hizkuntza-gaitasuna, etxean erabiltzen den hizkuntza eta BILA eta ERABII indizeak), beste batzuk ere sartu dira ikerketan, esate baterako, etxeko elebidunen dentsitatea (familia-sarea) eta bizi diren udalerria (zona soziolinguistikoa), hizkuntzaren transmisio-prozesuan harreman-sareen ezaugarri soziolinguistikoek duten garrantzia nolabait islatzen dutelako.

Orain arte esandako guztia aintzat hartuta nabaria da, batetik, elementu emailea, alegia aita edota ama, dela transmisio-prozesua pizten duen elementu ezinbestekoa, eta bestetik, bere hizkuntza-ezaugarriek derrigorrez baldintzatuko dutela prozesu hori.

Horregatik, lehen-lehenik bikoteen tipologia bat landu dugu aitaren eta amaren hizkuntza-gaitasunean (euskara ONDO dakiten ala ez) eta haien lehen hizkuntzan oinarrituta. Bi aldagai horiek hartu ditugu kontuan, badakigulako hizkuntzaren benetako erabilera neurri handi batean “hizkuntza-

gaitasun erlatiboaren” (hiztunak hizkuntza batean zein bestean moldatzeko duen erraztasuna) menpe dagoela, eta gaitasun hori, aldi berean, ama-hizkuntzarekin zuzenean erlazionatuta dagoela.

Ondorioz, bikoteen tipologia bat ezarri dugu BILA indizean oinarrituta, lehen hizkuntzaren eta hizkuntza-gaitasunaren aldagaiak konbinatuz, eta emaitza sei talde desberdin izan dira:

D mota: bi gurasoek ondo egiten dute euskaraz eta bien lehen hizkuntza euskara da gutxienez⁴.

B mota indartua (B+): bi gurasoek ondo egiten dute euskaraz, baina batek bakarrik du lehen hizkuntza euskara.

B mota: bi gurasoek ondo egiten dute euskaraz, baina euren lehen hizkuntza gaztelania da⁵.

A mota indartua (A+): guraso batek ondo egiten du euskaraz eta lehen hizkuntza euskara du. Besteak ez du ondo egiten euskaraz, bere lehen hizkuntza zein den kontuan hartu gabe.

A mota: guraso batek ondo egiten du euskaraz eta gaztelania du lehen hizkuntza. Besteak ez du ondo egiten euskaraz, bere lehen hizkuntza zein den kontuan hartu gabe.

X mota: bi gurasoetatik batek ere ez du ondo egiten euskaraz, bere lehen hizkuntza zein den kontuan hartu gabe.

Hizkuntza-transmisioaren fenomenoaz aztertzean bikote-mota bakoitzak hizkuntzaren aurrean duen eta, ahal duen neurrian, seme-alabei transmitituko dien jokabide bereizgarria ezagutu ahal izango dugu.

³ Esan beharra dago euskaldun elebakarrik ez dagoela, eta euskara hitz egiten duten pertsona guztiak elebidunak direla, gaztelaniaz ere hitz egiten dutelako edo euskara ez den beste hizkuntza bat ere hitz egiten dutelako.

⁴ “Euskara da gutxienez” esatean ama-hizkuntza euskara bakarrik dutenak eta euskararekin batera gaztelania ere ama-hizkuntza dutenak esan nahi dugu.


⁵ Gaztelania edo euskara ez den beste bat.



Hala ere analisi hau mugatuegia gerta liteke, ez baitigu seme-alaben hizkuntza-bilakaera ezagutzeko aukerarik ematen, ez eta euren hizkuntza-gaitasuna eta -jokabidea, horiek izanik, azken batean, hizkuntzaren etorkizuna neurri handi batean bermatuko dutena.

Horregatik, analisia osatzeko eta dimentsio zabalagoa emateko, seme-alabak ere BILA indizearen arabera aztertuko ditugu; horrela, lehen hizkuntza eta hizkuntza-gaitasuna konbinatzean, biztanleria-sektore garrantzitsu honek hizkuntza bere egin duen edota erabat nahiz neurri batean galdu duen balioztatu ahal izango dugu.

Azkenik, ikerketan beste aldagai soziolinguistiko eta sozioekonomiko batzuk ere sartuko dira, hizkuntzaren transmisio-prozesuan izan dezaketen eragina aztertzen saiatzeko. Besteak beste aipa ditzakegu, aldagai soziolinguistikoen artean, etxean erabiltzen den hizkuntza, familian dauden elebidunen ehunekoa, bai eta eremu soziolinguistikoan daudenena ere (bizi diren udalerriko biztanle elebidunen ehunekoa), eta aldagai soziodemografikoei eta sozioekonomikoei dagokienez, adina, jatorria (jaioterrria), ikasketamaila eta ekonomia-maila.



II.
**Ezaugarri
soziodemografikoak**

2.

Ezaugarri soziodemografikoak


2.1. EAEko biztanleriari buruzko sarrera

EAEko biztanleria eta bere bilakaera

Azaleatik bada ere, esan dezakegu 60ko hamarkadan “baby-boom” izeneko fenomeno gertatu zenetik, biztanleen kopuruak gora egin duela eten gabe lurralde guztietan. Prozesu hori moteldu egin zen 70eko hamarkadan izandako ekonomia-krisiarekin batera, eta 80ko hamarkadaren hasieran nabarmen aldatu zen joera. Une horretatik aurrera geldialdi baten hasiera edota biztanle-kopuruaren nolabaiteko atzerakada ikus daiteke, bereziki Bizkaian (1. irudia). Hainbat faktorek eragin zuen horretan, baina guri bereziki jaiotza-tasaren jaitsiera interesatzen zaigu.

Oro har ikusten dugu azken 20 urteotan EAEk ia 60.000 biztanle galdu dituela, hau da, ehunekotan adierazita ia 3 puntuko jaitsiera. Jaitsiera hori, ordea, ez da gertatu lurralde guztietan. Horrela, 1981etik 2001era bitartean, Araban biztanle-kopurua %11 handitu zen, baina Gipuzkoan eta Bizkaian, %3 eta %6 jaitsi zen, hurrenez hurren.

1. irudia. Lurralde Historikoetako biztanleriaren bilakaera. EAE, 1960-2001



Iturria: EUSTATen web-orria



Biztanleriaren banaketa

EAEk 2.082.587 biztanle ditu, 2001eko biztanleriaren zentsuaren arabera.

Biztanle horiek modu irregularrean banatuta daude hiru lurraldeetan. Bizkaiak biztanleen erdiak baino gehiago (53,9%) biltzen ditu, milioi bat lagun baino gehiago baititu (1.122.637), Gipuzkoak, berriz, biztanleriaren herena baino zertxobait gutxiago (%32,3) biltzen du, 673.563 biztanle baititu. Azkenik, Arabak, lurralde zabalena izan arren, biztanle-kopuru txikiena du (286.387).

Bestalde, udalerriei dagokionez, EAEko 250 udalerrietatik 51 Arabakoak dira, 111 Bizkaikoak eta 88 Gipuzkoakoak.

Herrien tamainari dagokionez, Araban nagusi dira udalerrri txikiak⁶, ia %90 baitira; eta Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, udalerrri txikien ehunekoa %50 pasatxo baino ez da (2. irudia). Bi lurralde horietan tamaina ertaineko⁷ udalerriek ere antzeko pisua dute, %25 dira hain zuzen. Bi lurraldeen arteko desberdintasuna udalerrri ertain-handietan⁸ eta handietan⁹ dago: lehenengoak Gipuzkoan dira ugariago (%17 vs. %8,1) eta Bizkaian, aldiz, 25.000 biztanle baino gehiago dituztenak (%9 vs. %4,6).


⁶ 2.000 biztanle baino gutxiago

⁷ 2.000tik 10.000 biztanlera bitartean

⁸ 10.000tik 25.000 biztanlera bitartean

⁹ 25.000 biztanle baino gehiago

2. irudia. Biztanleriaren banaketa udalerriko. EAE, 2001



Iturria: EUSTATen web-orria

EAEko biztanleriaren egitura (2001)

EAEen nagusi dira tamaina txikiko udalerriak, 2.000 biztanletik beherakoak. Bertan, biztanleen %5,3 bizi diren arren, udalerrri guztien (250) %60,8 dira. Biztanle gehienak hiri-izaera duten guneeetan biltzen dira, biztanleriaren %80,8 10.000 biztanle baino gehiago dituzten hiriguneetan bizi baita, hau da, EAEko udalerrrien %16n.

Lurralde bakoitzak bere egitura-modua du, eta Arabakoa da deigarriena, izugarriko polarizazioa erakusten duen desoreka handia du eta. Hain zuzen, Arabako udalerrrien %90 txikiak dira eta 25.000 biztanle baino gehiago duen bakarra hiriburua da, Gasteiz. Biztanleak (Arabako biztanleria osoaren ia %90) bi muturretan banatuta daude. Alde batetik, 2.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerriek biztanleriaren %11,4 baino gehiago hartzen dute, EAEko batez bestekoa bikoiztuz. Bestetik, Gasteizen bizi da lurraldeko biztanleria osoaren %75 baino gehiago, Bilbon %31,2 eta Donostian %26,5 bizi diren bitartean (1. taula).

Bizkaiak ere badu nolabaiteko polarizazioa, baina dezente txikiagoa, ez baita udalerrri bakar baten inguruan gertatzen, Bilbo Handiaren inguruan baizik. Eredu horretan daude 50.000 biztanle baino gehiagoko udalerrri guztiak, hiriburua barne. Horien guztien artean lurraldeko biztanleriaren erdia baino pixka bat gehiago dute (%51,5), Gasteizek (%75,7) baino askoz ere ehuneko txikiagoa. Azkenik, Gipuzkoarena da banaketarik orekatuena, "hiri ertainen"¹⁰ protagonismo handia baitu, izan ere, udalerrrien %19,3 hiri ertainak dira eta horietan bizi da biztanleriaren ia erdia (%43,2). Aldiz, hiriburuak eta Irunek, 50.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrri ba-

karrek, lurraldeko biztanleriaren herena baino zertxobait gehiago dute, %34,9.

Biztanleriaren egitura, lurralde bakoitzean duen dentsitatea eta bide-sarearekin duen erlazioa argi eta garbi ikus daitezke mapan (3. irudia). Gipuzkoak sare itxia du, tamaina ertaineko guneen dentsitate handiarekin; Bizkaiak, berriz, itxura askoz ere irekiagoa du. Araban, azkenik, ia ez da sarerik, hiriburuak ia guztia hartzen duelako.

Metropoli-guneei dagokienez, Bilbokoa Donostiakoa baino trinkoagoa eta maila handiagokoa da.

1. taula. Biztanleriaren eta populazio-guneen banaketa, gunen horien tamainaren arabera. EAE, 2001


Guneen tamaina	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
	guneak (%)	populazioa (%)	guneak (%)	populazioa (%)	guneak (%)	populazioa (%)
< 2.000	88,2	11,4	54,1	4,1	53,4	4,7
2.000-4.999	5,9	3,0	18,0	6,1	12,5	6,0
5.000-9.999	2,0	3,3	10,8	7,9	12,5	11,2
10.000-24.999	2,0	6,6	8,1	12,1	17,0	33,3
25.000-49.999	0,0	0,0	5,4	18,4	2,3	9,9
50.000-99.999	0,0	0,0	2,7	20,3	1,1	8,4
≥100.000	2,0	75,7	0,9	31,2	1,1	26,5
Guztira	100	100	100	100	100	100

Iturria: EUSTAT

¹⁰ Hiri ertainez hitz egitean 10.000etik 50.000 biztanlera bitartean dituztenez ari gara.



3. irudia. EAeko hiri-sarearen eskema (2001)



Iturria: EUSTATen web-orria

2.2. Aztertutako populazioaren ezaugarri soziodemografikoak

2001eko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua-
ren arabera, EAEk 2 eta 29 urte bitarteko
663.996 biztanle ditu. Horietatik 462.593 (%69,7)
sartuta daude aztertuko dugun unibertsoan, hau da,
familiararen etxebizitza berean bi gurasoekin bizi diren
adin horretako seme-alabak dira.

Talde hori adinaren arabera bi multzo handitan
banatzen badugu, hautatu ditugun 20 urte baino
gutxiagoko gazteak (264.542) adin-tarte horretako
biztanleria osoaren %80 baino gehiago dira, eta, al-
diz, 20 eta 29 urte bitarteko adina dutenak (198.051)
dagokion tarteko biztanleria osoaren %60 dira.

Jarraian, gazte horien oinarritzko ezaugarri soziale-
demografikoak aztertuko ditugu.

Sexuaren eta adinaren arabera banaketa

Aztertutako unibertsoaren sexuaren eta adinaren
arabera banaketak ez du dibergentzia handirik
erakusten, alde txiki batzuk badiren arren (2. eta 3.
taulak).

Alde batetik adierazi beharra dago gizonezkoen
kopurua emakumeena baino handiagoa dela,
zehazki 23.139 lagun gehiago dira, eta ehunekotan
5 puntuko aldea da (%52,5 vs. %47,5). Gainera,
gizonezkoen aldeko saldoa adin-tarte guztietan
agertzen da, talde gazteenetan alde hori txikiagoa
den arren.

2. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alaben banaketa, sexuaren eta adinaren arabera. EAE, 2001

Adina	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Saldoa (G-E)
25-29	84.152	47.127	37.025	10.102
20-24	113.899	59.773	54.126	5.647
15-19	90.199	46.405	43.794	2.611
10-14	71.453	36.651	34.802	1.849
5-9	64.125	32.917	31.208	1.709
2-4	38.765	19.993	18.772	1.221
Guztira	462.593	242.866	219.727	23.139

3. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alaben banaketa, sexuaren eta adinaren arabera. EAE, 2001 (%)

Adina	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Saldoa (G-E)
25-29	100	56,00	44,00	12,00
20-24	100	52,48	47,52	4,96
15-19	100	51,45	48,55	2,89
10-14	100	51,29	48,71	2,59
5-9	100	51,33	48,67	2,67
2-4	100	51,57	48,43	3,15
Guztira	100	52,50	47,50	5,00

4. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alaben banaketa, sexuaren eta adinaren arabera. EAE, 2001

Adina	Guztira	Gizonak %	Emakumeak %	Saldoa (G-E)
25-29	84.152	19,40	16,85	2,55
20-24	113.899	24,61	24,63	-0,02
15-19	90.199	19,11	19,93	-0,82
10-14	71.453	15,09	15,84	-0,75
5-9	64.125	13,55	14,20	-0,65
2-4	38.765	8,23	8,54	-0,31
Guztira	462.593	100	100	0,00


Fuente: EUSTAT



Ondoren sexu bakoitzaren adinaren arabera banaketa aztertzen badugu, adin-talde guztietan gizonezkoak gehiago izan arren, antzeko banaketa ikusiko dugu bi kolektiboetan; portzentajeetan aldeak ez dira puntu batera ere iristen, zaharren taldean izan ezik, alegia 25-29 urtekoen taldean; adin-tarte horretan portzentajea ia 3 puntu handiagoa da gizonezkoen artean emakumeen artean baino (%19,4 vs %16,9). Beraz, gainerako adin-tarte guztien pisua zertxobait handiagoa da emakumeen multzoan, eta, ondorioz, kolektibo hori gizonezkoena baino apur bat gazteagoa da (4. taula).

Biztanleriaren piramidean (4. irudia) garbi ageri da adin-taldeen arteko antzekotasuna, eta baita ere adinean aurrera egin ahala gizonak zein emakumeak asko gutxitzen direla. Jaitsiera hori gizartearen zahartze demografiko orokorraren testuinguruan kokatzen da, batez ere, jaiotza-tasen etengabeko jaitsiera gogorraren ondorioz gertatzen den zahartze-prozesuaren testuinguruan, alegia.

4. irudia. 2-29 urte bitarteko seme-alaben banaketa, sexuaren eta adinaren arabera. EAE, 2001



Bizilekua

2 eta 29 urte bitarteko biztanleak, logikoa denez, biztanleria osoaren banaketa-ereduari jarraituz kokatzen dira. Izan ere, 2 eta 29 urte bitarteko biztanle gehienak Bizkaian daude (249.962), ondoren Gipuzkoan (147.474), eta, azkenik, Araba (65.157) da kolektibo txikiena duena (5. eta 6. taulak).

Hala ere, zenbaki absolutuak alde batera utzi eta kontuan hartzen baditugu lurralde bakoitzean zer portzentaje hartzen dituzten biztanleria osoak eta 2-29 urte-bitarteko biztanleek, ikusiko dugu bi portzentaje horiek antzekoak direla lurralde guztietan. Hala, Bizkaia biztanleria osoaren %54 biltzen du eta 2-29 urte bitartekoen %54, Gipuzkoak %32,3 eta %31,9 hurrenez hurren, eta Arabak %13,7 eta 14,1.

Biztanleria osoaren ehunekoaren eta 2-29 urte bitartekoen ehunekoaren artean oreka dagoenez, lurralde bakoitzean antzekoak dira biztanleria horren portzentajearen balioak: Araban %23,3, Gipuzkoan %22,5 eta, bi horien artean, Bizkaian %22,8.

Dena den, mapa aztertuz (5. irudia) ikusiko dugu gazteen kontzentrazio handienak metropoli-guneetan eta hiri-ardatz nagusietan (Tolosa-Beasain, Deba Bailara eta Ibaizabal) biltzen direla, eta horiekin batera kostaldeko gunee garrantzitsuenak (Zarautz, Bermeo...) eta barnealdeko gunee jakin batzuk (Laudio).

5. taula. Biztanleriaren banaketa, Lurralde Historikoaren arabera. EAE, 2001

Lurralde Historikoa	2 urtetik gorakoen populazioa	
	Kop.	(% / guztira)
Araba	279.460	13,7
Bizkaia	1.097.288	54,0
Gipuzkoa	656.499	32,3
Guztira	2.033.247	100

Iturria: EUSTAT


6. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alaben banaketa, Lurralde Historikoaren arabera. EAE, 2001

Lurralde Historikoa	Kop.	2 eta 29 urte bitarteko seme-alabak	
		(% / guztira)	(% / lurraldeko pop. osoa)
Araba	65.157	14,1	23,3
Bizkaia	249.962	54,0	22,8
Gipuzkoa	147.474	31,9	22,5
Guztira	462.593	100	

Iturria: EUSTAT



5. irudia. 2-29 urte bitarteko seme-alaben banaketa, udalerrriaren arabera. EAE, 2001



Iturria: EUSTAT

Jatorria

2 eta 29 urte bitarteko seme-alaben jatorria bi ikuspegitatik aztertu behar da. Alde batetik, haien jaioterria edo jatorria dugu, eta, bestetik, gurasoen jatorria ere kontuan hartu behar da, biak baitira aztergai dugun hizkuntza-transmisioaren eragile.

a) Gurasoen jaioterria

Gurasoen jaioterriaren arabera, 2 eta 29 urte bitarteko seme-alaba gehienak seme-alaba guztien ia %95 (%93,8) hartzen duten hiru talde nagusitan biltzen dira (6. irudia eta 7. eta 8. taulak).

Lehenik bi gurasoak EAEn jaiotako dituzten seme-alabak nabarmentzen dira, kopuru osoaren ia erdia baitira (%44,6). Beste bi talde nagusiek antzeko portzentajea dute, %25 ingurukoa: hala, guraso bat EAEn jaiotako eta bestea EAE edo Nafarroa ez den beste autonomia erkidego batean jaiotako dituzten seme-alabak %24,9 dira, eta bi gurasoak EAE edo Nafarroa ez den beste autonomia erkidego batean jaiotako dituzten seme-alabak %24,3 dira.


Gainerako seme-alabek, %6 baino zertxobait gehiagok (%6,2), beste guraso-konbinazio batzuk dituzte, baina haien erdiek baino gehiagok, %3,5, gurasoetako bat EAEkoa dute.

Bi gurasoak atzerrian jaiotako dituzten seme-alabei erreparatuz, seme-alaba guztien %0,7 (3.068) besterik ez dira, eta eurretako heren bat (%33,4) EAEn jaiotako da, atzerrian jaiotako diren %62,9ren aldean.

Azkenik, azpimarratu behar da gurasoen jaioterria alde batera utzita, EAEn jaiotako seme-alaben ehunekoa %80 baino handiagoa dela ia beti, bi bikotekideak atzerrian jaiotako direnean izan ezik. Kasu horretan, seme-alaben herena (%33,4) jaiotako da EAEn.

Portzentaje hori %90 baino handiagoa da kasu guztietan, gurasoetako bat atzerrian jaiotako denean edo bi bikotekideak Nafarroan jaiotako direnean izan ezik. Lehen kasuan, EAEn jaiotako seme-alaben ehunekoa %80,6 eta %87,5 artekoa da, eta bigarrenean %79,6koa da ehuneko hori.

6. irudia. 2-29 urte bitarteko seme-alaben banaketa, gurasoen jaioterriaren arabera. EAE, 2001 (%)



Iturria: EUSTAT



7. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alaben jaioterria, gurasoen jaioterriaren arabera. EAE, 2001

Gurasoen jaioterria	2-29 urte bitarteko seme-alaben jaioterria							
	Guztira	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Nafarroa	Beste AE batzuk	Atzerria
EAE+EAE	206.530	19.613	107.421	77.313	204.347	161	1.202	820
EAE+Nafarroa	9.216	1.567	1.894	5.330	8.791	299	88	38
EAE+ beste AE bat	115.228	16.369	66.602	29.084	112.055	112	2.659	402
EAE+atzerria	6.934	585	3.670	1.815	6.070	17	128	719
Nafarroa+Nafarroa	1.424	273	161	700	1.134	264	17	9
Nafarroa+beste AE bat	4.107	813	1.079	1.855	3.747	182	165	13
Nafarroa+atzerria	222	22	55	102	179	14	3	26
Beste AE bat+beste AE bat	112.569	16.865	61.271	26.307	104.443	127	7.394	605
Beste AE bat+atzerria	3.295	404	1.527	817	2.748	8	247	292
Atzerria+atzerria	3.068	145	444	437	1.026	13	100	1.929
Guztira	462.593	56.656	244.124	143.760	444.540	1.197	12.003	4.853

8. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alaben jaioterria, gurasoen jaioterriaren arabera. EAE, 2001 (% horizontalak)

Gurasoen jaioterria	2-29 urte bitarteko seme-alaben jaioterria								
	Guztira	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Nafarroa	Beste AE batzuk	Atzerria	Guztira
EAE+EAE	206.530	9,5	52,0	37,4	98,9	0,1	0,6	0,4	100
EAE+Nafarroa	9.216	17,0	20,6	57,8	95,4	3,2	1,0	0,4	100
EAE+ beste AE bat	115.228	14,2	57,8	25,2	97,2	0,1	2,3	0,3	100
EAE+atzerria	6.934	8,4	52,9	26,2	87,5	0,2	1,8	10,4	100
Nafarroa+Nafarroa	1.424	19,2	11,3	49,2	79,6	18,5	1,2	0,6	100
Nafarroa+beste AE bat	4.107	19,8	26,3	45,2	91,2	4,4	4,0	0,3	100
Nafarroa+atzerria	222	9,9	24,8	45,9	80,6	6,3	1,4	11,7	100
Beste AE bat+beste AE bat	112.569	15,0	54,4	23,4	92,8	0,1	6,6	0,5	100
Beste AE bat+atzerria	3.295	12,3	46,3	24,8	83,4	0,2	7,5	8,9	100
Atzerria+atzerria	3.068	4,7	14,5	14,2	33,4	0,4	3,3	62,9	100
Guztira	462.593	12,2	52,8	31,1	96,1	0,3	2,6	1,0	100

Iturria: EUSTAT

b) Seme-alaben jaioterria

2 eta 29 urte bitarteko seme-alaben jaioterriari buruz EUSTATEk dituen datuen arabera, gehiengo zabal bat (%96,1) EAEn jaioa da. Beraz, biztanleria ia osoa bertakoa da (7. irudia).

Hala ere, eta gurasoek transmisio-prozesuan duten funtzio erabakigarria kontuan hartuta, ez dugu ahaztu behar aztertutako unibertsoaren laurdena baino gehiago (%27) EAetik kanpo jaiotako gurasoen seme-alabak direla, eta %28,4 bikote mistoetan jaioak direla, hau da, EAEn jaiotako guraso bakarra dutela. Ondorioz, bi gurasoak EAEn jaioak dituzten bertako seme-alabak biztanleria osoaren erdia baino zertxobait gutxiago dira (%44,6).

Lurraldean araberako banaketari dagokionez, biztanleriaren banaketa orokorraren ereduari jarraitzen dio. Hala bada, EAEn jaiotako seme-alaben (444.540) zatirik handiena, %54,9, Bizkaian jaio da (244.124), Gipuzkoan herena, %32,3 (143.760), eta Araban %12,7 (56.656).

Azkenik, seme-alaben %1 inguru atzerrian jaio da (4.853). Horietatik, %40 (%39,7) atzerrian jaiotako gurasoen seme-alabak dira (1.929) eta %20 baino gehiago (%21,3) bikotekide bat atzerrian jaioa duten bikoteen seme-alabak dira. Bestalde, ia %17 (%16,9) EAEn jaiotako seme-alabak dira (9. taula).


Lurraldearen araberako banaketa aztertzen badugu, bi gurasoak bertakoak izanik seme-alabak ere bertakoak direnen portzentajeak nabarmen aldatzen ikusiko ditugu. Arabak du ehuneko txikiena, seme-alaben herena baino pixka bat gehiago (%34,6), eta Bizkaia aldiz, %44arekin, EAeko batez bestekoaren

(%46) inguruan kokatzen da. Gipuzkoan ehuneko hori 50etik gorakoa da (%53,8), Arabakoa baino ia hogeitu puntu handiagoa eta batez bestekoa baino ia hamar puntu handiagoa.

EAEn jaiotako kide batez eta EAE edo Nafarroa ez den beste autonomia erkidego bateko beste batez osatutako bikote mistoen (EAE+Beste autonomia erkidego batzuk) eta bi kideak beste autonomia erkidego batean jaiotako bikoteen (Beste autonomia

erkidego batzuk + Beste autonomia erkidego batzuk) seme-alabei dagokienez, Araban daude portzentaje handienak, eta Gipuzkoan txikienak, baina aldeak ez dira aurreko pasartean bezain bestekoak. Bikote mistoen seme-alaben kasuan balioak %20,2 eta %28,9 artekoak dira, eta guraso biak beste autonomia erkidego batean jaioak dituzten seme-alaben kasuan berriz, %18,3 eta %29,8 bitartekoak.

7. irudia. EAEn bizi diren 2-29 urte bitarteko seme-alaben banaketa, jaioterriaren arabera. 2001 (%)





Azkenik, adierazi behar da Gipuzkoan jaiotako seme-alaben %5ek baino gehiagok (%5,6) gurasoetako bat Nafarroan jaioa duela eta ehuneko hori %4,7ra jaisten dela Araban eta %1,3ra Bizkaian. Gurasoren bat atzerrian jaioa duten seme-alaben portzentajea berriz, hiru lurraldeetan bertsua da, %2ren ingurukoa hain zuzen.

9. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alaben jaioterria, gurasoen jaioterriaren arabera. EAE, 2001 (% bertikalak)

Gurasoen jaioterria	2-29 urte bitarteko seme-alaben jaioterria							
	Guztira	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Nafarroa	Beste AE batzuk	Atzerria
Guztira	462.593	56.656	244.124	143.760	444.540	1.197	12.003	4.853
EAE+EAE	44,6	34,6	44,0	53,8	46,0	13,5	10,0	16,9
EAE+Nafarroa	2,0	2,8	0,8	3,7	2,0	25,0	0,7	0,8
EAE+ beste AE bat	24,9	28,9	27,3	20,2	25,2	9,4	22,2	8,3
EAE+atzerria	1,5	1,0	1,5	1,3	1,4	1,4	1,1	14,8
Nafarroa+Nafarroa	0,3	0,5	0,1	0,5	0,3	22,1	0,1	0,2
Nafarroa+beste AE bat	0,9	1,4	0,4	1,3	0,8	15,2	1,4	0,3
Nafarroa+atzerria	0,0	0,0	0,0	0,1	0,0	1,2	0,0	0,5
Beste AE bat+beste AE bat	24,3	29,8	25,1	18,3	23,5	10,6	61,6	12,5
Beste AE bat+atzerria	0,7	0,7	0,6	0,6	0,6	0,7	2,1	6,0
Atzerria+atzerria	0,7	0,3	0,2	0,3	0,2	1,1	0,8	39,7
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100

Iturria: EUSTAT

Familiaren tamaina¹¹

Aldagai honek familia osatzen duten kideen kopuru osoa adierazten du. Horren arabera, bost talde sailkatu dira, 3 kide dituztenetatik hasi eta 6 kide baino gehiago dituztenetara arte (3, 4, 5, 6 eta 6 baino gehiago).

2 eta 29 urte bitarteko seme-alaben banaketa familiaren tamainaren arabera aztertuz gero, seme-alaben %90 baino gehiago 3tik 5 kidera bitartean dituzten familietan bizi direla ikusten dugu.

Seme-alaba gehienak (%52,5) 4 kidez osatutako familietan bizi dira. Bigarrenak, tarte handi samarrekina bada ere, 5 kideko familiak dira, seme-alaben %20 baino gehiago bizi baita horrelako familietan. 3 kidez osatutako familietan bizi diren seme-alaben portzentajea txikiagoa da, %18,6koa, hain zuzen.

Azkenik, 2 eta 29 urte bitarteko seme-alaben %8 baino pixka bat gehiago 6 kide edo gehiagoko familietan bizi da (%5,9 eta %2,7 hurrenez hurren) (8. irudia eta 10. taula).


¹¹ Azterketak 2 eta 29 urte bitarteko seme-alabak eta euren gurasoak aztertzen baditu ere, familiako elebidunen dentsitatea kalkulatzeko eta familiaren tamaina ezartzeko kide **guztiak** hartu dira kontuan. Gogoan izan, hartarako, EUSTATen arabera familiaren definizioa: "Familia pertsona-talde bat da, gehienetan odoleko edo ezkontzako ahaidetasunak lotzen duena, eta ahaidetasun gradua kontuan hartu gabe, bizimodua elkarrekin eta, normalean, etxebizitza osoa hartuta egiten duena. Familiakotzat hartzen dira baita ere etxeko lanak egiteko hartzen diren langileak, etxean bertan bizi badira, eta etxeko moduan hartzen diren apopiloak ere bai".

10. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alabak, familiaren tamainaren arabera. EAE, 2001

Familia osatzen duten kideen kopuru osoa	2-29 urte bitarteko seme-alabak Kopurua	%
Hiru	86.148	18,6
Lau	242.861	52,5
Bost	93.626	20,2
Sei	27.369	5,9
Sei baino gehiago	12.589	2,7

Iturria: EUSTAT

8. irudia. 2-29 urte bitarteko seme-alabak, familiaren tamainaren arabera. EAE, 2001 (%)



Iturria: EUSTAT



Lurralde bakoitzean 2 eta 29 urte bitarteko seme-alaben proportzioaren banaketa aztertzen badugu familiaren tamainaren arabera, ikusiko dugu familia-mota bakoitza seme-alaba guztien multzoa banatzen den antzera banatzen dela lurraldeetan ere (11. eta 12. taulak).

Araban, seme-alaben %14,1 bizi diren lurraldean, familia-mota bakoitzeko seme-alaben balioak %13,9tik %14,3ra bitartekoak dira ehunekotan. Bizkaian, seme-alaben %54 duen lurraldean, familien tamainaren araberrako balioak %53,4tik %56,1era bitartekoak dira, eta Gipuzkoan, orokorrean, %31,9ko portzentajea duen lurraldean, balioak %30etik %32,6ra bitartekoak dira.

Lurralde bakoitzaren barnean ere familien tamainaren araberrako seme-alaben banaketa homogeneoa da, eta aldeak 2 puntu ingurukoak dira 3 eta 4 kidez osatutako familietan, eta puntu batetik beherakoak 5 eta 6 kidez osatutakoetan. 6 kideetik gorako familietan, aldiz, seme-alaben portzentajea berdina da hiru lurraldeetan (13. taula).

11. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alabak, familiaren tamainaren arabera. EAE, 2001

	Seme-alabak guztira	Familiaren tamaina (kideen kopurua)				
		3	4	5	6	> 6
EAE	462.593	86.148	242.861	93.626	27.369	12.589
Alava	65.157	11.938	34.163	13.396	3.913	1.747
Bizkaia	249.962	48.345	129.589	50.040	15.164	6.824
Gipuzkoa	147.474	25.865	79.109	30.190	8.292	4.018

12. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alabak, familiaren tamainaren arabera. EAE, 2001 (% bertikalak)

	Seme-alabak guztira	Familiaren tamaina (kideen kopurua)				
		3	4	5	6	> 6
EAE	462.593	86.148	242.861	93.626	27.369	12.589
Araba	14,1	13,9	14,1	14,3	14,3	13,9
Bizkaia	54,0	56,1	53,4	53,4	55,4	54,2
Gipuzkoa	31,9	30,0	32,6	32,2	30,3	31,9
Guztira	100	100	100	100	100	100

13. taula. 2 eta 29 urte bitarteko seme-alabak lurraldeka, familiaren tamainaren arabera (% horizontalak)

	Seme-alabak guztira	Familiaren tamaina (kideen kopurua)					Guztira
		3	4	5	6	> 6	
EAE	462.593	18,6	52,5	20,2	5,9	2,7	100
Araba	65.157	18,3	52,4	20,6	6,0	2,7	100
Bizkaia	249.962	19,3	51,8	20,0	6,1	2,7	100
Gipuzkoa	147.474	17,5	53,6	20,5	5,6	2,7	100

Fuente: EUSTAT

Elebidunen dentsitatea familian¹²

Familiako elebidunen dentsitateari dagokion aldagaia lortzeko, familia osatzen duten kide guztien barruan kide elebidunen ehunekoa¹³ kalkulatu da, eta 5 kategoriatan sailkatu dira:

- Elebidunak %80tik gora direnean
- Elebidunak %60tik %80ra bitartean direnean
- Elebidunak %45etik %60ra bitartean direnean
- Elebidunak %25etik %45era bitartean direnean
- Elebidunak %25etik behera direnean

Elebidunen dentsitatea, neurri batean, familiaren tamainak baldintzatzen du, norbanako bakoitzaren pisu espezifikoa aldatu egiten baita kide-kopuruaren arabera, eta ehunekoek izan ditzaketen balioak direla-eta, hainbat familia ezin dira kategoriatan jakin batean sartu. Hala, adibidez, ezinezkoa da 3 edo 5 kideko familiek elebidunen %45etik %59ra bitarteko dentsitatea izatea, eta, ondorioz, ezin dira erdiko kategorian sartu.


2 eta 29 urte bitarteko seme-alaben banaketa familiako elebidunen dentsitatearen arabera aztertuz gero (9. irudia), ikus dezakegu %40 baino gehiago (%41,2) bizi direla %25etik beherako elebidunen ehunekoak dituzten familietan. Horiei gehitzen badizkiegu elebidunen %25etik %45era bitarteko

ehunekoa duten familietan bizi direnak, kopurua seme-alaben ia %60raino (%59,2) igotzen da.

Bestalde, seme-alaben laurdena (%26,6) bizi da elebidunen ehunekoak 45 eta 80 artekoak dituzten familietan. Azkenik, seme-alaben %14,2 bakarrik bizi dira elebidunen %80tik gorako dentsitatea duten familietan. Azken egoera horrek bakarrik berma dezake ohiko erabilera nagusia euskara izatea.

Familiaren tamainari loturik bertako elebidunen dentsitatea aztertu aurretik, gogoan izan behar dugu, familiak tamainaren arabera aztertzean ikusi dugunez, seme-alaben erdia baino zertxobait gehiago (%52,5) 4 kideko familietan bizi dela. Bigarrenik, tarte handiarekin bada ere, 5 eta 3 kidez osatutako familiak daude, seme-alaben %20 eta %18,6 dituztenak, hurrenez hurren.

9. irudia. 2-29 urte bitarteko seme-alabak, familiako kide elebidunen dentsitatearen arabera. EAE, 2001 (%)



Iturria: EUSTAT

¹² Aurreko epigrafean adierazi dugunez, familian dauden elebidunen dentsitatea kalkulatzeko hura osatzen duten pertsona guztiak hartu dira kontuan.

¹³ Familiako kide elebiduntzat euskara ondo dakiten guztiak hartzen dira.



Azkenik, 6 kide edo gehiagoko familiek, seme-alaben %9 baino gutxiago biltzen dute, baina lehenak (sei kideko familiek) bigarrenak bi halako eta gehiago biltzen du (%5,9 vs. %2,7).

Seme-alaben banaketa familiaren tamainaren eta elebidunen dentsitatearen arabera aztertzen badugu (14. eta 15. taulak), ikus dezakegu, familiaren tamaina alde batera utzita, seme-alaben portzentaje handiena elebidunen %25etik beherako dentsitatea duten familietan agertzen dela beti. Hala ere, balio horiek alde nabarmenak erakusten dituzte familiaren tamainaren arabera, lau kideko familietako %34ren eta sei kideko gorako familietako %54,3ren artean baitabiltza.

Baina, elebidunen portzentaje txikiak dituzten familiek kontuan hartu gabe, seme-alaben banaketak alde handiak ditu familia-tamaina bakoitzean, gainerako taldeetako elebidunen dentsitatearen arabera (10. eta 11. irudiak).

- 3 kidez osatutako familiek: seme-alaben %75 baino gehiago (%76,9) elebidunen %45etik beherako portzentajea duten familiek dira; gainerakoak, aldiz, antzera banatzen dira elebidunen portzentaje handienak¹⁴ dituzten bi familia-taldeetan, alegia, %11,1 %60-80 bitarteko dentsitatea duten familietan, eta %12 %80tik gorako dentsitatea dutenetan.
- 4 kidez osatutako familiek eragin berezia dute, talde handiena delako. Izan ere, 2 eta 29 urte bitarteko seme-alaben erdia baino gehiago talde horren barruan dago. Horregatik, are esanguratsuagoa da %25 baino elebidun gutxiago dituzten familietan bizi diren seme-alaben portzentaje txikiak izatea era honetako familietan, hain zuzen %34, EAEko batez bestekoaren (%41,2) azpitik 7 puntu baino gehiago. Elkartzen baditugu elebidunen dentsitate txikiak duten bi familia-taldeak, %45etik beherako dentsitatea, seme-alaben ehunekoak %50 pasatxo baino ez da (%50,6), hurrengo balioari dagokion 6 kideko familien %62,1en aldean.

Familia-talde honetan azpimarratu behar dira, hala ere, elebidunen erdi-mailako dentsitatea (%45-59) dutenak, seme-alaben %24,1 baitira.


Elebidunen dentsitate handienak dituzten familia-taldeetan seme-alaben portzentajeak 3 kideko familietakoak baino pixka bat handiagoak dira (%13,8koa, elebidunen dentsitatea %80 baino gehiagoko familietan, eta %11,5koa %60-80 bitarteko dentsitatea dutenetan).

- 5 kide edo gehiago dituzten familietan, gainerakoetan bezala, seme-alaben talde handiena elebidunen %25etik beherako dentsitatea duten familietan dago. Oraingoan seme-alaben portzentajeak hemen ditu balio handienak, betiere %50en gainetik, eta familiaren tamaina zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoak dira.


Beraz, elebidunen %25 baino gutxiago duten 5 kidez osatutako familietan seme-alaben portzentajea %50,7koa da, eta portzentaje hori %51,5era igotzen da 6 kidez osatutako familietan, bai eta %54,3ra 6 kideko gorako familietan, bai eta %54,3ra 6 kideko gorako familien artean elebidunen %60-80 bitarteko dentsitatea dutenak nabarmentzen badira ere (%22,9), 6 kideko familiek eta 6 kideko gorakoek ere %20tik gorako ehunekoak dituzte elebidunen %80ko dentsitatea gaituzten dutenen kasuan.

¹⁴ Gogoan izan behar da, kideen kopurua kontuan hartuta, familia horietako elebidunen portzentajeak ezin duela inoiz erdiko taldean egon (%45-59).

10. irudia. 2-29 urte bitarteko seme-alabak, familiaren tamainaren eta elebidun dentsitatearen arabera. EAE, 2001



11. irudia. 2 eta 29 urte bitarteko seme-alabak, familiaren tamainaren eta elebidun dentsitatearen arabera. EAE, 2001 (%)



Iturria: EUSTAT



14. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alabak, elebidunen dentsitatearen eta familiaren tamainaren arabera. EAE, 2001

Familiaren tamaina	2-29 urte bitarteko seme-alabak, familian den elebidun-dentsitatearen arabera					
	Guztira	>80	60-80	45-59	25-44	<25
EAE	462.593	65.665	62.133	61.152	83.106	190.537
3	86.148	10.303	9.531		26.740	39.574
4	242.861	33.460	28.009	58.479	40.329	82.584
5	93.626	13.212	21.478		11.491	47.445
6	27.369	6.033	2.217	2.121	2.903	14.095
>6	12.589	2.657	898	552	1.643	6.839

Iturria: EUSTAT

15. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alabak, elebidunen dentsitatearen eta familiaren tamainaren arabera. EAE, 2001
(% horizontalak)

Familiaren tamaina	2-29 urte bitarteko seme-alabak, familian den elebidun-dentsitatearen arabera						Guztira
	Guztira	>80	60-80	45-59	25-44	<25	
EAE	462.593	14,2	13,4	13,2	18,0	41,2	100
3	86.148	12,0	11,1		31,0	45,9	100
4	242.861	13,8	11,5	24,1	16,6	34,0	100
5	93.626	14,1	22,9		12,3	50,7	100
6	27.369	22,0	8,1	7,7	10,6	51,5	100
>6	12.589	21,1	7,1	4,4	13,1	54,3	100

Iturria: EUSTAT

Ikasketa-maila

2 eta 29 urte bitarteko biztanleen ikasketa-mailak lotura handia du gazte horien adinarekin, jakina, asko baitira une honetan prestakuntza-prozesuan bete-betean daudenak.

Horregatik, banaketa orokorrak ez du garrantzirik eta adierazgarriagoa da, aldiz, adin-taldeen arabera analisia, nahiz eta analisi-modu honek ere ezusteko gutxi erakutsiko duen (12. irudia).


Lehenik, esan beharra dago analfabetismoa guztiz desagertuzat jo daitekeela adin-talde guztietan. Bestalde, 10 urtetik beherako taldeetan ia biztanleria osoak du lehen mailako ikasketei dagokien prestakuntza-maila, eta hondar-balioak dituzte “ikasketarik gabeak” epigrafean nahiz, gazteenen kasuan, “saillatu gabeak” epigrafean (16. eta 17. taulak).

Erdiko taldeetan, 10-14 urte eta 15-19 urte bitartekoetan, bigarren mailako ikasketak dira nagusi. Lehen taldean ehuneko %80raino iristen da, baina 15-19 urteko taldean aldiz, ehunekoaren balioa %50etik behera jaisten da (%48,5). Horren arrazoia lanbide-heziketari (%19,5) eta unibertsitateko erdi-mailari eta goi-mailari dagozkien balioak (%9,4 eta %13,9, hurrenez hurren) agertu izana da.

20 urtetik gorako taldeetan pisu handiena unibertsitate-mailako prestakuntza duten seme-alabek dute; izan ere, ikasketa horiek (ertaina eta goikoa) dituztenak talde bakoitzeko biztanleen erdia dira gutxi gorabehera. Talde horietako gainerako biztanleei dagokienez, bigarren mailako ikasketak nabarmentzen dira 20-24 urte bitarteko taldean (%26,5 vs.

%11,3), eta lanbide-heziketako ikasketak ordea, ehuneko handiagoa du 25-29 urte bitarteko taldean (%21,9 vs. %15,9). Talde horietan ikasketa-maila baxua (lehen mailako ikasketak) duen biztanleria %10,1ekoa da 20-24 urteko seme-alaben kasuan eta %15,9koa 25-29 urte dituztenengan.

12. irudia. 2-29 urte bitarteko seme-alabak, ikasketa-mailaren eta adinaren arabera. EAE, 2001 (%)



Iturria: EUSTAT



16. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alabak, ikasketa-mailaren arabera, adin-taldeka. EAE, 2001

Ikasketa-maila	Seme-alabak guztira	Adin-taldek					
		25-29	20-24	15-19	10-14	5-9	2-4
Analfabetoak	587	229	196	134	28		
Ikasketarik gabeak	3.244	97	105	539	1.261	1.037	205
Lehen Hezkuntza	145.412	13.409	11.528	7.192	13.094	63.012	37.177
Lanbide Heziketa	54.199	18.461	18.156	17.582			
Bigarren Hezkuntza	140.522	9.519	30.177	43.756	57.070		
Unib. maila ertaina	40.177	12.738	18.974	8.465			
Unib. goi-maila	76.993	29.699	34.763	12.531			
Sailkatu gabe	1.459					76	1.383
Guztira	462.593	84.152	113.899	90.199	71.453	64.125	38.765

Iturria: EUSTAT

17. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alabak, ikasketa-mailaren arabera, adin-taldeka. EAE, 2001 (%)

Ikasketa-maila	Seme-alabak guztira	Adin-taldek					
		25-29	20-24	15-19	10-14	5-9	2-4
Analfabetoak	0,1	0,3	0,2	0,1	0,0		
Ikasketarik gabeak	0,7	0,1	0,1	0,6	1,8	1,6	0,5
Lehen Hezkuntza	31,4	15,9	10,1	8,0	18,3	98,3	95,9
Lanbide Heziketa	11,7	21,9	15,9	19,5			
Bigarren Hezkuntza	30,4	11,3	26,5	48,5	79,9		
Unib. maila ertaina	8,7	15,1	16,7	9,4			
Unib. goi-maila	16,6	35,3	30,5	13,9			
Sailkatu gabe	0,3					0,1	3,6
Guztira	100	100	100	100	100	100	100


Iturria: EUSTAT

2 eta 29 urte bitarteko seme-alaben ikasketa-maila lehen hizkuntzaren arabera aztertzen badugu, hainbat desberdintasun ikus ditzakegu: lehen hizkuntza gaztelania duen taldea da ikasketa-maila handiena duena (%26 goi-mailako ikasketekin, %43 bigarren mailako ikasketekin eta %29,9 lehen mailako ikasketekin); beste muturrean daude lehen hizkuntza euskara eta gaztelania biak batera dituztenak (%21, %35,7 eta %42 hurrenez hurren), eta mutur bien arteko balioak dituzte lehen hizkuntza euskara bakarrik dutenek (13. eta 14. irudiak eta 18. eta 19. taulak).

Hala ere, alde horiek behar bezala interpretatu ahal izateko, hiru kolektiboen adin-taldeen araberako banaketan dagoen antzekotasuna edo desberdintasuna kontuan hartu behar da, ikasketa-maila erlazionatuta baitago kolektibo bakoitza “gazteagoa” edo “zaharragoa” izatearekin.


Izan ere, lehen hizkuntza gaztelania duen kolektiboa da “zaharrena”, ia erdiek (%45,5) 20 eta 29 urte bitarteko adina baitute, eta %19,6 bakarrik dira talde gazteenetakoak (2-9 urte). Alderantziz, lehen hizkuntza euskara eta gaztelania dituztenen taldea da gazteena, 20 urtetik gorakoak %28,4 baitira, eta 2 eta 14 urte bitartekoak, %36,6. Lehen hizkuntza euskara duen taldeak erdi-mailako balioak ditu: %38,8 eta %26,4 (20. eta 21. taulak).

13. irudia. 2-29 urte bitarteko seme-alabak, lehen hizkuntzaren eta ikasketa-mailaren arabera. EAE, 2001



Iturria: EUSTAT

14. irudia. 2-29 urte bitarteko seme-alabak, lehen hizkuntzaren eta ikasketa-mailaren arabera. EAE, 2001 (%)





18. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alaben ikasketa-maila, lehen hizkuntzaren arabera. EAE, 2001

Lehen hizkuntza	Guztira	Ikasketa maila			
		Lehen Hezk.	Bigarren Hezk.	Goi ikasketak	Besteak
Euskara	91.012	30.292	37.646	22.253	821
Biak	35.504	14.904	12.678	7.471	451
Gaztelania	336.077	100.216	144.397	87.446	4.018

Iturria: EUSTAT

19. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alaben ikasketa-maila, lehen hizkuntzaren arabera. EAE, 2001 (%)

Lehen hizkuntza	Guztira	Ikasketa maila			
		Lehen Hezk.	Bigarren Hezk.	Goi ikasketak	Besteak
Euskara	91.012	33,3	41,4	24,4	0,9
Biak	35.504	42,0	35,7	21,0	1,3
Gaztelania	336.077	29,9	43,0	26,0	1,2

Iturria: EUSTAT

20. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alaben lehen hizkuntza, adin-taldearen arabera. EAE, 2001


Adin-taldeak	Lehen hizkuntza		
	Euskara	Biak	Gaztelania
25-29	14.848	3.885	65.419
20-24	20.442	6.228	87.229
15-19	16.922	6.179	67.098
10-14	14.776	6.217	50.460
5-9	14.753	7.370	42.002
2-4	9.271	5.625	23.869
Guztira	91.012	35.504	336.077

Iturria: EUSTAT

21. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alaben lehen hizkuntza, adin-taldearen arabera. EAE, 2001 (%)

Adin-taldeak	Lehen hizkuntza		
	Euskara	Biak	Gaztelania
25-29	16,3	10,9	19,5
20-24	22,5	17,5	26,0
15-19	18,6	17,4	20,0
10-14	16,2	17,5	15,0
5-9	16,2	20,8	12,5
2-4	10,2	15,8	7,1
Guztira	100	100	100

Iturria: EUSTAT



III.
**Euskararen belaunez
belauneko transmisioa**

3. 2 eta 29 urte bitarteko seme-alaben Lehen Hizkuntza

3.1. Lurralde Historikoen arabera banaketa

“Lehen hizkuntza” edo “ama-hizkuntza” izeneko aldagaiak seme-alabek, normalean gurasoengandik, euren bizitzako lehen 3 urteetan ikasten duten hizkuntza adierazten du.

Datuen arabera (22. taula) 30 urtetik beherako seme-alaba gehienek (%72,6) gaztelania¹⁵ dute lehen hizkuntza, eta ia %20k du lehen hizkuntza euskara bakarrik; euskara eta gaztelania lehen hizkuntza dituztenak, berriz, ez dira %8ra iristen.

Lurralde Historikoen arabera banaketa aztertzen badugu, balioak oso desberdinak direla ikusiko dugu. Hala, Araban 30 urtetik beherako seme-alaben %3k baino zertxobait gehiagok bakarrik du lehen hizkuntza euskara, baina Bizkaian ehuneko hori %12,5ekoa da, eta Gipuzkoan ia %40ra iristen da. Eta ehuneko datu horiei euskara eta erdara lehen hizkuntza dituztenen ehunekoak gehitzen badizkiegu, balioak %8ra igotzen dira Araban, %19ra Bizkaian, eta ia %50era Gipuzkoan.

¹⁵ “gaztelania” diogunean, euskara ez den beste edozein hizkuntza izan liteke.

¹⁶ Hau da, euskara lehen hizkuntza dutenak, bakarrik nahiz gaztelaniarekin batera.

22. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alaben lehen hizkuntzaren banaketa. EAE, 2001

	Guztira	Lehen hizkuntza		
		Euskara	Biak	Gaztelania
EAE	462.593	91.012	35.504	336.077
Araba	65.157	2.241	3.062	59.854
Bizkaia	249.962	31.287	16.504	202.171
Gipuzkoa	147.474	57.484	15.938	74.052

	Guztira	Lehen hizkuntza (%)		
		Euskara	Biak	Gaztelania
EAE	100	19,7	7,7	72,6
Araba	100	3,4	4,7	91,9
Bizkaia	100	12,5	6,6	80,9
Gipuzkoa	100	39,0	10,8	50,2

Iturria: EUSTAT

3.2. Udalen arabera analisisa eta banaketa

Jarraian 2 eta 29 urte bitarteko seme-alaben portzentajeak lehen hizkuntzaren arabera eta udalerrietan banatuta aztertzen baditugu (23. eta 24. taulak), ikusiko dugu lehen hizkuntza gutxienez euskara¹⁶ duten seme-alaben proportzioa %85 baino gehiagokoa den udalerriak trinko samarrak diren bi eremutan daudela kokatuta batez ere. Lehenak, Bizkaiko ipar-ekialdean, Markina-Ondarroako eskualde osoa eta Gernika-Bermeokoaren zatirik handiena hartzen ditu; bigarrenak Gipuzkoako erdialdea hartzen du, Urola

Kosta, Goierri eta Tolosaldeako eskualdeen inguruan, baina kostaldeko udalerri handienak eta Tolosa-Beasain korridoreko garrantzitsuenak zona horretatik kanpo geratzen dira (15. irudia).

Bi eremu horiez gain, Bizkaian Arratia bailarako eta Durangaldeko udalerri batzuk eta Gipuzkoan Leintz-Gatzaga eta Elgetako udalerriak ere talde horretakoak dira, eta horiekin batera, Aramaio da kategoria horretan sartzen den Arabako udalerri bakarra.


Inguru horretako udalerri gehienek bereizgarri dituzte, batetik, txikia izatea, eta, bestetik, industrializazio-prozesuan egon arren, landa-izaera nabarmena izatea.

Lehen hizkuntza gutxienez euskara duten seme-alaben portzentajea %50etik %85era bitartekoa duten udalerriek gorago aipatutako zona horien zirrikituguneetan edo haien kanpoalde hurbilean daude; horrela, Bizkaia erdialdeko erdia, eta ia Gipuzkoa osoa (Donostialdea izan ezik) hartzen dituen gune trinkoago bat osatzen dute. Gune horren barnealdean badira, han-hemenka, portzentaje txikiagoak dituzten hainbat udalerri: Durango, Ermua, Eibar eta Zumarraga, hain zuzen ere.

%30etik %50era bitarteko balioak dituzten udalerriak ez dira asko, eta sakabanatuta daude, Donostia inguruan eta Plentzia-Txorierrri-Ibaizabal barrenaren ardatzean dauden kontzentrazio txikiak izan ezik. Udalerri horiek, %15etik %30era bitarteko balioak dituztenekin batera, %50etik gorako balioak dituzten udalerrien hutsuneak betetzen dituzte eta “lotune” bat ezartzen dute Bilbo Handiaren eta honen ondoko eskualdeen artean.



15. irudia. Lehen hizkuntza euskara edo euskara eta erdara duten 2-29 urte bitarteko seme-alaben banaketa, udalerrika. EAE, 2001 (%)



Iturria: EUSTAT

%5etik %15era bitarteko portzentajeak dituzten udalerrriak Araba iparraldeko zerrendan hasten dira eta, Bilbon barrena mendebalderantz jarraituz, eskuineko ibaiertzean eta Enkarterriko ekialdean aurkitzen dira. Enkarterriko gainerako udalerriek eta ibaiertzaren ezkeraldekoek, Arabako hegoaldeko udalerrri gehienekin batera, dira balio txikienak dituztenak, hain zuzen ere %5etik beherakoak.

Espazioari dagokionez, esan dezakegu badela 2 eta 29 urte bitarteko seme-alaben erdiak baino gehiagok lehen hizkuntza euskara¹⁷ duen eremu trinko bat (Bizkaiaren ekialdeko erdiak eta Gipuzkoaren zati handi batek osatua). Bertan portzentajeen murrizketa nabarmena da inguru horretako kanpoaldeko udalerrietan eta industria-eta hiri-ardatz nagusiak egituratzen dituztenetan: Ibaizabal goiena, Deba Bailara eta Beasain-Tolosa ardatza.

%50etik beherako portzentajeak dituzten udalerrriak gutxi gorabehera zentrokideak diren zerrendetan kokatuta daude, eta biztanleen artean dauden elebidun-portzentajearen banaketaren antzeko eredu bati jarraitzen diote¹⁸, baina azken horien balioak, oro har, pixka bat handiagoak dira, bereziki beheko mailetan (16. irudia).

¹⁷ Hau da, lehen hizkuntza euskara bakarrik edo gaztelaniarekin batera

¹⁸ 5 urtetik gorako biztanleez ari gara.

23. taula. Udalerrien banaketa lehen hizkuntza gutxienez euskara duten 2 eta 29 urte bitarteko seme-alaben portzentajeen arabera. EAE, 2001

Lehen hizkuntza gutxienez euskara duten 2-29 urte bitarteko seme-alaben portzentajea	Udalerriak	
	Kop.	%
>=%85	73	29,2
%70-84,9	33	13,2
%50-69,9	37	14,8
%30-49,9	20	8,0
%15-29,9	15	6,0
%05-14,9	32	12,8
<%05	40	16,0
Guztira	250	100

Iturria: EUSTAT


24. taula. Udalerrien banaketa, lehen hizkuntza gaztelania duten 2 eta 29 urte bitarteko seme-alaben portzentajeen arabera. EAE, 2001

Lehen hizkuntza gaztelania duten 2-29 urte bitarteko seme-alaben portzentajea	Udalerriak	
	Kop.	%
>=%85	72	28,8
%70-84,9	15	6,0
%50-69,9	21	8,4
%30-49,9	36	14,4
%15-29,9	33	13,2
%05-14,9	36	14,4
<%05	37	14,8
Guztira	250	100

Iturria: EUSTAT



16. irudia. Lehen hizkuntza euskara (edo euskara eta gaztelania) duten 2-29 urte bitarteko seme-alaben portzentajea, udalerriak. EAE, 2001



Iturria: EUSTAT

3.3. Seme-alaben lehen hizkuntza adinaren eta sexuaren arabera.


Zenbaki absolututan (25. taula) talde handienak 15 urtetik gorakoena dira, bereziki 20 eta 24 urte bitartekoena, seme-alaba guztien ia laurdena biltzen baitu (%24,6). Adinean behera egin ahala, seme-alaben kopuruak ere nabarmen egiten du behera. Ehuneko txikiena talde gazteenak du, alegia 2 eta 4 urte bitartekoen taldeak¹⁹, %8 pasatxorekin (%8,4) (17. irudia).

Gorago ikusi dugunez, 2 eta 29 urte bitarteko seme-alaben ia %20k (%19,7k) euskara bakarrik du lehen hizkuntza, eta %7,7k euskara erdararekin batera. Gainerakoek (%72,6) erdara bakarrik dute lehen hizkuntza.


Portzentaje horiek (26. taula) nabarmen aldatzen dira banaketa adin-taldearen arabera aztertzen badugu (18. irudia). Ikus dezakegunez, adin-talde bakoitzean euskara lehen hizkuntza izatea, bakarka nahiz erdararekin batera, arruntagoa da adinean behera egin ahala. Hala, lehen hizkuntza euskara bakarrik duten seme-alaben portzentajea zaharreneen taldeko %17,6tik gazteenen taldeko %23,9ra igotzen da. Bestalde, lehen hizkuntza euskara eta erdara dituztenen taldea ez da %5era iristen 25 eta 29 urte bitarteko seme-alaben artean eta, aldiz, balio hori hiru aldiz handiagoa (%14,5) da 2 eta 4 urtekoen artean. Gehikuntza horien ondorioz, nabarmen murrizten da lehen hizkuntza erdara duten seme-

¹⁹ Ehuneko txiki horren esanahia behar bezala interpretatzeko kontuan hartu behar da talde horrek hiru urteko adin-tartea hartzen duela barnean eta besteak berriz bost urtekoak direla.

17. irudia. 2-29 urte bitarteko seme-alabak, adin-taldearen arabera. EAE, 2001 (%)



18. irudia. 2-29 urte bitarteko seme-alaben lehen hizkuntza, adin-taldearen arabera. EAE, 2001 (%)



Iturria: EUSTAT



alaben kopurua; izan ere, %75etik gorakoa (%77,7) izatetik ia %60ra (%61,6) jaisten baita.

Sexuari dagokionez (27. eta 28. taulak), ohikoa den bezala, gizonezkoak emakumeak baino zertxobait ugariagoak dira adin-tarte gazteetan²⁰; izan ere, %52,5eko eta %47,5eko portzentajeak dituzte, hurrenez hurren. Seme-alabak lehen hizkuntzaren arabera banatzen baditugu, portzentaje horri berari eusten diote talde bakoitzean. Horrek adierazten du sexuaren aldagaiak ez duela eraginik hizkuntzaren transmisio-prozesuan.

Piramidea 2 eta 29 urte bitarteko seme-alaben adinaren eta sexuaren arabera lantzean (19. irudia), zenbait diferentzia ikus ditzakegu zenbaki absolututan (29. taula), gizonezkoen kopurua emakumeena baino handiagoa delako. Baina portzentajeen balioei begiratzen badiegu (30. taula), lehen hizkuntzaren banaketari dagokionez, adin-talde desberdinetan ere sexuak ez du aldaketa adierazgarrikerik eragiten, dagokion adin-taldearen barruan bi sexuentzat lehen hizkuntza bakoitzaren portzentajea antzekoa delako (31. eta 32. taulak).

²⁰ EAeko biztanleria osoan gizonezkoen portzentajea emakumeena baino pixka bat handiagoa da 30-34 adin-tartera arte, eta 35 eta 39 urte artean portzentajeak parekatu egiten dira. 60 urtetik gora emakumeen portzentajeak izugarriko hazkuntza du eta ia %75era iristen da adin zaharrenean (85 urte eta gehiago), gizonezkoen %25en aldean.

25. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alaben banaketa lehen hizkuntzaren arabera, adin-taldeka. EAE, 2001

Adin-taldeak	Euskara	Biak	Gaztelania	GUZTIRA
2-4	9.271	5.625	23.869	38.765
5-9	14.753	7.370	42.002	64.125
10-14	14.776	6.217	50.460	71.453
15-19	16.922	6.179	67.098	90.199
20-24	20.442	6.228	87.229	113.899
25-29	14.848	3.885	65.419	84.152
GUZTIRA	91.012	35.504	336.077	462.593

26. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alaben banaketa lehen hizkuntzaren arabera, adin-taldeka. EAE, 2001 (%)

Adin-taldeak	Euskara	Biak	Gaztelania	GUZTIRA
2-4	23,9	14,5	61,6	100
5-9	23,0	11,5	65,5	100
10-14	20,7	8,7	70,6	100
15-19	18,8	6,9	74,4	100
20-24	17,9	5,5	76,6	100
25-29	17,6	4,6	77,7	100
GUZTIRA	19,7	7,7	72,6	100

Iturria: EUSTAT

27. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alaben banaketa, sexuaren eta lehen hizkuntzaren arabera. EAE, 2001


Lehen hizkuntza	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Saldoa (G-E)
Euskara	91.012	47.449	43.563	3.886
Biak	35.504	18.388	17.116	1.272
Gaztelania	336.077	177.029	159.048	17.981
Guztira	462.593	242.866	219.727	23.139

Fuente: EUSTAT

28. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alaben banaketa, sexuaren eta lehen hizkuntzaren arabera. EAE, 2001 (%)

Lehen hizkuntza	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Saldoa (G-E)
Euskara	100	52,1	47,9	4,3
Biak	100	51,8	48,2	3,6
Gaztelania	100	52,7	47,3	5,4
Guztira	100	52,5	47,5	5,0

19. irudia. 2-29 urte bitarteko seme-alaben sexuaren eta adinaren arabeko piramidea, lehen hizkuntzaren arabera. EAE, 2001



Iturria: EUSTAT



29. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alaben banaketa, sexuaren, adinaren eta lehen hizkuntzaren arabera. EAE, 2001

Adin-taldeak	Guztira	Gizonak			Emakumeak		
		Euskara	Biak	Gaztelania	Euskara	Biak	Gaztelania
25 - 29	84.152	8.247	2.107	36.773	6.601	1.778	28.646
20 - 24	113.899	10.617	3.174	45.982	9.825	3.054	41.247
15 - 19	90.199	8.738	3.171	34.496	8.184	3.008	32.602
10 - 14	71.453	7.490	3.236	25.925	7.286	2.981	24.535
5 - 9	64.125	7.593	3.839	21.485	7.160	3.531	20.517
2 - 4	38.765	4.764	2.861	12.368	4.507	2.764	11.501
Guztira	462.593	47.449	18.388	177.029	43.563	17.116	159.048

Iturria: EUSTAT

30. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alaben banaketa, sexuaren, adinaren eta lehen hizkuntzaren arabera. EAE, 2001 (%)

Adin-taldeak	Guztira	Gizonak			Emakumeak		
		Euskara	Biak	Gaztelania	Euskara	Biak	Gaztelania
25 - 29	18,19	1,78	0,46	7,95	1,43	0,38	6,19
20 - 24	24,62	2,30	0,69	9,94	2,12	0,66	8,92
15 - 19	19,50	1,89	0,69	7,46	1,77	0,65	7,05
10 - 14	15,45	1,62	0,70	5,60	1,58	0,64	5,30
5 - 9	13,86	1,64	0,83	4,64	1,55	0,76	4,44
2 - 4	8,38	1,03	0,62	2,67	0,97	0,60	2,49
Guztira	100	10,26	3,97	38,27	9,42	3,70	34,38

Iturria: EUSTAT

31. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alaben banaketa adin-tarteka, sexuaren eta lehen hizkuntzaren arabera. Saldoak. EAE, 2001

Adin-taldeak	G Guztira	Gizonak			E Guztira	Emakumeak			Saldoa (G-E)		
		Euskara	Biak	Gaztelania		Euskara	Biak	Gaztelania	Euskara	Biak	Gaztelania
25 - 29	47.127	8.247	2.107	36.773	37.025	6.601	1.778	28.646	1.646	329	8.127
20 - 24	59.773	10.617	3.174	45.982	54.126	9.825	3.054	41.247	792	120	4.735
15 - 19	46.405	8.738	3.171	34.496	43.794	8.184	3.008	32.602	554	163	1.894
10 - 14	36.651	7.490	3.236	25.925	34.802	7.286	2.981	24.535	204	255	1.390
5 - 9	32.917	7.593	3.839	21.485	31.208	7.160	3.531	20.517	433	308	968
2 - 4	19.993	4.764	2.861	12.368	18.772	4.507	2.764	11.501	257	97	867
Guztira	242.866	47.449	18.388	177.029	219.727	43.563	17.116	159.048	3.886	1.272	17.981

Iturria: EUSTAT

32. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alaben banaketa adin-tarteka, sexuaren eta lehen hizkuntzaren arabera. Saldoak. EAE, 2001 (%)

Adin-taldeak	G Guztira	Gizonak			E Guztira	Emakumeak			Saldoa (G-E)		
		Euskara	Biak	Gaztelania		Euskara	Biak	Gaztelania	Euskara	Biak	Gaztelania
25 - 29	100	17,50	4,47	78,03	100	17,83	4,80	77,37	-0,33	-0,33	0,66
20 - 24	100	17,76	5,31	76,93	100	18,15	5,64	76,21	-0,39	-0,33	0,72
15 - 19	100	18,83	6,83	74,34	100	18,69	6,87	74,44	0,14	-0,04	-0,11
10 - 14	100	20,44	8,83	70,73	100	20,94	8,57	70,50	-0,50	0,26	0,24
5 - 9	100	23,07	11,66	65,27	100	22,94	11,31	65,74	0,12	0,35	-0,47
2 - 4	100	23,83	14,31	61,86	100	24,01	14,72	61,27	-0,18	-0,41	0,59
Guztira	100	19,54	7,57	72,89	100	19,83	7,79	72,38	-0,29	-0,22	0,51

Iturria: EUSTAT



3.4. Seme-alaben lehen hizkuntza eta gurasoen adina


Seme-alaben banaketa gurasoen adinaren arabera aztertuko dugu jarraian.

Gurasoentzat ezarritako hiru adin-taldeen arabera, alegia, 30 urtetik beherakoak, 30 eta 44 urte bitartekoak eta 45 urte edo gehiagokoak, 9 bikote-mota izan daitezke. Hala ere, seme-alaben %97,7 hiru bikote-motatik baino ez datoz. Hiru kasuetan bikotekideen adina 30 urtetik gorakoa da eta bi kideak adin-talde berekoak dira, edo ama aita baino zertxobait gazteagoa (30-44 eta 45 baino gehiago, hurrenez hurren). Gainerako talde guztiek %1 baino gutxiagoko hondar-balioak dituzte (20. irudia).

Seme-alaben lehen hizkuntza gurasoen hiru adin-talde nagusietan nola banatzen den aztertzen badugu, gurasoen adinak seme-alaben lehen hizkuntzan nolabaiteko eragina duela ikus daiteke (33. eta 34. taulak).

Beraz, bikotea zenbat eta gazteagoa izan, orduan eta txikiagoa da lehen hizkuntza erdara duten seme-alaben portzentajea, eta handiagoa lehen hizkuntza gutxienez euskara dutenena, batez ere, euskara lehen hizkuntza erdararekin batera dutenak gehiago direlako.

20. irudia. Seme-alaben banaketa, gurasoen adinaren arabera. EAE, 2001 (%)



Iturria: EUSTAT

33. taula. Seme-alaben lehen hizkuntza (LH), gurasoen adinaren arabera. EAE, 2001

Gurasoen adina	Seme-alabak guztira	LH Euskara	LH Biak	LH Gaztelania
Biak >45	249.620	47.149	14.131	188.340
Ai>45; Am 30-44	53.985	11.575	4.143	38.267
Biak 30-44	147.970	30.663	16.226	101.081
Gainerakoak	11.018	1.625	1.004	8.389
Guztira	462.593	91.012	35.504	336.077

Iturria: EUSTAT

34. taula. Seme-alaben lehen hizkuntza (LH), gurasoen adinaren arabera. EAE, 2001 (%)

Gurasoen adina	Seme-alabak guztira	LH Euskara	LH Biak	LH Gaztelania
Biak >45	100	18,89	5,66	75,45
Ai>45; Am 30-44	100	21,44	7,67	70,88
Biak 30-44	100	20,72	10,97	68,31
Gainerakoak	100	14,75	9,11	76,14
Guztira	100	19,67	7,67	72,65

3.5. Seme-alaben lehen hizkuntza gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera


Hizkuntzaren belaunaldi arteko transmisio-prozesutzat zentzu hertsian ulertu ohi dena aztertzeari ekingo diogu orain. Kontzeptu horrek zuzenean lotzen du gurasoen hizkuntza-gaitasuna, beraiek seme-alabei irakasten dieten hizkuntzarekin, hau da, seme-alaben lehen hizkuntzarekin, eta hartara, aldagai bi horien artean dagoen erlazio estua erakusten du (21. irudia eta 35. taula).

Gurasoak euren hizkuntza-gaitasunaren arabera sailkatzeko, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) ezarri duen tipologia erabiliko dugu; berau, EUSTATEk zentsuko informaziotik abiatuta landutako tipologia oinarrituta dagoen arren, murriztaileagoa²¹ da. Tipologia hori, azkenean, hiru kategoria sortzen ari da:

- **Elebidunak:** euskaraz ondo hitz egiten dute
- **Elebidun hartzaileak:** euskaraz zailtasunez hitz egiten dute
- **Erdaldun elebakarrak:** ez dute euskaraz hitz egiten

²¹ Bi tipologia horien arteko desberdintasun nagusia zera da: HPSk ia euskaldun hartzaile direnak bereizi egiten ditu EUSTATEn tipologiako ia euskaldunen talde orokorretik, eta erdaldunekin elkartzen ditu, era horretan, erdaldun elebakarren taldea osatzeko.

21. irudia. 2 eta 29 urte bitarteko seme-alaben lehen hizkuntza, gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera. EAE, 2001 (%)



Iturria: EUSTAT

35. taula. 2 eta 29 urte bitarteko seme-alaben lehen hizkuntza (LH), gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera. EAE, 2001

Gurasoek euskaraz hitz egiten dute	Seme-alabak guztira	LH Euskara		LH Euskara eta Gaztelania		LH Gaztelania	
		Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Biek ondo	72.359	63.652	88,0	5.014	6,9	3.693	5,1
Batek ondo	62.442	21.893	35,1	18.824	30,1	21.725	34,8
Batek ere ez	327.792	5.467	1,7	11.666	3,5	310.659	94,8

Iturria: EUSTAT



Hala, bi bikotekideak elebidunak direnean seme-alaben %95ek gutxienez euskara jasotzen du lehen hizkuntza gisa (%88k euskara bakarrik eta %7k erdararekin batera). Seme-alaben %5ek erdara du lehen hizkuntza bakarra.

Argi eta garbi bereizi behar dira, batetik, hizkuntzaren transmisioko edo ez-transmisioko prozesua, zeinak pertsona bakoitzaren lehen hizkuntza erabakiko duen, eta bestetik hizkuntza-gaitasuna irabazi edo galtzeko prozesua²², zeina pertsona baten lehen hizkuntzaren eta hizkuntza-gaitasunaren arteko harremanetik abiatuta ezartzen den.

Transmisioaren portzentajeak nabarmen aldatzen dira gurasoetako bat bakarrik denean elebidun; orduan lehen hizkuntza euskara duten seme-alabak %65era jaisten dira (%35ek euskara bakarrik eta %30ek erdararekin batera), eta gainerako %35ek erdara du lehen hizkuntza

Euskaraz ondo gurasoetako batek ere hitz egiten ez duenean²³, seme-alaben %95ek erdara bakarrik jasotzen du lehen hizkuntza gisa, %3,5ek erdara euskararekin batera eta %2 baino gutxiago dira euskara bakarrik jasotzen dutenak. Hala ere, esan beharra dago ehuneko hori horren txikia izan arren, euskara ez dakiten gurasoen seme-alaben multzoa hain handia izanik, hain zuzen seme-alaba guztien ia %70, lehen hizkuntza gutxienez euskara dutenen kopurua handi samarra dela, 17.133koa, alegia.

²² Aurrerago hizkuntza irabazi edo galtzeko prozesua aztertuko dugu, seme-alaben Hizkuntza Bilakaeraren Indizearen analisieren bitartez.

²³ Horrek ez du esan nahi batere ez dakitenik, litekeena baita galera partziala izatea edo une horretan ikasten aritzea.

3.6. Seme-alaben lehen hizkuntza gurasoen tipologiaren arabera

Orain arte euskararen hizkuntza-gaitasuna zentzu hertsian hartu dugu aintzat, baina hizkuntzaren transmisio-prozesuari begira garrantzitsua da hizkuntza-gaitasun erlatiboa ere kontuan hartzea. Kontzeptu horrek, euskaraz hitz egiteko gaitasunaz edo gaitasun-ezaz gain, erdara baino hobeto edo errazago hitz egiteko trebezia ere adierazten du. Horrek berekin dakar, praktikan, etxean normalean hitz egiten den hizkuntza bata ala bestea (edo biak) izatea eta, ondorioz, seme-alabek ikasiko duten hizkuntza ere horixe bera izatea.

Hainbat ikerketek erakutsi duenez, hizkuntza-gaitasun generiko antzeko baten jabe izanik, pertsonaren lehen hizkuntza erabakigarria da hizkuntza-gaitasun erlatibo bat ala beste izateko. Horrela, bada, lehen hizkuntza euskara duten pertsonak hizkuntza-gaitasun erlatiboa dezentez handiagoa izan ohi dute lehen hizkuntza erdara dutenek baino. Bi multzoen erdian daude, baina hurbilago lehenengotik bigarrenetik baino, hizkuntza biak lehen hizkuntza gisa jaso dituzten pertsonak.

Fenomeno hori aztertzeko, bi aldagai gurutzatu ditugu: lehen hizkuntza eta hizkuntza-gaitasuna, eta hortik sortutako Hizkuntza Bilakaeraren Indizearen (BILA) emaitzak erabili.

Aipatutako gurutzaketak bederatzi konbinazio ematen ditu:

²⁴ Gurasoen tipologia lantzean “euskara” eta “euskara eta gaztelania” lehen hizkuntzak elkartu dira eta, beraz, gurasoak aipatzean euskara lehen hizkuntza izateaz ala ez izateaz bakarrik hitz egingo dugu.

1. Lehen hizkuntza euskara	euskaraz ondo hitz egiten dute
2.	euskaraz ez dute ondo hitz egiten
3.	euskaraz ez dute batere hitz egiten
4. Lehen hizkuntzak biak	euskaraz ondo hitz egiten dute
5.	euskaraz ez dute ondo hitz egiten
6.	euskaraz ez dute batere hitz egiten
7. Lehen hizkuntza erdara	euskaraz ondo hitz egiten dute
8.	euskaraz ez dute ondo hitz egiten
9.	euskaraz ez dute batere hitz egiten

Talde horiek bilduz zazpi kategoria definitu dira, hala nola:

- **Euskaldun zaharrak** (1. taldea)
- **Jatorrizko elebidunak** (4. taldea)
- **Euskaldun berriak** (7. taldea)
- **Partzialki euskaldun berriak** (8. taldea)
- **Partzialki erdaldunduak** (2. eta 5. taldeak)
- **Gutziz erdaldunduak** (3. eta 6. taldeak)
- **Erdaldun elebakarrak** (9. taldea)

Ondoren, aitaren eta amaren BILA indizea zein taldetako den kontuan hartuta, bikoteen tipologia bat ezarri da, ondoko bikote-mota hauek sortuz: **D**, **B+**, **B**, **A+**, **A** eta **X**.

Lehen hiru taldeetan (D, B+ eta B) aitak eta amak biek euskaraz ondo hitz egiten dute; baina lehen taldean biak euskaldun zaharrak edo jatorrizko elebidunak dira, eta aldiz bigarrenean bietako bat

bakarrik da euskaldun zahar edo jatorrizko elebidun, bestea euskaldun berria baita. Hirugarren kasuan biak dira euskaldun berriak.

Hurrengo bi taldeetan (A+ eta A) bikotekide bakarrik hitz egiten du ondo euskaraz, lehenengoan lehen hizkuntza gutxienez euskara izanik eta bigarrenean erdara. Gerta daiteke beste bikotekideak euskaraz ez hitz egitea edo zailtasunez hitz egitea, lehen hizkuntza zein den alde batera utzita.

Azkenik, “X” taldeak euskaraz ondo bi gurasoetatik inork ez hitz egitea du bereizgarri.

Gurasoen tipologiaren arabera aztertzen badugu seme-alaben lehen hizkuntza, hau da, bien hizkuntza-gaitasuna eta lehen hizkuntza konbinatuz (23. irudia eta 36. taula), eta emaitza konparatzen badugu gurasoen hizkuntza-gaitasuna bakarrik aintzat hartuta (22. irudia) egindako analisisian lortu denarekin, desberdinak direla ikusiko dugu.

Hala, hizkuntza-gaitasuna bakarrik kontuan hartzean ikusi dugunez, bi gurasoek euskaraz ondo hitz egiten dutenean, lehen hizkuntza gutxienez euskara duten seme-alaben portzentajea %95ekoa da (%88k euskara bakarrik eta %7k erdararekin batera). Baina lehen hizkuntza ere eransten diogunean, biek ondo hitz egiteaz gain lehen hizkuntza euskara badute²⁴ (D motako bikoteak), lehen hizkuntza euskara duten seme-alaben portzentajea %98,6ra igozen da (%93,9k bakarrik eta %4,7k erdararekin batera).

Baina, bikotekideetako batek lehen hizkuntza euskara ez badu (B+), biek euskaraz ondo hitz egin arren, euskara lehen hizkuntza duten seme-alaben ehunekoa %92,4ra jaisten da. Orokorrean aldea



handia ez bada ere, handia da euskara lehen hizkuntza bakar gisa hartzen dutenak %76,2raino jaisten direla kontuan hartzen badugu. Aldiz, euskara erdararekin batera hartzen dutenak gehikuntza nabarmena erakusten dute, %16,2raino iritsiz, aurreko taldearen %93,9ren eta %4,7ren aldean, hurrenez hurren.

Azkenik, biek euskaraz ondo hitz egiten dutenean, baina bietako inork lehen hizkuntza euskara ez duenean, hau da, biak euskaldun berriak direnean (B), balioak izugarri jaisten dira, lehen hizkuntza gisa euskara (bakarrik nahiz erdararekin batera) jasotzen duten seme-alaben ehunekoak ozta-ozta gainditzen baitu %50 (%32,2k euskara eta %18,9k euskara eta erdara).

Euskaraz ondo bikotekideetako batek bakarrik hitz egiten duenean, hark euskara lehen hizkuntza izatea edo ez nabarmen islatzen da hizkuntza-transmisioan. Euskaraz ondo hitz egiten duen pertsonak gainera hura duenean lehen hizkuntza (A+), seme-alaben %80 baino gehiagok (%81,5) euskara jasotzen du lehen hizkuntza gisa (bakarrik %46,92 edo erdararekin batera %34,6). Kontrako kasuetan (A) euskararen transmisioa %32,9raino jaisten da (bakarrik %11,6 edo erdararekin batera %21,3).


Euskaraz ondo gurasoetako batek ere hitz egiten ez duenean (X), ez dugu aurkitu lehen hizkuntzaren araberrako alderik eta, beraz, gurasoen tipologiaren araberrako balioak bat datoz hizkuntza-gaitasunaren balioekin.

36. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alaben lehen hizkuntza gurasoen tipologiaren arabera. EAE, 2001

Gurasoen tipologia	Seme-alabak guztira	Seme-alabak lehen hizkuntzaren arabera					
		Euskara		Euskara eta erdara		Erdara	
		Kop	%	Kop	%	Kop	%
D	59.547	55.883	93,9	2.812	4,7	852	1,4
B+	8.282	6.311	76,2	1.345	16,2	626	7,6
B	4.530	1.458	32,2	857	18,9	2.215	48,9
A+	41.517	19.461	46,9	14.364	34,6	7.692	18,5
A	20.925	2.432	11,6	4.460	21,3	14.033	67,1
X	327.792	5.467	1,7	11.666	3,5	310.659	94,8
Guztira	462.593	91.012	19,7	35.504	7,7	336.077	72,7

Iturria: EUSTAT

22. irudia. 2-29 urte bitarteko seme-alaben lehen hizkuntza, gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera. EAE, 2001 (%)



Iturria: EUSTAT

Ondorioz, esan dezakegu euskarazko hizkuntza-gaitasun egoki batek ez duela besterik gabe hizkuntza-transmisioa bermatzen. Transmisioaren portzentajea %90etik gorakoa izan dadin, bi bikotekideek euskaraz ondo hitz egin behar dute, edo gutxienez bietako batek euskara izan behar du lehen hizkuntza.

Transmisioa, halaber, nahiko bermatuta egon liteke gurasoetako batek euskaraz ondo hitz egin ez arren, betiere besteak ondo hitz egiten badu, eta gainera lehen hizkuntza euskara badu (A+ taldea), orduan bai euskara, bera bakarrik edo erdararekin batera, izango baita bikote horien seme-alaben

%80k baino gehiagok (%81,5) jasoko duten lehen hizkuntza.

Kasu horretan agerian geratzen da, bereziki, lehen hizkuntzaren garrantzi handia, euskara ondo hitz egiten duen kidearen lehen hizkuntza euskara izateak talde horretan transmisioaren portzentajea B taldean baino are handiagoa izatea eragiten baitu, alegia, bi gurasoek euskaraz ondo egin bai baina lehen hizkuntza erdara dutenen taldean baino handiagoa izatea.

Horrek frogatzen du, arestian esan dugun bezala, gurasoen hizkuntza-gaitasuna ez dela nahikoa,


besterik gabe, hizkuntzaren jarraipena bermatzeko, euskaraz hitz egiten duenak ez badu hizkuntza hori lehen hizkuntza gisa. Transmisioaren portzentajeak oso adierazgarriak dira zentzu horretan, izan ere, bi gurasoak euskaldun berriak badira seme-alaben erdiak baino zertxobait gehiagok (%51,1) du lehen hizkuntza euskara, bera bakarrik edo erdararekin batera, eta portzentaje hori %32,9raino jaisten da euskaraz ondo bikotekide batek bakarrik hitz egiten duenean, eta gainera bera euskaldun berria denean.

Orain arte ikusi dugunez, guraso-mota faktore erabakigarria da hizkuntzaren transmisio-prozesuan, baina gurasoen hizkuntza-gaitasuna eta lehen hizkuntza ez dira prozesu horri eragiten dioten aldagai bakarrak. Kontuan izan behar da, maila desberdinetako hizkuntza-gaitasuna duten bikoteen kasuan, transmisio-prozesuaren emaitzetan alde handiak izatea eragiten duen hirugarren aldagai bat euskaraz ondo dakien kidearen identitatea dela, ez baita gauza bera euskaraz hitz egiten duena aita edo ama izatea.

Horri dagokionez, oso zabaldua dago hizkuntzaren transmisio-prozesuan amaren pisua aitarena baino handiagoa delako ideia, baina agerikoa badirudi ere, gutxitan aztertzen dira baieztapen hori berrestea ahalbidetuko duten datuak. Informazio-gabezia hori arintzen saiatzeko, taula bat egin dugu hizkuntza-gaitasun desberdina duten bikotekideen seme-alaben lehen hizkuntza aztertzeko behar diren estatistika-datuarekin (37. taula).

Hasi aurretik, 2 eta 29 urte bitarteko seme-alaben taldea ikuspegi orokor batetik aztertuko dugu (24. irudia). Gure ikerketarako hautatu ditugun seme-alaba guztietatik %75,3k hizkuntza-gaitasun bertsuko

23. irudia. 2-29 urte bitarteko seme-alaben lehen hizkuntza, gurasoen tipologiaren arabera. EAE, 2001 (%)



Iturria: EUSTAT



gurasoak ditu²⁵. Horietatik %70ek baino apur bat gehiagok (%72,3) euskaraz batere ez dakiten gurasoak ditu, eta %20,8 bi kideek euskaraz ondo hitz egiten duten bikoteen seme-alabak dira. Gainerakoak (%6,9) euskaraz zailtasunez hitz egiten duten gurasoen seme-alabak dira.

Ikus daitekeenez, hizkuntza-gaitasun desberdineko kideez osatutako hiru bikote-mota daude, eta horietako bakoitzean hizkuntza-transmisioa nolakoa den

aztertuko dugu. Gainera, bikote-mota bakoitzean euskaraz hitz egiten duena, edo ez duena, aita ala ama den kontuan hartuz, seme-alabenganako hizkuntza-transmisioan dauden aldeak ere ezartzen saiatuko gara (25. eta 26. irudiak).

Ondorioz, gutxi gorabehera seme-alaben laurdena (%24,7) maila desberdinetako hizkuntza-gaitasunak dituzten bikoteetatik datoz (bikote heterogeneoak). Portzentaje txikia dirudien arren, seme-alaba horien


multzoa 114.097 lagunekoa da, eta horrek erakusten digu zein garrantzitsua den. Seme-alaba horiek osatutako multzoan aztertuko dugu transmisio-prozesua, gurasoetako bakoitzaren identitateari eta hizkuntza-gaitasunari loturik.

Aintzat hartu ditugun hiru bikote-motetako bakoitzean bi aldaera egon daitezke, gurasoen gaitasuna banatuta dagoen moduaren arabera, eta horietako bakoitzak bi emaitza izan ditzake: seme-alaben lehen hizkuntza euskara izatea (bera bakarrik edo erdararekin batera), edo lehen hizkuntza erdara bakarrik izatea. Beraz, bikote-mota heterogeneo bakoitzarentzat lau emaitza desberdin izan ditzake, eta horrek 12 talde desberdin emango dizkigu. Talde horien balioak 37. taulan kontsulta ditzakegu²⁶.

Lehen taldeak bikotekideetako batek euskaraz ondo hitz egitea eta besteak nekez egitea du bereizgarri, eta bikote heterogeneoetatik datozen seme-alaben %27 dira (30.788 lagun). Euskara lehen hizkuntza gisa transmititzen zaien seme-alaben portzentajea nahiko handia da: %74,4 euskaraz ondo hitz egiten duena aita bada eta %81,6 ondo hitz egiten duena ama bada.

Bigarren taldean, kide batek euskaraz ondo hitz egiten duen eta besteak batere hitz egiten ez duen bikoteen seme-alaben taldea da. 31.654 lagunek osatzen dute, aztertzen ari garen seme-alaben %25

24. irudia. 2-29 urte bitarteko seme-alaben banaketa, gurasoen hizkuntza-gaitasunaren konbinazioaren arabera. EAE, 2001 (%)



Iturria: EUSTAT

²⁵ Antzeko hizkuntza-gaitasuna izan arren, lehen hizkuntza desberdina izan daiteke eta, ondorioz, erabilera desberdina izan daiteke. Beraz, aurrerago, erabilera aztertuko dugu.

²⁶ Ikuspegi orokor bat izateko, taulan 2 eta 29 urte bitarteko seme-alaba guztiei buruzko balioak sartu dira.

baino zertxobait gehiago (%27,7). Euskarak lehen hizkuntza gisa duen transmisioa asko gutxitzen da, eta gainera talde honetan dago alderik handiena transmisioaren portzentajeetan, euskara hitz egiten duena aita edo ama den kontuan hartuta. Aldea, hain zuzen, 10 puntuz gorakoa da (11,6 puntu) ehunekotan.


Izan ere, lehen hizkuntza euskara duten seme-alaben portzentajea %45,3koa da euskaraz hitz egiten duena aita denean eta, aldiz, euskaraduna ama denean

%56,9raino igotzen da euskara jasotzen duten seme-alaben portzentajea. Hala ere, balio hori dezente murrizten da aurreko taldeak, dagokion egoeran, duen ehunekoarekin (%81,6) alderatuta.


Azkenik, hirugarren taldea hizkuntza-gaitasun txikiena duten bikote heterogeneoen seme-alabek osatzen dute. Talde honetan, bikotekideetako baten hizkuntza gaitasuna ez da osoa, euskaraz zailtasunez hitz egiten baitu, eta beste kideak ez du inolako hizkuntza gaitasunik, ez baitaki euskaraz.

Hauxe da, hain zuzen, talde handiena, 51.655 lagunez osatua, eta seme-alaben %45 baino gehiago (%45,27) biltzen duena. Hizkuntza-transmisioaren portzentajea nabarmen jaisten da, eta bere balioak, jakina, hiru taldeetako baxuenak dira. Esan beharra dago euskaraz hitz egiten duena aita edo ama den kontuan hartuta portzentajeen artean dagoen aldea hiru taldeetako txikiena dela.


25. irudia. 2-29 urte bitarteko seme-alaben lehen hizkuntza, bikotekideen hizkuntza-gaitasunaren arabera. EAE, 2001 (%)



26. irudia. Bikote heterogeneoen seme-alaben lehen hizkuntza, bikotekide bakoitzaren hizkuntza-gaitasunaren arabera. EAE, 2001 (%)



Zirkuluen tamaina, dagokion taldearen seme-alaben kopuruaren arabera da.
Iturria: EUSTAT





Lehen hizkuntza euskara duten seme-alaben portzentajea %15 ingurukoa da (%15,1) euskaraz zerbait hitz egiten duena aita denean, eta aldiz portzentaje hori pixka bat igotzen da, %19ra, zerbait hitz egiten duena ama denean. Bi kasuetan ehunekoen balioa aurreko taldeetako herena da (%15 eta %19 vs %45 eta %57, hurrenez hurren).

Laburbilduz esan dezakegu maila desberdinetako hizkuntza-gaitasunak dituzten bikoteetan euskararen transmisioaren portzentajeak, bikotearen hizkuntza-gaitasunaren mailari zuzenean eta estuki lotuta egoteaz gain, alde desberdinak dituela, halaber, maila handiagoko hizkuntza-gaitasuna duena aita edo ama baldin bada.

Kasu guztietan transmisio-prozesuak portzentaje handiagoak lortzen ditu hizkuntza hobeto hitz egiten duena ama denean, eta alde hori bereziki deigarria da kide bien arteko hizkuntzazko aldea handiagoa denean, hau da, batak ondo hitz egin eta besteak batere hitz egiten ez duenean.

37. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alaben lehen hizkuntza, bikotekide bakoitzaren hizkuntza-gaitasunaren arabera. EAE, 2001

Euskaraz hitz egiten dute		2-29 urte bitarteko seme-alabak							
Aita	Ama	Lehen hizkuntza	Kop.	% Kop./taldea	Taldea	% Taldea/ Guztizko partziala	Guztizko partziala	% Guztizko partziala/ Guztira	GUZTIRA
Ondo		Euskara edo biak	68.666	94,9	72.359	20,8	348.496	75,3	462.593
		Erdara	3.693	5,1					
Nekez		Euskara edo biak	7.400	30,6	24.157	6,9			
		Erdara	16.757	69,4					
Batere ez		Euskara edo biak	713	0,3	251.980	72,3			
		Erdara	251.267	99,7					
Ondo	Nekez	Euskara edo biak	10.431	74,4	14.024	45,6			
		Erdara	3.593	25,6					
Nekez	Ondo	Euskara edo biak	13.684	81,6	16.764	54,4			
		Erdara	3.080	18,4					
Bien	Batere ez	Euskara edo biak	5.499	45,3	12.145	38,4			
		Erdara	6.646	54,7					
Batere ez	Ondo	Euskara edo biak	11.103	56,9	19.509	61,6			
		Erdara	8.406	43,1					
Nekez	Batere ez	Euskara edo biak	3.042	15,1	20.193	39,1			
		Erdara	17.151	84,9					
Batere ez	Nekez	Euskara edo biak	5.978	19,0	31.462	60,9			
		Erdara	25.484	81,0					

Fuente: EUSTAT

3.7. Seme-alaben lehen hizkuntza gurasoen adinaren eta tipologiaren arabera

Seme-alaben lehen hizkuntza gurasoen tipologiaren arabera aztertzean ikusi dugu gurasoen euskarazko gaitasuna zenbat eta handiagoa izan, orduan eta altuagoa dela lehen hizkuntza euskara duten seme-alaben portzentajea. Gainera, seme-alaben lehen hizkuntza adinaren arabera aztertzean egiaztatu dugunez, adin-taldea zenbat eta gazteagoa izan, orduan eta handiagoa da lehen hizkuntza gutxienez euskara duten seme-alaben portzentajea.

Ondoren bi aldagaiak, alegia gurasoen tipologia eta seme-alaben adina, konbinatuz lortutako datuak aztertuko ditugu.

a) Lehen hizkuntza euskara duten seme-alabak²⁷ adin-taldetan banatuta, gurasomotaren arabera.

Adin-tarte guztietan pisu gehien duen taldea D motako gurasoak (biak euskaldun zaharrak edo jatorrizko elebidunak) dituzten seme-alabena da. Halaz ere, dagokion portzentajea gutxitu egiten da seme-alaben adinak behera egin ahala, %62tik (%61,89) %31ra (%31,52) pasatuz (27. irudia eta 39. taula).

Lehen begiratuan harrigarria gerta daitekeen fenomeno hau ez da arraroa, bikote-mota desberdinen adinaren araberrako banaketa kontuan hartzen badugu (38. taula), eta hala, D motako gurasoek gai-

²⁷ Lehen hizkuntza euskara esatean, besterik aipatu ezean, barnean sartzen dira euskara bera bakarrik eta euskara erdararekin batera.

nerako bikote-motek baino adinez dezente zaharagoak direla ikusten badugu. Izan ere, D motako bikoteen ia %60 dira 45 urte baino gehiagoko bi kidez osatuak, eta aldiz multzo horretatik hurbilen da goenak, A+ motako bikoteetan, portzentajea hamar puntu txikiagoa da (%48,7). Bikote gazteenak B eta A motatakoak dira, haietako %60 baino gehiago 30 eta 44 urte bitarteko adina duten pertsonak osatzen baitituzte.

Adin-talde bakoitzean B+ motako bikoteengandik (kide bat euskaldun zaharra/jatorrizko elebiduna eta bestea euskaldun berria), edo B motako bikoteengandik (bi kideak euskaldun berriak) datozen eta lehen hizkuntza euskara duten seme-alaben portzentajearen bilakaera ia parekoa da. Portzentaje txikiak dira beti ere, seme-alaba guztiek batera duten pisua %6koa baita lehen kasuan (B+),

eta %2tik beherakoa bigarreanean (B). Hala ere, bikote-mota horietatik datozen eta lehen hizkuntza euskara duten seme-alaben kopurua etengabe eta pixkanaka handitzen doa, adinean behera egin ahala. B+ motako gurasoak dituztenen kasuan portzentajea 25-29 urtekoen taldean %3,6 izatetik 2-4 urtekoen taldean %8,4 izatera pasatzen da, eta B motako gurasoak dituztenen artean balioak talde zaharrenaren %0,6 eta gazteenen %3 artekoak dira.

A motako bikoteen (euskaraz ondo hitz egiten duen bikotekide bakarra euskaldun berria da) seme-alaben artean ere joera antzekoa da, eta adinean behera egin ahala, handiagoa da haien pisua. Gainera, talde honek dauka hazkunde-erritmo biziena eta, hala, 25-29 taldean %1,85 izatetik, txikienean taldean %10 izatera pasatzen da.

38. taula. Lehen hizkuntza euskara (edo biak) dituzten seme-alaben banaketa, gurasoen adinaren eta tipologiaren arabera. EAE, 2001 (%)

Bikote mota	Seme-alabak guztira	Gurasoen adina		
		Aita >=45 / Ama >=45	Aita >=45 / Ama 30-44	Aita 30-44 / Ama 30-44
D	100	59,0	12,4	28,5
B+	100	35,7	14,1	50,2
B	100	22,6	11,6	65,8
A+	100	48,7	13,2	38,0
A	100	25,4	12,2	62,4
X	100	36,9	12,2	50,8
Guztira	100	49,5	12,7	37,8

Iturria: EUSTAT



A+ bikoteen (euskaraz ondo hitz egiten duen kide bakarra euskaldun zaharra edo jatorrizko elebiduna da) transmisioaren portzentajeari dagokionez, alde txikiak ageri dira adin-talde desberdinen artean, %24,5etik %28ra bitartean dabil eta, beraz, talde nahiko egonkorra dela esan daiteke.

Azkenik, X motako bikoteen seme-alaben kasua azpimarratu behar da, euskaraz ondo gurasoetako


batek ere hitz egiten ez duen arren, lehen hizkuntza euskara duten seme-alaben portzentajea gero eta handiagoa baita, lehen begiratuan handi samarrak diruditen balioekin: zaharreneen taldeko %7,5etik hasi eta gazteenen %20ra artekoak, hain zuzen.

Fenomeno honen aurrean, kontuan izan behar da X motako bikoteetan, euskaraz ondo hitz egiten ez badute ere, kide batek edo biek hizkuntza partzialki

jakin dezaketela eta hori nahikoa izan daitekeela hasiera batean lehen hizkuntza gisa transmititzeko, bera bakarrik nahiz erdararekin batera.


Bestalde, gogoan izan behar da lehen hizkuntza, EUSTATen definizioaren arabera, "...*haurtzaroan 3 urtera arte ikasten den lehen hizkuntza dela...*". Kontzeptu hau, orain arte, inplizituki lotzen zitzaion familian ikasitako hizkuntzari.

27. irudia. Lehen hizkuntza euskara (edo biak) duten 2-29 urte bitarteko seme-alabak adin-taldeka, gurasoen tipologiaren arabera. EAE, 2001 (%)



Iturria: EUSTAT

28. irudia. 0-3 urte bitarteko biztanleriaren eskolatzetasaren bilakaera. EAE, 1994/1995etik 2004/2005 ikasturtera bitartean (%)



* Tasak matrikulen arabera kalkulatu direnez, eta ez ordea pertsonen arabera, gerta liteke emaitzetan desberatze txikiak agertzea eta, horren ondorioz, tasaren balioa 100etik gorakoa izatea.

Gaur egun, ordea, haurrak gero eta gazteago eskolatzen direnez (28. irudia), umeak, 3 urte bete aurretik, etxekoa ez den beste hizkuntza bat ikasteko aukera du eta, definizio horren arabera, hori ere lehen hizkuntzat hartu beharko da. Oro har horrek ez du esan nahi ikasitako hizkuntza berriak “familiako” hizkuntza ordeztzen duenik, bi lehen hizkuntza dituzten haurrak gero eta gehiago direla baizik.

Haurrak goiz eskolatzeari dagokionez, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren datuen arabera (2004-05 ikasturtea)²⁸, EAEk du estatuko eskolatzeta-tasa altuena 0-2 urteko umeentzat, eta ia hirukoiztu egiten du estatuko batez bestekoa (%40,5 vs. %15,0), %29,9rekin bigarren postuan dagoen Kataluniatik urrun samar. Bereziki deigarria da 2 urteko haurren eskolatzean dagoen aldea, %86,3rekin Katalunia-

koak baino ia 35 puntu gehiago baititu. 3 urtetik aurrera eskolatzeta ia erabatekoa dela esan daiteke.

39. taula. Lehen hizkuntza euskara (edo biak) duten 2-29 urte bitarteko seme-alabak adin-taldeka, gurasoen tipologiaren arabera. EAE, 2001 (%)

Guraso-motak	2-29 urte bitarteko seme-alabak, LH euskara dutenak, adin-taldeka (%)						
	Guztira	25 - 29	20 - 24	15 - 19	10 - 14	5 - 9	2 - 4
	126.516	18.733	26.670	23.101	20.993	22.123	14.896
D	46,49	61,89	54,82	47,41	41,62	36,60	31,52
B+	6,05	3,60	4,42	5,45	7,08	8,15	8,42
B	1,83	0,60	0,78	1,20	2,21	3,43	3,34
A+	26,74	24,52	26,78	28,02	27,99	27,02	25,26
A	5,45	1,85	2,73	4,22	6,30	8,87	10,45
X	13,54	7,53	10,47	13,70	14,80	15,94	21,02
Guztira	100	100	100	100	100	100	100

Iturria: EUSTAT

²⁸ MEC. Las cifras de la educación en España. 2007ko edizioa (2004-2005 ikasturtea), ondoko web-orritik ateratako informazioa: http://www.mec.es/mecd/jsp/plantilla.jsp?id=3131&area=estadisticas&contenido=/estadisticas/educativas/cee/2006A/cee_2006A.html



b) Lehen hizkuntza erdara duten seme-alabak adin-taldeka, guraso-moten arabera.


Lehenbizi azpimarratzekoa da bi gurasoek euskaraz ondo hitz egiten dutenean, bietako bat edo biak euskaldun zaharrak edo jatorrizko elebidunak izanik (D eta B+ motak), lehen hizkuntza erdara duten seme-alaben portzentajeak hondar-balioak dituela adin-talde guztietan, hain zuzen %0,11tik %0,35era bitartekoak. Horrek adierazten duenez, era horretako bikoteen seme-alaba ia guztiek euskara dute lehen hizkuntza, zein adin-talderi dagozkion kontuan hartu gabe (29. irudia eta 40. taula).

Gurasoetako bat euskaldun zaharra edo jatorrizko elebiduna bada eta besteak euskaraz ondo hitz egiten ez badu (A+), lehen hizkuntza erdara duten seme-alaben ehunekoa zertxobait handiagoa da, %2-3 ingurukoa, baina adinean behera egin ahala ehuneko horrek txikitzeko joera du.

Bi kideak euskaldun berriak diren bikoteetan (B) ere balio horiek txikiak dira, %1 baino pixka bat gehiago adin-talde gazteenetan. Euskaldun berria bikotekide bakarra bada eta besteak euskaraz hitz egiten ez badu (A), portzentajeen balioak handiagoak dira, eta gero eta handiagoak gainera, zenbat eta gazteago izan, 2-4 urtekoen taldean %8tik gorakoa izatera iritsi arte.

Azkenik, gurasoetako batek ere euskaraz hitz egiten ez duenean lehen hizkuntza erdara duten seme-alaben portzentajea %85etik gorakoa da adin-talde guztietan; hala ere, A motako gurasoen igoerarekin bat datorren nolabaiteko beherakada nabaritzen da adin-talde gazteenetan.

29. irudia. Lehen hizkuntza gaztelania duten 2-29 urte bitarteko seme-alabak adin-taldeka, gurasoen tipologiaren arabera. EAE, 2001 (%)



Iturria: EUSTAT

40. taula. Lehen hizkuntza gaztelania duten 2-29 urte bitarteko seme-alabak adin-taldeka, gurasoen tipologiaren arabera. EAE, 2001 (%)

Guraso-mota	2-29 urte bitarteko seme-alabak, LH gaztelania dutenak, adin-taldeka (%)						
	Guztira	25 - 29	20 - 24	15 - 19	10 - 14	5 - 9	2 - 4
D	0,25	0,35	0,30	0,23	0,19	0,16	0,19
B+	0,19	0,13	0,11	0,16	0,24	0,35	0,30
B	0,66	0,44	0,48	0,59	0,77	1,02	1,23
A+	2,29	3,16	2,34	1,95	1,90	2,01	1,98
A	4,18	2,23	2,72	3,65	5,32	7,31	8,39
X	92,44	93,70	94,05	93,41	91,58	89,16	87,91
Guztira	100	100	100	100	100	100	100

Iturria: EUSTAT

c) **2 eta 29 urte bitarteko seme-alaben lehen hizkuntza, guraso-motaren arabera eta adin-taldetan banatuta.**

Azterketa gurasoen tipologiaren ikuspegitik egiten badugu, joera orokorra adinean behera egin ahala lehen hizkuntza euskara duten seme-alaben portzentajea handitu egiten dela ikusten dugu (30. irudia eta 41. taula).

Jakina, lehen hizkuntza euskara duten seme-alaben portzentajea oso handia denean, ez da igoerarako tarte handirik geratzen. Beraz, D motako gurasoen kasuan lehen hizkuntza euskara duten seme-alaben portzentajea %98-99 artean finkatu da, egonkor.

Arrazoi berarengatik lehen hizkuntza euskara duten B+ motako gurasoen seme-alaben portzentajean igoera ez da oso handia. Hala ere, adin-talde gazteenak 25 eta 29 urte bitartekoen taldeak baino 5 puntu gehiagoko portzentajea du (%89,2 vs %94,6).

Antzeko zerbait gertatzen da A+ motako gurasoen seme-alaben artean ere, baina kasu honetan lehen hizkuntza euskara duten seme-alaben arteko aldea handiagoa da adin-talde bakoitzean: 25 eta 29 urte bitarteko seme-alaben taldeko %69tik hasi eta gazteenen taldeko ia %90eraino (%88,9).

Hazkuntza ikusgarrienak euskaraz hitz egiten duen bikotekidea edo bikotekideak euskaldun berriak

direnean izaten dira. Kasu horietan talde gazteenean lehen hizkuntza euskara duten seme-alaben portzentajeak bikoiztu egiten du 25-29 urtekoena; %62,9 vs %28,3, bi gurasoak euskaldun berriak badira, eta %43,7 vs. %19,2, euskaldun berria bikotekide bakarra izan eta besteak euskaraz ondo hitz egiten ez badu.

Azkenik, gurasoetako batek ere euskaraz ondo hitz egiten ez duenean (X mota), balio handienek bakarrik gaintitzen dute %10a (%13 adin-talde gazteenean); baina azpimarratu behar da portzentaje hori 25-29 urteko taldearena (%2,3) baino ia 7 aldiz handiagoa dela, eta horrek hazkunde-erritmo handia islatzen du.


41. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alaben lehen hizkuntza adin-taldeka, guraso-motaren arabera. EAE, 2001 (%)

Guraso-mota	Seme-alaben lehen hizkuntza	Adin-taldeak					
		25 - 29	20 - 24	15 - 19	10 - 14	5 - 9	2 - 4
D	Euskara edo biak	98,1	98,3	98,6	98,9	99,2	99
	Erdara	1,9	1,7	1,4	1,1	0,8	1
B+	Euskara edo biak	89,2	92,6	92	92,4	92,6	94,6
	Erdara	10,8	7,4	8	7,6	7,4	5,4
B	Euskara edo biak	28,3	32,9	41,1	54,4	63,9	62,9
	Erdara	71,7	67,1	58,9	45,6	36,1	37,1
A+	Euskara edo biak	69	77,7	83,2	86	87,6	88,9
	Erdara	31	22,3	16,8	14	12,4	11,1
A	Euskara edo biak	19,2	23,5	28,4	33	39	43,7
	Erdara	80,8	76,5	71,6	67	61	56,3
X	Euskara edo biak	2,3	3,3	4,8	6,3	8,6	13
	Erdara	97,7	96,7	95,2	93,7	91,4	87


Iturria: EUSTAT



30. irudia. 2-29 urte bitarteko seme-alaben lehen hizkuntza adin-taldeka, guraso-motaren arabera. EAE, 2001 (%)



Iturria: EUSTAT



IV.
Hizkuntza-bilakaeraren
indizea (BILA)

4.

2 eta 29 urte bitarteko seme-alaben Hizkuntza Bilakaeraren Indizea (BILA)

Hizkuntzaren transmisio-prozesuaren azterketak egungo egoera soziolinguistikoa eta bere bilakaera hobeto ulertzen laguntzen digu. Ez dugu ahaztu behar, hizkuntza irabazten dutenen hazkuntza-erritmoa handia bada ere, lehen hizkuntzaren bilakaera prozesu motela dela. Norbanakoaren bizitzan zehar aldatu ezin den faktorea izanik, lehen hizkuntzaren aldaketa ezinbestean belaunaldi batetik bestera gertatu litekeen fenomeno da. Aztertutako seme-alaben multzoan, lautik ia hiruk lehen hizkuntza erdara dutela kontuan hartzen badugu, hobeto ulertuko dugu egiteko dugun bidea oraindik luzea dela.

Dena den ez dugu ahaztu behar hizkuntzaren transmisio-prozesua hizkuntzak bizirik irauteko lehen urratsa besterik ez dela; hizkuntzaren ezagutza gordetzen edota hobetzen ez bada, eta batez ere eguneroko bizitzan ohiko hizkuntza gisa erabiltzen ez bada, oso zaila izango da haren iraupena bermatzea.

Lehen hizkuntzaren eta hizkuntza-gaitasunaren balioak konparatzean (31. irudia) ikusten dugunez, 2 eta 29 urte bitarteko seme-alaben ia hiru laurdenak (%72,6) erdara du lehen hizkuntza eta gainerako


%27,4ek euskara²⁹. Hala ere, erdia baino gehiago (%52,9) elebidunak dira (euskaraz ondo egiten dute) eta %30,4 elebidun hartzaileak dira (euskaraz zailtasunez hitz egiten dute) eta %16,6 bakarrik dira batera ez dakitenak.

Lehen hizkuntzaren eta hizkuntza-gaitasunaren arteko alde nabarmen horrek erakusten du badela hizkuntza-bilakaeraren prozesu garrantzitsu eta

dinamiko bat, batez ere hizkuntza irabazteari dagokionez.

Horregatik, jarraian, BILA indizearen bitartez, euskara lehen hizkuntza gisa jaso zuten 2 eta 29 urte bitarteko seme-alaben artean hizkuntza hori gorde dutenak edo galdu dutenak aztertuko ditugu, bai eta euskara jaso ez zutenen kasuan hura irabazi duten ala ez ere.

31. irudia. 2-29 urte bitarteko seme-alaben banaketa, lehen hizkuntzaren eta hizkuntza-gaitasunaren arabera. EAE, 2001 (%)



Iturria: EUSTAT

²⁹ Bera bakarrik (%19,7) edo erdararekin batera (%7,7).



4.1. 2 eta 29 urte bitarteko seme-alaben banaketa Hizkuntza Bilakaeraren Indizearen (BILA) arabera

Hizkuntza Bilakaeraren Indizeak (BILA) norbanakoen hizkuntza-bilakaera erakusten du, lehen hizkuntza gisa jaso zuten lagunek hizkuntza horren gaitasuna erabat edo partzialki galdu ote duten, edo alderantziz, lehen hizkuntza gisa jaso ez zuten haiek irabazi ote duten adieraziz.

2 eta 29 urte bitarteko seme-alaben banaketa BILA indizearen arabera aztertzean (32. irudia), euskaraz ondo egiten duten seme-alaben erdia baino zertxobait gehiago euskaldun berriak direla ikusten dugu, hau da, lehen hizkuntza euskara ez den beste hizkuntza bat izanik euskara oso ondo ikasi dutela.

Euskaldun berrien antzeko portzentajeetan dira partzialki euskaldun berriak, %28,5 alegia. Hauek aurrekoekiko bereizgarri dute euskaraz duten hizkuntza-gaitasuna txikiagoa dela, eta ez dutela ondo hitz egiten.


Bi talde horiek batera, alegia, euskaldun berriek eta partzialki euskaldun berriek, 2 eta 29 urte bitarteko seme-alaben erdia baino gehiago (%56,2) biltzen dituzte, eta hizkuntza irabazteko bidean dauden norbanakoen multzoa osatzen dute.

Bestalde, lehen hizkuntza euskara izanik (%27,4) ondo hitz egiten duten seme-alaben portzentajea %25,2koa da. Bi puntuko alde horrek adierazten du lehen hizkuntza gisa euskara jaso duten seme-alaben %90 baino gehiagok (%92,2) hizkuntza horretan duen gaitasuna gorde edo hobetu egiten duela eta, aldiz, %7,8k hizkuntza-gaitasuna galdu egin duela, gehienetan galera hori erabatekoa (%0,7) ez, baizik eta partziala (%7,1) izan bada ere. Bi talde horiek 2 eta 29 urte bitarteko seme-alaba guztien %2 baino ez dira.

Azkenik, azpimarratu behar da lehen hizkuntza erdara jaso duten seme-alabak gehiengo zabala diren arren (%72,6), horien artean ia %80k euskara irabazi duela, %38,2k guztiz eta %39,3k partez; beste %20k baino gehixeagok, (%22,5) ordea, erdaldun zahar izaten jarraitu du. Ondorioz, euskara batera ez dakiten seme-alaben portzentajeak doi-doi gainditzen du 2 eta 29 urte bitarteko seme-alaba guztien %15a (%16,4).

Lehen hizkuntza erdara jaso duten seme-alaben ehunekoaren eta euskaraz batera ez dakiten seme-alaben portzentajearen arteko aldea 56 puntukoa da (%72,6 eta %16,4), eta horrek erakusten du hizkuntza irabazteko prozesua zein indartsua den. Beraz, gutxiengoa dira euskara modu batean edo bestean berenganatzen ez dutenak, nahiz eta zenbaki absolututan oraindik ere 75.691 laguneko kolektibo garrantzitsua diren.

32. irudia. Seme-alaben banaketa Hizkuntza Bilakaeraren Indizearen (BILA) arabera. EAE, 2001 (%)



Iturria: EUSTAT

Aparteko aipamena merezi dute “partzialki euskaldun berriak” eta “partzialki erdaldunduak” diren lagunen kategoriak. Bi taldeak, beren ezaugarri bereziak direla eta, bereziki zailak dira aztertzen, talde horiek osatzen dituztenak edo behintzat gehienak trantsizio-une batean daudela esan baitaiteke.


Horregatik, talde horien azterketa sakona egiten hasiko ez garen arren, komeni da hizkuntza irabazi eta galtzeko prozesuak nolabait argitzeko eta talde horietako bakoitzaren benetako garrantzia hobeto balioztatu ahal izateko baliagarriak izango diren hainbat kontu aipatzea. Talde horien banaketa adinaren arabera aztertu behar da (42. taula), honek erabateko hizkuntza-gaitasuna lortzeko aukera mugatzen baitu.

42. taula. Partzialki euskaldun berrien eta partzialki erdaldunduen banaketa, adin-taldean arabera. EAE, 2001

Adin-taldeak	Partzialki euskaldun berriak		Partzialki erdaldunduak	
	Kopurua	%	Kopurua	%
25 - 29	28.794	21,8	750	8,3
20 - 24	38.796	29,4	596	6,6
15 - 19	24.762	18,8	445	4,9
10 - 14	15.791	12,0	403	4,5
5 - 9	13.050	9,9	842	9,4
2 - 4	10.832	8,2	5.959	66,2
Guztira	132.025	100	8.995	100

Iturria: EUSTAT

33. irudia. 2-29 urte bitarteko seme-alaben euskarazko hizkuntza-gaitasunaren irabaziaz eta galerak. EAE, 2001



Iturria: EUSTAT

Adinaren arabera banaketak garbi erakusten du talde bietan arazo desberdinak daudela. Hala, partzialki euskaldun berriak diren taldean, hau da, euskara bigarren hizkuntza gisa jasotzen dutenena, portzentajea hazi egiten da adinean gora egin ahala, nahiz 25-29 adin-tartean zertxobait jaisten den. Aldiz, partzialki erdaldunduen taldean kideen %75ak 2-9 adin-tartekoak dira eta horrek erlatibizatu egiten du, neurri handi batean, hizkuntza partzialki galtzeko fenomenoaren benetako dimentsioa³⁰.

Era honetako analisiak portzentajeetan oinarritu ohi dira, kolektibo desberdinen artean konparaketak

ezarri ahal izateko. Halaz ere, taldeetako kideen kopuruen artean alde handia dagoenean, zenbaki absolutuak begien bistatik ez galtzea komeni da, prozesuaren egiazko dimentsioaz jabetu ahal izateko (33. irudia).

³⁰ Kategoria hau osatzen duten 8.995 seme-alabetatik ia 6.000 dira 2 eta 4 urte bitartekoak, eta beraz, kasu horietan “hizkuntza-gaitasunaren” galeraz hitz egiteak ez du zentzurik. 5 urtetik beherakoak kanpoan utziko bagenitu, partzialki erdaldunduen ehuneko murriztu egingo litzateke: lehen hizkuntza euskara duten seme-alaba guztien %7,1etik %2,4ra.



Oro har, esan dezakegu euskara lehen hizkuntzatzat duten 126.516 seme-alabetatik, bakarrik 851k (%0,7) galdu dutela erabat hizkuntza-gaitasuna, eta 8.995ek (%7,1) partzialki galdu dutela³¹. Bestalde, azpimarratu beharra dago 2 eta 29 urte bitarteko seme-alaben gehiengo handi batek lehen hizkuntza erdara duen arren (336.077), horietatik 75.691 di-rela, %20 baino pixka bat gehiago (%22,5), euskara

batere ez dakitenak, eta berriz gainerako 260.406k (%77,5) hizkuntza irabazi dutela, guztiz (128.381) edo partez (132.025).

Laburbilduz, hizkuntza irabazteko prozesuak, egoera txarrean ere³², euskara irabaztearen aldeko saldo handi bat ematen du, 100.00 lagunetik gorakoa (118.515)³³ hain zuzen.

4.2. Seme-alaben Hizkuntza Bilakaeraren Indizea (BILA) adinaren arabera

Seme-alaben adina eta hizkuntza-bilakaeraren BILA indizea gurutzatzen baditugu, bi ikuspuntutatik azter litekeen taula lortuko dugu. Alde batetik, BILA tipologiako taldeetatik abiatu eta haien adinen arabera egitura azter dezakegu eta, bestetik, seme-alaben BILA ikus dezakegu adin-tarte bakoitzean (43. eta 44. taulak).


Baliteke ondorioak osagarriak izatea eta seme-alaben adinaren eta hizkuntza-bilakaeraren artean dagoen erlazioa azaltzen laguntzea.

Lehenik BILA tipologiako talde desberdinen adinaren arabera egitura aztertuko dugu (34. irudia).

Erdaldun zaharren taldea da adinez zaharrena, 20-29 urte bitartekoak baitira kideen %56ak; ondoren, partzialki euskaldun berrien taldea osatzen dutenen erdia ere 20 urtetik gorakoa da.

Euskaldun zaharrek eta jatorrizko elebidunek osatutako taldea eta euskaldun berrien taldea gazteagoak dira, euren kideen laurdenak baino pixka bat gehiagok 10 urtetik beherako adina baitu. Azkenik, deigarria da partzialki erdaldunduen eta

34. irudia. 2-29 urte bitarteko seme-alaben Hizkuntza Bilakaeraren Indizearen (BILA) egitura, adinaren arabera. EAE, 2001 (%)



Iturria: EUSTAT

³¹ Esana dugun bezala, galera partzialaren benetako kopurua 3.036 ingurukoa (%2,4) litzateke, baina azterketaren metodologia-ezaugarriak direla eta, 8.995 laguneko kopurua (%7,1) errespetatuko dugu.

³² Hau da, erabateko galerak eta galera partzialak benetako galeratzat hartuta, eta irabazi gisa erabateko irabaziak bakarrik hartuta.

³³ Saldoa= Erabateko irabazia - (erabateko galera + galera partziala)

gutziz erdaldunduen taldeetako adinen arabera banaketa berezia, izan ere, bi talde horietan adin-tarte ugariena 2-4 urteko seme-alabena da³⁴, eta beroiek dira guztiz erdaldunduen %35 baino gehiago eta partzialki erdaldunduen %65 baino gehiago.

Azken datu honek lehen aipatutako arazoa dakar berriz ere mahai gainera, 4 urtetik beherako seme-alabak analisi honetan sartzearen komenientziari buruzkoa, oso zalantzarikoa baita adin txiki horietan hizkuntza bat ondo menderatu ote daitekeen.

Adin-talde bakoitzaren osaera BILA indizearen arabera aztertzen badugu (35. irudia) ikusiko dugu, gazteenen artean (2-4 eta 5-9 urte) izan ezik, beste adin-taldeetan guztiz edo partzialki erdaldunduen portzentajeak %1en azpitiko balioetan dabiltzala, ia beti. Gazteenen taldean, guztiz erdaldunduek %1etik beherako portzentajea dute, baina partzialki erdaldunduak berriz %15a baino gehiago dira.

5etik 20 urtera arteko hiru adin-tarteetan euskaldun berrien taldea da handiena, %33-38 arteko portzentajeekin. Euskaldun zaharren eta jatorrizko elebidunen multzoak ere pisu handi samarra du, %25-33 artekoa. Horrek esan nahi du tarte horietako bakoitzean seme-alaba gehienek euskaraz ondo egin ahal izateko nahikoa hizkuntza-gaitasun badutela. Gehiengo hori bi herenekoa izatera iristen da 5-9 eta 10-14 urte bitarteko seme-alabengan.

Partzialki euskaldun berrien pisua, talde gazteena alde batera utzita, handitu egiten da adinean gora egin ahala, eta 5-9 urtekoen taldean %20 izatetik %35era pasatzen da 20 urtetik gorako bi taldeetan. Talde handiena da bi adin-tarte horietan.


Azkenik, erdaldun zaharrak ia %20 dira 2-4 urtekoen taldean, baina nabarmen murrizten dira 5-9 eta 10-14 urtekoetan; azken honetan ozta-ozta iristen dira %10era. Hortik gora, zenbat eta zaharrago, orduan eta handiagoa da erdaldun zaharren portzentajea, eta 25-29 urte bitarteko taldean iristen da portzentaje handiena izatera, %26.

Laburbilduz, banaketa berezia erakusten duen 2-4 urte arteko taldean izan ezik, gainerako taldeen joera zera dela esan dezakegu, alegia, seme-alaben adina zenbat eta txikiagoa izan, haien euskalduntzea

orduan eta handiagoa izatea. Erdaldun zaharren portzentajearen beherakadan eta euskaraz ondo egiteko gaitasuna dutenen igoeran islatzen da joera hori. Azken horiek, izan ere, seme-alaben bi heren izatera iristen dira 5etik 14 urtera bitartean dauden bi adin-tarteetan.

³⁴ Talde honen pisu proportzionalaren garrantzia esanguratsuagoa da, hiru urte bakarrik hartzen dituelako, eta gainerakoak aldiz bost urteko tarteak hartzen ditu.

35. irudia. 2-29 urte bitarteko seme-alaben adin-taldearen egitura, Hizkuntza Bilakaeraren Indizearen (BILA) arabera. EAE, 2001 (%)



Iturria: EUSTAT



43. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alaben banaketa adin-taldeka, Hizkuntza Bilakaeraren Indizearen (BILA) arabera. EAE, 2001

BILA indizea (Hizkuntza bilakaera)	Adin-taldeak						Guztira
	25-29	20-24	15-19	10-14	5-9	2-4	
Euskaldun zaharrak + jatorrizko elebidunak	17.888	25.983	22.563	20.487	21.125	8.624	116.670
Euskaldun berriak	14.734	27.855	30.156	27.748	22.128	5.740	128.361
Partzialki euskaldun berriak	28.794	38.796	24.762	15.791	13.050	10.832	132.025
Partzialki erdaldunduak	750	596	445	403	842	5.959	8.995
Gutziz erdaldunduak	95	91	93	103	156	313	851
Erdaldun zaharrak	21.891	20.578	12.180	6.921	6.824	7.297	75.691
Guztira	84.152	113.899	90.199	71.453	64.125	38.765	462.593

Iturria: EUSTAT

44. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alaben adin-taldean egitura, Hizkuntza Bilakaeraren Indizearen (BILA) arabera. EAE, 2001 (%)

BILA indizea (Hizkuntza bilakaera)	Adin-taldeak						Guztira
	25-29	20-24	15-19	10-14	5-9	2-4	
Euskaldun zaharrak + jatorrizko elebidunak	21,3	22,8	25,0	28,7	32,9	22,2	25,2
Euskaldun berriak	17,5	24,5	33,4	38,8	34,5	14,8	27,7
Partzialki euskaldun berriak	34,2	34,1	27,5	22,1	20,4	27,9	28,5
Partzialki erdaldunduak	0,9	0,5	0,5	0,6	1,3	15,4	1,9
Gutziz erdaldunduak	0,1	0,1	0,1	0,1	0,2	0,8	0,2
Erdaldun zaharrak	26,0	18,1	13,5	9,7	10,6	18,8	16,4
Guztira	100	100	100	100	100	100	100

Iturria: EUSTAT

4.3. Seme-alaben Hizkuntza Bilakaeraren Indizea (BILA) gurasoen tipologiaren arabera

Azter dezagun orain seme-alaben BILaren araberako banaketa, gurasoen tipologia kontuan harturik (36. irudia) eta ikusiko dugu portzentajeak asko aldatzen direla guraso-mota bakoitzaren hizkuntza-ezaugarrien arabera (45. eta 46. taulak). Banaketa, oro har, lehen hizkuntzaren banaketaren antzekoa da.

Hala, bi gurasoek euskaraz ondo hitz egiten dutenean eta biek euskara dutenean lehen hizkuntza (D mota), ezaugarri horiek berberak dituzten seme-alaben portzentajea oso handia da, %95 baino gehiago.

Aurreko profila bikotekide bakarrari dagokionean eta beste kidea euskaldun berria denean (B+), euskaraz ondo hitz egiten duten seme-alaben portzentajea %90etik gorakoa da (%92,3) eta gehienek (%86,1) euskara dute lehen hizkuntza. Bigarren bikotekide horrek euskaraz ez badaki (A+), portzentajea %85era jaisten da (%84,4), baina kasu honetan ere nagusi dira lehen hizkuntza euskara dutenak (%74,9).


Bi gurasoak euskaldun berriak direnean (B), hau da, euskaraz ondo egiten dutenean baina ez dutenean euskara lehen hizkuntzatzat, euskal hiztun diren seme-alaba guztien ehunekoak ez da nabarmen jaisten, eta balio handi samar batean mantentzen da (%82,5); aldiz, beherakada handia egiten du lehen hizkuntza euskara duten eta euskal hiztun diren seme-alaben proportzioak (%45,6), eta hurbildu egiten zaio lehen hizkuntza erdara duten eta euskal hiztun diren seme-alaben ehunekoari (%36,9).

Bikotekide bat euskaldun berria bada eta besteak euskaraz ez badaki (A), joera antzekoa da, baina euskaraz hitz egiten duten seme-alaben portzentajea txikiagoa da (%70). Kasu honetan, gainera, gehien-goia dira lehen hizkuntza erdara dutenak euskara dutenen aldean, %41,9 vs. %28,1.

Gurasoetako batek ere euskaraz ondo ez dakienean (X), bikotekide batek edo biek partzialki jakin dezaketen arren, euskaraz hitz egiten duten seme-alaben portzentajea %38,6koa da, baina gehien-goia zabal batek, jakina, erdara du lehen hizkuntza (%34,4 vs. %4,2).

Arestian, seme-alaben lehen hizkuntza azterterakoan ikusi dugunez, hizkuntza-gaitasun jakin bat duen gurasoa aita ala ama izateak emaitza desberdinak eragiten ditu hizkuntza horren transmisio-prozesuan. Horregatik, ondoren 2 eta 29 urte bitarteko seme-alaben banaketa Hizkuntza Bilakaeraren Indizearen (BILA) arabera aztertuko dugu, bikotekide bakoitzaren "hizkuntza-nortasun" (BILA) desberdina kontuan hartuta (47. taula).

36. irudia. 2-29 urte bitarteko seme-alaben Hizkuntza Bilakaeraren Indizea (BILA) guraso-motaren arabera. EAE, 2001 (%)



Iturria: EUSTAT



45. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alabak, BILA indizearen eta guraso-motaren arabera. EAE, 2001

Bikote mota	Euskaraz ondo hitz egiten dute		Euskaraz nekez hitz egiten dute		Ez dute euskaraz hitz egiten		Guztira
	LH euskara gutxienez	LH erdara	LH erdara	LH euskara gutxienez	LH euskara gutxienez	LH erdara	
	Euskaldun zaharrak + jatorrizko elebidunak	Euskaldun berriak	Partzialki euskaldun berriak	Partzialki erdaldunduak	Guztiz erdaldunduak	Erdaldun zaharrak	
D	56.691	638	148	1.924	80	66	59.547
B+	7.131	516	92	509	16	18	8.282
B	2.066	1.673	442	230	19	100	4.530
A+	31.112	3.941	2.686	2.493	220	1.065	41.517
A	5.872	8.769	3.872	932	88	1.392	20.925
X	13.798	112.824	124.785	2.907	428	73.050	327.792
Guztira	116.670	128.361	132.025	8.995	851	75.691	462.593
	Mantentzea	Erabateko irabazia	Irabazi partziala	Galera partziala	Erabateko galera	Mantentzea	

Iturria: EUSTAT

46. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alabak BILA indizearen eta guraso-motaren arabera. EAE, 2001 (%)

Bikote mota	Euskaraz ondo hitz egiten dute		Euskaraz nekez hitz egiten dute		Ez dute euskaraz hitz egiten		Guztira
	LH euskara gutxienez	LH erdara	LH erdara	LH euskara gutxienez	LH euskara gutxienez	LH erdara	
	Euskaldun zaharrak + jatorrizko elebidunak	Euskaldun berriak	Partzialki euskaldun berriak	Partzialki erdaldunduak	Guztiz erdaldunduak	Erdaldun zaharrak	
D	95,2	1,1	0,2	3,2	0,1	0,1	100
B+	86,1	6,2	1,1	6,1	0,2	0,2	100
B	45,6	36,9	9,8	5,1	0,4	2,2	100
A+	74,9	9,5	6,5	6,0	0,5	2,6	100
A	28,1	41,9	18,5	4,5	0,4	6,7	100
X	4,2	34,4	38,1	0,9	0,1	22,3	100
Guztira	25,2	27,7	28,5	1,9	0,2	16,4	100
	Mantentzea	Erabateko irabazia	Irabazi partziala	Galera partziala	Erabateko galera	Mantentzea	

Iturria: EUSTAT

BILA indize desberdina duten bikoteen 2-29 urte bitarteko seme-alabak 72.671 dira, hau da, guztien %15,7a. Beraz, seme-alaba gehienak hizkuntzaren aldetik homogeneousak diren bikoteetatik datoz (lehen hizkuntza bera eta hizkuntza-gaitasun bera duten bikoteak). Gainerakoetan, seme-alaben %70 baino gehixeago (%70,9) euskaraz ondo ez dakiten bikoteetatik datoz; bikote elebidunen seme-alabei dagokienean berriz, %12k bi gurasoak euskaldun zaharrak dituzte (lehen hizkuntza euskara dute eta oso ondo hitz egiten dute), %1ek euskaldun berriak (euskara ez dute lehen hizkuntza, baina oso ondo hitz egiten dute), eta %0,4 jatorrizko elebidunak diren bikoteetatik datoz.

47. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alaben banaketa gurasoen BILaren arabera. EAE, 2001

Bikotekideen BILA	Seme-alabak	
	Kopurua	%
Bi gurasoak euskaldun zaharrak	55.518	12,0
Bi gurasoak jatorrizko elebidunak	2.082	0,4
Bi gurasoak euskaldun berriak	4.530	1,0
Bi gurasoak EZ elebidunak	327.792	70,9
BILA desberdina duten gurasoak	72.671	15,7
Guztira	462.593	100

Iturria: EUSTAT

³⁵ Ahal den neurrian BILA orokor desberdina duten bikoteen arteko konparaketarik ez egiten saiatuko gara, hau da, BILA konbinatu desberdina duten horien artean ez konparatzen, eta hizkuntzaren erabileran izandako aldaketaren ondoriozko aldakuntza bakarrik aztertzen ahaleginginduko gara. Dena den, ezinezkoa izango da BILA orokor desberdina duten bikoteen emaitzen artean antzekotasunei edota desberdintasunei buruzko aipamenik inoiz ez egitea.

Gorago aztertu dugu seme-alaben Hizkuntza Bilakaeraren Indizea (BILA), gurasoen tipologiaren arabera (eta tipologia hori bikotearen BILaren arabera eraikia dugu). Ondoren zera egingo dugu, BILA orokorra antzekoa izan arren kide bakoitzak BILA indibidual desberdina duten bikoteetan, BILaren arabeko seme-alaben banaketak aldaketa adierazgarriak duen ala ez egiaztatuko dugu.

Horretarako, BILA desberdina duten bikoteetan bi talde handi bereiziko ditugu: bi kide elebidunez osatutako bikoteak eta euskaraz ondo egiten duen kide bakarra dutenak. Bi talde horietako bakoitza binaka konpara daitezkeen 6 bikote-motaz osatuta dago.

Bi kide elebidunez osatutako bikoteak:

- Aita euskaldun zaharra + Ama jatorrizko elebiduna
- Aita jatorrizko elebiduna + Ama euskaldun zaharra
- Aita euskaldun zaharra + Ama euskaldun berria
- Aita euskaldun berria + Ama euskaldun zaharra
- Aita jatorrizko elebiduna + Ama euskaldun berria
- Aita euskaldun berria + Ama jatorrizko elebiduna

Kide elebidun bakarra duten bikoteak:

- Aita euskaldun zaharra + Ama EZ elebiduna
- Aita EZ elebiduna + Ama euskaldun zaharra
- Aita jatorrizko euskalduna + Ama EZ elebiduna
- Aita EZ elebiduna + Ama jatorrizko elebiduna
- Aita euskaldun berria + Ama EZ elebiduna
- Aita EZ elebiduna + Ama euskaldun berria

Jarraian, talde handi horietako bakoitzari dagozkion seme-alaben banaketa aztertuko dugu, BILA indizearen arabera (48. eta 49. taulak).

Kide biak elebidunak diren bikoteak³⁵:

1. Euskaldun zaharra + Jatorrizko elebiduna.

Kide bien hizkuntza-ezaugarriak “a priori” oso antzekoak dira, desberdintasun bakarra jatorrizko elebidun den osagaiak lehen hizkuntza euskara bakarrik izan ordez, horrekin batera, erdara ere izatea baita.

Hori kontuan izanik, ez dirudi desberdintasun adierazgarriak egon behar lukeen bikotearen osagai euskaldun zaharra edo jatorrizko elebiduna aita izatearen edo ama izatearen artean.

Hala ere, BILaren arabeko seme-alaben portzentajeen banaketa aztertuz gero, ikusiko dugu, seme-alaba euskaldun berrien eta ez elebidunen portzentajeak oso antzekoak diren bitartean (%2ren eta %6-7ren ingurukoak, hurrenez hurren), seme-alaba euskaldun zaharren eta jatorrizko elebidunen portzentajeek alde esanguratsuak erakusten dituztela. Izan ere, euskaldun zaharren portzentajea handiagoa da kide euskaldun zaharra ama denean (%78,6 vs. %66,6) eta jatorrizko elebidunen portzentajea handiagoa da aita denean euskaldun zaharra (%24 vs. %13,4).

2. Euskaldun zaharra + Euskaldun berria. Kasu honetan ere BILaren arabeko seme-alaben banaketak antzeko joera erakusten du: ama euskaldun zaharra eta aita euskaldun berria direnean, seme-alaba euskaldun zaharren



portzentajeak kontrako egoeran baino handiagoak dira eta jatorrizko elebidunen portzentajeak txikiagoak (%81,6 vs. %69,8 eta %7,5 vs. %15,1 hurrenez hurren).

Seme-alaba ez elebidunen portzentajea oso antzekoa da bikote-mota honetan, %7-8 artean. Azkenik, seme-alaba euskaldun berrien ehunekoak, aurreko kasuan ikusten genuenak ez bezala, alde adierazgarria erakusten du, %8raino igotzen baita aita euskaldun zaharra denean eta ama euskaldun berria denean eta kontrako kasuan, aldiz, portzentajea %3,1ekoa da.

3. Jatorrizko elebiduna + Euskaldun berria.

Kasu honetan, aurreko biek alderatuta, seme-alaba euskaldun zaharren portzentajeek behera egiten dute nabarmen, baina neurri batean konpentsatu egiten da jatorrizko elebidun diren seme-alaben portzentajeetan dagoen igoera esanguratsurekin. Prozesu horren ondorioz, seme-alaben portzentajeak handiagoak dira jatorrizko elebidunak direnen kasuan, euskaldun zaharrak direnengan baino.

Hala ere, orain arte ikusi dugun joera orokorra ez da aldatzen eta, hala, euskaldun zaharren portzentajea beti handiagoa da (%44,5 vs. %31,2) eta jatorrizko elebidunena txikiagoa (%39,5 vs. %46,1), ama jatorrizko elebiduna denean eta aita euskaldun berria, kontrako egoeran baino. Haur euskaldun berrien portzentajeak handitzen jarraitzen du aurreko bikoteekin alderatuta, eta handiagoak dira, argi eta garbi, bikotekide euskaldun berria ama denean. Azkenik, seme-alaba ez elebidunen ehunekoak zertxobait handitzen badira ere (%9 inguruan daude), ez dago

desberdintasun handirik bikotekide euskaldun berri edo jatorrizko elebiduna aita izatearen edo ama izatearen artean.

Ondorioz, BILaren araberrako banaketan portzentajeen balioen igoeran edota beherakadan bikote-motak duen eraginez gain, BILA jakin bat

duena bikotekide bat edo bestea izateak ere eragina du seme-alaben BILAn (37. irudia), bereziki euskaldun zaharren eta jatorrizko elebidunen portzentajeen balioetan. Izan ere, lehen kasuan, ehuneko 12-13 puntu inguruko aldeak daude, eta pixka bat txikiagoak bigarrenengan (7-10 puntu).

48. taula. BILA mota desberdina duten gurasoen 2-29 urte bitarteko seme-alaben BILA. EAE, 2001

Bikote-mota	Seme-alabak				Guztira
	Euskaldun zaharrak	Jatorrizko elebidunak	Euskaldun berriak	EZ elebidunak	
Ai EZ + Am JE	709	256	25	75	1.065
Ai JE + Am EZ	693	118	15	56	882
Ai EZ+ Am EB	2.876	620	330	294	4.120
Ai EB+ Am EZ	2.687	246	101	258	3.292
Ai JE + Am EB	133	197	55	42	427
Ai EB + Am JE	197	175	30	41	443

49. taula. BILA mota desberdina duten gurasoen 2-29 urte bitarteko seme-alaben BILA. EAE, 2001 (%)

Bikote-mota	Seme-alabak				Guztira
	Euskaldun zaharrak	Jatorrizko elebidunak	Euskaldun berriak	EZ elebidunak	
Ai EZ + Am JE	66,6	24,0	2,4	7,0	100
Ai JE + Am EZ	78,6	13,4	1,7	6,4	100
Ai EZ+ Am EB	69,8	15,1	8,0	7,1	100
Ai EB+ Am EZ	81,6	7,5	3,1	7,8	100
Ai JE + Am EB	31,2	46,1	12,9	9,8	100
Ai EB + Am JE	44,5	39,5	6,8	9,3	100

Ai/Am EZ : Aita edo Ama Euskaldun Zaharra

Ai/Am JE : Aita edo Ama Jatorrizko Elebiduna

Ai/Am EB : Aita edo Ama Euskaldun Berria

Ai/Am EE : Aita edo Ama Ez Elebiduna (ez du euskaraz ondo hitz egiten)

Iturria: EUSTAT

Seme-alaba euskaldun berrien portzentajea antzekoa da bi bikotekideek lehen hizkuntza euskara dutenean (batak lehen hizkuntza bakar gisa eta besteak erdararekin batera), baina alde nabarmenak erakusten ditu bikotekideetako bat euskaldun berria denean (5-6 puntu inguru), eta kasu horretan, portzentajea are handiagoa da ama bada euskaldun berria.

Azkenik, elebidun ez diren seme-alaben ehunekoei ez die eragiten, dirudenez, bikotekide bakoitzaren BILA bat ala beste bat izateak, bikote-mota pare bakoitzaren balioak oso hurbilekoak baitira beti eta aldeak ez dira puntu batera ere iristen ehunekotan.

Kide elebidun bakarria duten bikoteak (50. eta 51. taulak):


4. Euskaldun zaharra + Ez elebiduna³⁶. Era honetako bikoteen seme-alaba gehienek ondo egiten dute euskaraz, %81ek euskaldun zaharra aita denean eta %88k euskaldun zaharra ama denean. Halaz ere, seme-alaben banaketa sakon aztertzen badugu, talde desberdinen arteko aldeak handiagoak direla ikusten dugu. Hala bada, seme-alaba euskaldun zaharren portzentajea askoz ere txikiagoa da aita denean euskaldun zaharra ama denean baino. Lehen kasuan %35 baino apur bat gehiago dira (%36,89), eta bigarrenean, berriz, %60tik gora. Jatorrizko elebidun diren seme-alaben eta euskaldun berrien portzentajeari dagokionez,

balioak handiagoak dira euskaldun zaharra aita denean, %29,78 eta %14,35 hurrenez hurren, kontrako kasuan baino (%20,9 eta %6,23). Elebidunak ez diren seme-alaben proportzioa txikiagoa da, nabarmen, euskaldun zaharra ama denean, %12,34 vs. %18,97, hain zuzen.

5. Jatorrizko elebiduna + Ez elebiduna. Bikote hauen seme-alabak talde txiki bat osatzen dute, guraso elebidun bakarria duten seme-alaba guztien %10 bakarrik baitira. Taulan ikus dezake-

gunez, seme-alaba euskaldun zaharren diren portzentajea asko gutxitzen da, jatorrizko elebidunen mesedetan, talde hau asko handitzen baita. Horrela, jatorrizko elebiduna aita denean seme-alaben %7 euskaldun zaharrak dira, eta jatorrizko elebiduna ama denean portzentajea ia bikoitza da (%13,52). Seme-alaba jatorrizko elebidunak ere gehixeago dira jatorrizko elebiduna ama denean aita denean baino (%65,5 vs. %63,19). Seme-alaba euskaldun berrien portzentajea ez da iristen inolaz ere %10era, baina pixka bat handiagoa da

37. irudia. BILA desberdina duten bikote elebidunen 2-29 urte bitarteko seme-alaben BILA. EAE, 2001 (%)



EZ: Euskaldun Zaharra; **JE:** Jatorrizko Elebiduna; **EB:** Euskaldun Berria

Iturria: EUSTAT

³⁶ "Ez elebiduntzat" hartzen dira, euskaraz batere ez dakiten pertsonen gain, partzialki jakin eta zuzen hitz egiteko moduko hizkuntza-gaitasunik ez dutenak ere.



aita jatorrizko elebiduna denean, %9,81 vs. %6,01. Azkenik, ez dira elebidunak seme-alabena %20a (%19,91) aita denean jatorrizko elebiduna, eta portzentaje hori %15eraino jaisten da (%14,97) jatorrizko elebiduna ama denean.

6. Euskaldun berria + Ez elebiduna. Portzentajeen taulan ikus daitekeenez, euskaldun berria bikotekide bat ala bestea izateak aurreko kasuetan baino eragin txikiagoa du. Desberdintasun handiena seme-alaba euskaldun zaharren portzentajeetan ematen da. Izan ere, %11,24 dira, euskaldun berria ama denean eta %8,87, aita denean. Gainerako ehunekoak oso antzekoak dira, portzentaje-alde txikiekin. Alderik handiena elebidun ez diren seme-alabena portzentajeetan dago, eta 1,4 puntukoa da (%30,88 aita denean euskaldun berria, eta %29,52 ama denean). Amaitzeko, azpimarratu behar da seme-alabena talderik handiena euskaldun berriena dela, bi kasuetan %40 baino zertxobait handiagoa den ehunekoarekin.

Ondorioz, guraso elebidun bakarra duten seme-alabena kasuan alde handia dago seme-alabena BILAREN arabera banaketan, bikotekide elebidunaren BILA kontuan hartuta (38. irudia). Portzentaje-balio handienak bikotekide elebidunaren BILA-mota seme-alabena BILAREkin bat datorrenean ematen dira.

Bestalde, bikotekide elebiduna aita edo ama izateak eragin nabarmena du bikotekideetako bat euskaldun zaharra denean. Kasu horretan, seme-alaba euskaldun zaharren portzentajeetan alde 20 puntu baino gehiagokoa da, eta 5-10 puntu artekoa, gainerako seme-alabena taldeetan.

50. taula. Kide elebidun bakarra duten bikoteen 2-29 urte bitarteko seme-alabena BILA. EAE, 2001

Bikote-mota	Euskaldun zaharrak	Jatorrizko elebidunak	Euskaldun berriak	EZ elebidunak	Guztira
Ai EZ + Am EE	5.754	4.645	2.238	2.959	15.596
Ai EE + Am EZ	11.755	4.058	1.209	2.397	19.419
Ai JE+ Am EE	193	1.720	267	542	2.722
Ai EE + Am JE	511	2.476	227	566	3.780
Ai EB+ Am EE	696	1.401	3.330	2.424	7.851
Ai EE+ Am EB	1.469	2.306	5.439	3.860	13.074

51. taula. Kide elebidun bakarra duten bikoteen 2-29 urte bitarteko seme-alabena BILA. EAE, 2001 (%)

Bikote-mota	Euskaldun zaharrak	Jatorrizko elebidunak	Euskaldun berriak	EZ elebidunak	Guztira
Ai EZ + Am EE	36,89	29,78	14,35	18,97	100
Ai EE + Am EZ	60,53	20,90	6,23	12,34	100
Ai JE+ Am EE	7,09	63,19	9,81	19,91	100
Ai EE + Am JE	13,52	65,50	6,01	14,97	100
Ai EB+ Am EE	8,87	17,84	42,41	30,88	100
Ai EE+ Am EB	11,24	17,64	41,60	29,52	100

Ai/Am EZ : Aita edo Ama Euskaldun Zaharra

Ai/Am JE : Aita edo Ama Jatorrizko Elebiduna

Ai/Am EB : Aita edo Ama Euskaldun Berria


Ai/Am EE : Aita edo Ama Ez Elebiduna (ez du euskaraz ondo hitz egiten)

Iturria: EUSTAT

Alde horiek nabarmen txikitzen dira euskaraz ondo egiten duen bikotekidea jatorrizko elebiduna denean, alde handiena, oraingoan ere seme-alaba euskaldun zaharren portzentajea ematen dena, 6 puntu ingurukoa (6,4) baita. Gainerako taldeetan aldeak ez dira inoiz 5 puntutara iristen.

Bikotekide elebiduna euskaldun berria denean aldeak garrantzirik gabeak direla esan dezakegu. Hemen ere alde handiena seme-alaba euskaldun zaharren taldean dago, bere balioa 2 puntu baino pixka bat handiagoa (2,37) den arren eta seme-alaba ez elebidunen taldean balio hori are txikiagoa, 1,36 puntukoa, den arren. Gainerako beste bi taldeek puntu batetik beherako aldeak dituzte.

38. irudia. Kide elebidun bakarra duten bikoteen 2-29 urte bitarteko seme-alaben BILA indizea. EAE, 2001 (%)



EZ: euskaldun zaharra; **JE:** jatorrizko elebiduna; **EB:** euskaldun berria; **EE:** ez elebiduna

Iturria: EUSTAT



4.4. Seme-alaben Hizkuntza Bilakaeraren Indizea (BILA) familiako elebidunen dentsitatearen arabera.

Familia³⁷ gure erreferentzia-esparru hurbilena denez, bere barnean solaskideak egon daitezela faktore garrantzitsua da hizkuntza erabiltzeko eta horrela hizkuntza-gaitasuna gordetzeko. Horregatik, jarraian Hizkuntza Bilakaeraren Indizea familian dauden elebidunen³⁸ dentsitatearekin batera aztertuko dugu (52. taula), bi aldagai horien arteko erlazioa ikusteko.

Elebidunen dentsitatearen arabera ezarritako tipologiako familia-mota bakoitza hartzen badugu eta dagozkion seme-alaben BILA indizea aztertzen badugu (39. irudia), ondoko emaitza hauek ateratzeko.

Lehenik adierazi behar dugu guztiz erdaldundutako seme-alabak ez direla, familia-mota batean ere, %0,5etik gora izatera iristen.

³⁷ Komeni da EUSTATen arabera familia zer den gogoratzea: “Familia pertsona-talde bat da, gehienetan odoleko edo ezkontzako ahaidetasunak lotzen duena, eta, ahaidetasun gradua kontuan hartu gabe, bizimodua elkarrekin eta, normalean, etxebizitza osoa hartuta egiten duena. Familiakotzat hartzen dira baita etxeko lanak egiteko hartzen diren langileak, etxean bertan bizi badira, eta etxeko moduan hartzen diren apopiloak ere”.

³⁸ Elebidunak dira euskaraz ondo egiten duten pertsona guztiak. BILA indizeari loturik, talde honetan sartzen dira euskaldun zaharrak, jatorrizko elebidunak eta euskaldun berriak.

• %80tik gorako elebidunen dentsitatea duten familiak:

Horren handia den elebidunen portzentaje batekin ezinbestekoa da seme-alaba elebidunen (euskaldun zaharrak, jatorrizko elebidunak edo euskaldun berriak) portzentajea ere oso handia izatea. Izan ere, era horretako familietako seme-alaba ia guztiak (%99,9) ondo egiten dute euskaraz, eta gehiengo handi batek gainera euskara du lehen hizkuntza. Hala, seme-alaben %95,9 euskaldun zaharrak edo jatorrizko elebidunak dira eta %4 euskaldun berriak. Atal honetako gainerako seme-alabak (%0,1) BILA tipologiako beste taldeen artean banatzen dira.

• %60-80 bitarteko elebidunen dentsitatea duten familiak:

Hemen ere gehiengo absolutua dira (%95,3) seme-alaba elebidunak, baina proportzioak aldatu egiten dira aurreko taldearekiko. Euskaldun zaharrak eta jatorrizko elebidunak asko gutxitzen dira, baina kolektibo nagusia izaten jarraitzen dute (%61,6). Beherakada hori euskaldun berrien mesedetan gertatzen da, hauen ehunekoa %33,7raino igotzen baita. Partzialki erdaldundutako seme-alabak nolabaiteko pisua hartzen hasten dira eta %3 baino apur bat gehiago dira. Gainerako taldeak %1en azpitik daude.

• %45-59 bitarteko elebidunen dentsitatea duten familiak:

Familia hauetan seme-alaba elebidunak ia %95 dira (%94,4). Horien artean, euskaldun berriek izugarri gora egin dute eta aurreko taldeko %33tik ia %80 izatera pasatzen dira. Igoera hori euskaldun zaharren

eta jatorrizko elebidunen kaltetan gertatzen da, hauen portzentajea aurreko balioaren laurden batera murriztuta geratzen baita (%15,4 vs. %61,6). Partzialki erdaldunduek eta partzialki euskaldun berriek antzeko portzentajeak dituzte, %2,5 inguru. Erdaldun zaharrak ez dira %1era iristen.

• %25-44 bitarteko elebidunen dentsitatea duten familiak:

Hemen hasten dira nolabaiteko pisua hartzen seme-alaba erdaldun zaharrak (%7,1) eta asko igotzen dira partzialki euskaldun berriak (%21,8); hori guztia, euskaldun berrien kaltetan (%79tik %60,5era pasatzen dira) eta euskaldun zaharren eta jatorrizko elebidunen kaltetan (%15,4tik %6,9ra jaisten dira). Halaz ere, ez dugu ahaztu behar talde honetan ere seme-alaba gehienek euskaraz hitz egiten badakitela (%67,4).

• %25etik beherako elebidunen dentsitatea duten familiak:

Hau da euskaraz hitz egiten ez duten seme-alabak nagusi diren familia-mota bakarra. Alderantziz, seme-alaba elebidunen multzoaren portzentajeak ozta-ozta gainditzen du %3 eta gehienak euskaldun berriak dira (%3,3), euskaldun zaharrak eta jatorrizko elebidunak ia desagertu egiten direlako (%0,1). Seme-alaben kolektibo nagusia partzialki euskaldun berriena da (%58,7), eta jarraian erdaldun zaharrena (%36,4). Partzialki erdaldundutako seme-alaben multzoa %1,3 da.


Laburbilduz, seme-alaba elebidunak gehiengo dira familia-mota guztietan, %25etik beherako elebidunen dentsitatea dutenetan izan ezik.

Hala eta guztiz ere, seme-alaba euskaldun zaharren eta jatorrizko elebidunen banaketa, alde batetik, eta euskaldun berriena, bestetik, nabarmen aldatzen da familian dauden elebidunen dentsitatearen arabera (40. irudia). Hala, elebidunen dentsitate handiagoa duten familietan (>80 eta %60-80) seme-alaba gehienak euskaldun zaharrak edo jatorrizko elebidunak dira (%95,9 eta %61,6 hurrenez hurren). Baina hurrengo bi kategorietan, %25-60 arteko (%45-59 eta %25-44) elebidunen dentsitatearekin, seme-alaba euskaldun berriak dira portzentaje handienak dituztenak (%79 eta %60,5, hurrenez hurren) eta, aldiz, izugarri jaisten da euskaldun zaharren eta jatorrizko elebidunen portzentajea (%15,4 eta %6,9raino).

Partzialki erdaldundutako seme-alabak portzentaje txiki bat dira familia-mota guztietan. Euren balioak %2,5-3,5 artekoak dira, muturreko bi taldeetan izan ezik, horietan txikiagoak dira eta. Beraz, elebidunen dentsitatea %25 baino txikiagoa denean, portzentaje horrek apenas gainditzen du %1 (%1,3) eta familiako elebidunen dentsitateak %80 gainditzen duenean, partzialki erdaldunduak ia desagertu egiten dira (%0,1).


Azkenik, seme-alaba erdaldun zaharren presentzia ia sinbolikoa da %45etik gorako elebidunen dentsitatea duten familietako seme-alaben artean, euren portzentajeak 0,6ren eta 0,1 baino gutxiagoren artekoak baitira. %25-44 arteko elebidunen dentsitatea duten familietan haien pisua seme-alaben %7koa da, eta balio handiena, %36,4, elebidunen dentsitate txikiena duten familien taldean lortzen dute, %25etik beherakoan taldean, hain zuzen.

39. irudia. Seme-alaben BILA indizea, familiako elebidunen dentsitatearen arabera. EAE, 2001 (%)



Zirkuluaren tamaina, dagokion familia-motaren seme-alaba kopuruaren arabera da. Ehunekoak parentesi artean ageri da.

40. irudia. Seme-alaben BILA indizearen bilakaera, familiako elebidunen dentsitatearen arabera. EAE, 2001 (%)



Partzialki edo guztiz erdaldundutako seme-alaben kategoriak ez daude grafikoan adierazita, %5etik beherako balioak dituztelako. Iturria: EUSTAT




52. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alaben, Hizkuntza Bilakaeraren Indizea (BILA), familiako elebidunen dentsitatearen arabera. EAE, 2001

Familiako elebidunen dentsitatea	Hizkuntza-bilakaeraren Indizea (BILA)						
	Seme-alabak guztira	Euskaldun zaharrak edo jatorrizko elebidunak	Euskaldun berriak	Partzialki euskaldun berriak	Partzialki erdaldunduak	Guztiz erdaldunduak	Erdaldun zaharrak
Guztira	462.593	116.670	128.361	132.025	8.995	851	75.691
>%80	65.665	62.944	2.638	7	67	2	7
%60-80	62.133	38.293	20.917	553	2.106	83	181
%45-59	61.152	9.438	48.310	1.403	1.558	99	344
%25-44	83.106	5.720	50.299	18.141	2.796	262	5.888
<%25	190.537	275	6.197	111.921	2.468	405	69.271

Familiako elebidunen dentsitatea	Hizkuntza-bilakaeraren Indizea (BILA)						
	Seme-alabak guztira	Euskaldun zaharrak edo jatorrizko elebidunak	Euskaldun berriak	Partzialki euskaldun berriak	Partzialki erdaldunduak	Guztiz erdaldunduak	Erdaldun zaharrak
Guztira	100	25,22	27,75	28,54	1,94	0,18	16,36
>%80	100	95,86	4,02	0,01	0,10	0	0,01
%60-80	100	61,63	33,66	0,89	3,39	0,13	0,29
%45-59	100	15,43	79,00	2,29	2,55	0,16	0,56
%25-44	100	6,88	60,52	21,83	3,36	0,32	7,08
<%25	100	0,14	3,25	58,74	1,30	0,21	36,36

Familiako elebidunen dentsitatea	Hizkuntza-bilakaeraren Indizea (BILA)						
	Seme-alabak guztira	Euskaldun zaharrak edo jatorrizko elebidunak	Euskaldun berriak	Partzialki euskaldun berriak	Partzialki erdaldunduak	Guztiz erdaldunduak	Erdaldun zaharrak
Guztira	100	100	100	100	100	100	100
>%80	14,19	53,95	2,06	0,01	0,74	0,24	0,01
%60-80	13,43	32,82	16,30	0,42	23,41	9,75	0,24
%45-59	13,22	8,09	37,64	1,06	17,32	11,63	0,45
%25-44	17,97	4,90	39,19	13,74	31,08	30,79	7,78
<%25	41,19	0,24	4,83	84,77	27,44	47,59	91,52

Iturria: EUSTAT



v.
Etxeko hizkuntzaren
erabileraren indizea
(ERABIL)

5.

2 eta 29 urte bitarteko seme-alaben Etxeko Hizkuntzaren Erabileraren Indizea (ERABIL)

Arestian esan dugunez, hizkuntzaren transmisio-prozesua euskarak bizirik irauteko lehen urratsa besterik ez da. Horren ondoren, hizkuntzaren ezagutzari eusteko edo hobetzeko unea iristen da, eta, euskara museoko pieza gisa gorde nahi ez badugu, azken urratsa ematea lortu behar dugu, hau da, hizkuntzaren ohiko erabilera lortu behar dugu, bizirik, dinamiko irauteko. Hori da bidea, gizartearen aldaketetara egokituz, euskarak behar duen bilakaera izan dezan eta berme osoz etorkizunari aurre egin diezaion.

Horregatik, gurasoengandik seme-alabenganako euskararen transmisioa eta ondorengo hizkuntza-bilakaera, edota seme-alabek hizkuntza-gaitasunari nola eutsi dioten aztertu ondoren, etxeko hizkuntzaren erabilera aztertzeari ekiteko unea iritsi da.

Azterketa hori ERABIL erabilera-tipologiaren bitartez egingo dugu. ERABIL tipologia BILA tipologia eta "etxeko hizkuntzaren erabileraren" aldagaia gurutzatuz lortzen da eta, horrela, biztanleriaren erroldan jasotako hiru hizkuntza-aldagaiak³⁹ erlazionatzen dituen tipologia lortuko dugu.

³⁹ Lehen hizkuntza x Hizkuntza-gaitasuna = BILA
BILA x Etxeko hizkuntzaren erabilera = ERABIL

⁴⁰ Euskaldun zaharrak, jatorrizko elebidunak eta euskaldun berriak.

Azkenik, argitu dezagun, helburua etxeko euskararen erabilera aztertzea denez, azterketa seme-alaba elebidunetara⁴⁰ mugatuko dela, horiek baitira euskaraz ondo egin ahal izateko behar den hizkuntza-gaitasuna dutenak. Seme-alaba guztien %53 dira elebidunak. Dena den, tauletan datu osoak agertuko dira beti.

5.1. 2 eta 29 urte bitarteko seme-alaben banaketa Etxeko Hizkuntzaren Erabileraren Indizearen (ERABIL) arabera.

Aurreko epigrafean adierazi dugunez, 2 eta 29 urte bitarteko seme-alaben %47k ez daki euskaraz hitz egiten edo nekez hitz egiten du, eta %53k teorian euskaraz ondo hitz egiteko moduko hizkuntza-gaitasuna du; azken hauetatik, erdia baino pixka bat gehiago (guztien %27,7) euskaldun berriak dira, %18,6 euskaldun zaharrak, eta %6,6 jatorrizko elebidunak. Hiru talde handi horiek osatzen dute seme-alaba elebidunen kolektiboa.

Talde horietako bakoitzaren barnean hiru seme-alaba mota bereizten dira, etxean normalean erabiltzen duten hizkuntzaren arabera. Horrela, bada, izan litezke aktiboak nagusiki euskaraz, aktiboak euskaraz nahiz gaztelaniaz, eta aktiboak gaztelaniaz bakarrik (alegia, euskaraz pasiboak) (53. taula).

Grafikoan ikus daitekeenez (41. irudia), euskaldun zaharren artean euskaraz aktiboak direnak nagusitzen dira. Jatorrizko elebidunen artean, nagusi dira euskaraz nahiz gaztelaniaz aktiboak direnak. Azkenik, euskaldun berrien artean, gehienek ez dute normalean euskaraz hitz egiten etxean.

Azken talde hori, euskaraz pasiboak diren euskaldun berrien taldea, horixe da kide gehien dituen, ia 120.000 lagun; euskaraz aktiboak diren euskaldun zaharren taldea da bigarren handiena, 60.000 lagun baino pixka bat gehiago dituela. Bi talde horiek elkarturik biltzen dituzte seme-alaba elebidunen %70a baino gehiago (%72,6).


53. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alaben banaketa, Etxeko Hizkuntzaren Erabileraren Indizearen (ERABIL) arabera. EAE, 2001

ERABIL tipologia	Kop.	%
Euskaldun zaharrak	86.161	18,6
euskaraz aktiboak	61.860	13,4
bietan aktiboak	17.674	3,8
euskaraz pasiboak	6.627	1,4
Jatorrizko elebidunak	30.509	6,6
euskaraz aktiboak	1.433	0,3
bietan aktiboak	19.296	4,2
euskaraz pasiboak	9.780	2,1
Euskaldun berriak	128.361	27,7
euskaraz aktiboak	1.541	0,3
bietan aktiboak	10.726	2,3
euskaraz pasiboak	116.094	25,1
Ez dute euskaraz ondo hitz egiten	217.562	47,0
Guztira	462.593	100

Iturria: EUSTAT




41. irudia. 2-29 urte bitarteko seme-alabak, Etxeko Hizkuntzaren Erabileraren Indizearen (ERABIL) arabera. EAE, 2001 (%)



Iturria: EUSTAT

42. irudia. 2-29 urte bitarteko seme-alaba elebidunen talde bakoitzaren egitura, etxe-ko hizkuntzaren erabileraren arabera. EAE, 2001 (%)



Zirkuluaren tamaina, dagokion taldeko populazioaren arabera da eta beronen ehunekoa parentesi artean azaltzen da.

Iturria: EUSTAT

Seme-alaba elebidunen kolektiboa aztertuz gero, ikus dezakegu euskaldun zaharrak herena baino zertxobait gehiago (%35,2) direla, jatorrizko elebidunak %10 baino pixka bat gehiago (%12,4) eta erdia baino apur bat gehiago (%52,4) euskaldun berriak direla.

Transmisioa aztertzean zera egiaztatu dugu, guraso euskaldun berriek euskaldun zaharrek eta jatorrizko elebidunek baino gutxiago transmititzen dutela hizkuntza, bereziki euskara lehen hizkuntza bakar gisa

transmititzeari dagokionez. Seme-alabek etxean erabiltzen duten hizkuntza aztertzean ere nolabait aurrekoarekin pareka daitekeen joera ikus dezakegu. Etxeko euskara erabiltzeari dagokionez, mota desberdinetako seme-alaba elebidunen artean dauden alde handietan islatzen da joera hori (42. irudia).

Seme-alaba euskaldun zaharren artean etxean batez ere euskara erabiltzen dutenak nagusitzen dira, hau da, euskaraz aktiboak dira %70etik gora (%71,8).

Horri gehitzen badiogu euskara gaztelania beste erabiltzen dutenen %20,5a, ondoriozta dezakegu batez ere gaztelania erabiltzen dutenen ehunekoa %5 baino pixka bat gehiago dela (%7,7).


Seme-alabak jatorriz elebidunak direnean, gutxiengo batek hitz egiten du nagusiki euskaraz etxean (%4,7) eta, aldiz, euskara gaztelania beste erabiltzen dutenak nagusitzen dira (%63,2). Azkenik, seme-alaben ia herena (%32,1) batez ere gaztelaniaz mintzatzen da etxean.

Hirugarren taldean, seme-alaba euskaldun berrien taldean, %90 baino gehiago (%90,4) gaztelaniaz mintzatzen da. Euskaraz gaztelaniaz beste hitz egiten dutenak %8,4 dira. Nagusiki euskaraz hitz egiten dutenak, aldiz, %1 baino pixka bat gehiago (%1,2) dira.

Erabilera-hizkuntza aztertzen badugu (43. irudia eta 54. taula), ikusiko dugu euskaraz aktiboak direnak %25 baino gehiago direla (%26,5), aldiz euskaraz eta gaztelaniaz aktiboak direnak %20ra ere ez direla iristen (%19,5). Euskaraz pasiboak direnak osatzen dute, beraz, talderik handiena (%54,1).

Euskaraz aktiboak diren seme-alaben taldean ia erabatekoa da euskaldun zaharren (%95,4) nagusitasuna. Beste muturrean, euskaraz pasiboak direnen taldean, gehienak euskaldun berriak dira, %90etik hurbil dagoen portzentajearekin (%87,6). Azkenik, euskaraz eta gaztelaniaz aktiboak direnak osatzen dute talde heterogeneoena, bertan oso antzeko portzentajea baitaude euskaldun zaharrak (%37,1) eta jatorrizko elebidunak (%40,5), eta euskaldun berriak, aldiz, %20 baino pixka bat gehiago (%22,5) dira.

43. irudia. 2-29 urte bitarteko seme-alaba elebidunen banaketa, etxeko hizkuntzaren erabileraren arabera. EAE, 2001 (%)



Zirkuluen tamaina, dagokion taldeko populazioaren arabera da, eta beronen ehunekoa parentesi artean azaltzen da.

Iturria: EUSTAT

54. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alaben banaketa, etxeko hizkuntzaren erabileraren arabera. EAE, 2001

Elebidunak	Aktiboak euskaraz		Aktiboak euskaraz eta gaztelaniaz		Pasiboak euskaraz		Guztira
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	
Guztira	64.834	100	47.696	100	132.501	100	245.031
Euskaldun zaharrak	61.860	95,4	17.674	37,1	6.627	5,0	86.161
Jatorrizko elebidunak	1.433	2,2	19.296	40,5	9.780	7,4	30.509
Euskaldun berriak	1.541	2,4	10.726	22,5	116.094	87,6	128.361

Iturria: EUSTAT



5.2. 2 eta 29 urte bitarteko seme-alaben Etxeko Hizkuntzaren Erabileraren Indizea (ERABIL) adinaren arabera

Hizkuntza-gaitasunaren arabera adinkako egitura aztertzen badugu (55. taula), lehen begiratuan ikusiko dugu euskaraz ondo egiten duten seme-alaben multzoa gazteagoa dela hitz egiten ez dutenek edo nekez hitz egiten dutenek osatutakoa baino.

Izan ere, 20 urtetik gorako taldeetan seme-alaba elebidunen proportzioa batez bestekoa baino txikiagoa da, eta euskaraz ondo egiten ez duten seme-alaben multzoaren balioen azpitik dago. 20 urtetik beherako taldeetako elebidunen ehunekoek, berriz, gainditu egiten dituzte beti bai balio ertainak bai elebakarren taldeko balioak⁴¹ (44. irudia).


⁴¹ 2-4 urte bitarteko taldeak bakarrik erakusten du batezbestekoa baino portzentaje txikiagoa, baina gertaera hori taldearen gaitetasunarekin erlazionatu behar da, adinak hizkuntza menderatu ahal izateko behar duten hizkuntza-gaitasunaz jabetu ahal izatea ahalbidetzen ez dielako.

55. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alaben adin-taldekako egitura, hizkuntza-gaitasunaren arabera. EAE, 2001

Adin-taldeak	Elebidunak		EZ elebidunak		Guztira	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
25-29	32.622	13,3	51.530	23,7	84.152	18,2
20-24	53.838	22,0	60.061	27,6	113.899	24,6
15-19	52.719	21,5	37.480	17,2	90.199	19,5
10-14	48.235	19,7	23.218	10,7	71.453	15,4
5-9	43.253	17,7	20.872	9,6	64.125	13,9
2-4	14.364	5,9	24.401	11,2	38.765	8,4
Guztira	245.031	100	217.562	100	462.593	100

Iturria: EUSTAT

44. irudia. 2-29 urte bitarteko seme-alaben adin-taldekako egitura, hizkuntza-gaitasunaren arabera. EAE, 2001 (%)



Iturria: EUSTAT

Jarraian azterketa sakonagoa egingo dugu, seme-alaba elebidunak bakarrik aintzat hartuz (euskaldun zaharrak, jatorrizko elebidunak eta euskaldun berriak), eta haien egitura adin-taldeka aztertuko dugu, etxeko hizkuntzaren erabileraren arabera.

Hizkuntzaren Bilakaeraren Indizea (BILA) aztertze-rakoan egin dugun bezala, Etxeko Hizkuntzaren Erabileraren Indizea (ERABIL) aztertzeko ere (56. eta 57. taulak) bi ikuspegi erabiliko ditugu. Lehenik, seme-alaba elebidunen populazioan ERABIL tipologiak sortutako talde bakoitzaren adinkako egitura ikusiko dugu, eta bigarrenik, adin-tarte bakoitzaren barnean elebidun-mota desberdinak nola banatzen diren.

Elebidun-taldeak eta azpitaldeak banan-banan aztertuz gero ez da erlaziorik ageri bertako kideen adinaren eta erabiltzen duten hizkuntzaren artean, zeren eta talde bakoitzaren adinaren arabera barne-egitura antzekoa baita talde guztietan. Aldaketa txikiak izaten dira, baina ezin dira adierazgarritzat hartu (45.irudia).

56. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alabak adin-taldeka, ERABIL tipologiaren arabera. EAE, 2001

ERABIL tipologia	Guztira	25-29	20-24	15-19	10-14	5-9	2-4
Guztira	462.593	84.152	113.899	90.199	71.453	64.125	38.765
Euskaldun zaharrak							
euskaraz aktiboak	61.860	10.480	14.371	11.663	10.381	10.649	4.316
bietan aktiboak	17.674	2.926	4.155	3.623	3.081	2.819	1.070
euskaraz pasiboak	6.627	1.080	1.655	1.423	1.106	947	416
Jatorrizko elebidunak							
euskaraz aktiboak	1.433	196	276	272	269	281	139
bietan aktiboak	19.296	2.217	3.564	3.501	3.760	4.437	1.817
euskaraz pasiboak	9.780	989	1.962	2.081	1.890	1.992	866
Euskaldun berriak							
euskaraz aktiboak	1.541	151	331	351	334	279	95
bietan aktiboak	10.726	1.148	2.284	2.355	2.272	2.042	625
euskaraz pasiboak	116.094	13.435	25.240	27.450	25.142	19.807	5.020
Elebidunak guztira	245.031	32.622	53.838	52.719	48.235	43.253	14.364
EZ elebidunak	217.562	51.530	60.061	37.480	23.218	20.872	24.401

Iturria: EUSTAT




Alabaina, adinaren arabera egiturak kontuan hartzeko moduko aldeak erakusten ditu elebidunen hiru talde handietan. Alde horiek lehenago azaldu dira, BILA Indizea aztertzean, eta laburki gogoratuko ditugu. Jatorrizko elebidunak dira adin-egitura gazteena duen taldea, euskaldun berriena baino pixka bat gazteagoa eta, aldiz, euskaldun zaharrak elebidunen kolektibo “zahartuena” dira. Dena den, elebidunen hiru taldeen adinaren arabera egitura dezente gazteagoa da seme-alaba ez elebidunen multzo osoa baino.

57. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alabak adin-taldeka, ERABIL tipologiaren arabera. EAE, 2001 (%)

ERABIL tipologia	Guztira	25-29	20-24	15-19	10-14	5-9	2-4
Guztira	100	18,2	24,6	19,5	15,4	13,9	8,4
Euskaldun zaharrak							
euskaraz aktiboak	100	16,9	23,2	18,9	16,8	17,2	7,0
bietan aktiboak	100	16,6	23,5	20,5	17,4	15,9	6,1
euskaraz pasiboak	100	16,3	25,0	21,5	16,7	14,3	6,3
Jatorrizko elebidunak							
euskaraz aktiboak	100	13,7	19,3	19,0	18,8	19,6	9,7
bietan aktiboak	100	11,5	18,5	18,1	19,5	23,0	9,4
euskaraz pasiboak	100	10,1	20,1	21,3	19,3	20,4	8,9
Euskaldun berriak							
euskaraz aktiboak	100	9,8	21,5	22,8	21,7	18,1	6,2
bietan aktiboak	100	10,7	21,3	22,0	21,2	19,0	5,8
euskaraz pasiboak	100	11,6	21,7	23,6	21,7	17,1	4,3
Elebidunak guztira	100	13,3	22	21,5	19,7	17,7	5,9
EZ elebidunak	100	23,7	27,6	17,2	10,7	9,6	11,2

Iturria: EUSTAT

45. irudia. 2-29 urte bitarteko seme-alaba elebidunen banaketa ERABIL Indizearen arabera, eta adin-taldeakako egitura. EAE, 2001 (%)



Zirkuluaren tamaina, dagokion taldearen populazioaren arabera da.

Iturria: EUSTAT



Ondoren adin-talde bakoitza hartu, eta etxean erabiltzen duten hizkuntzaren arabera talde horietan seme-alabak nola banatzen diren aztertuko dugu (58. eta 59. taulak).

46. irudiak erakusten duen bezala, 15 urtetik behera, seme-alabak zenbat eta adinez gazteagoak izan orduan eta handiagoa da euskaraz aktiboak diren portzentajea, bai eta bi hizkuntzetan aktiboak direnena ere. Euskaraz pasiboak direnean portzentajea berriz, 15 urtetik behera jaitsiz doa, esandako beste bi taldeen mesedetan.

Adinean behera egin ahala hiztun aktiboen portzentajearen igoera horrek esan nahi du euskarazko solaskideak izateko aukera gero eta handiagoa dela, eta horrek areagotu egiten ditu, gutxienez teoriarik, euskara erabiltzeko aukerak.


Seme-alaba ez elebidunei⁴² dagokienez, euren ehunekoa nabarmen jaisten doa adinean behera egin ahala, 25 eta 29 urte arteko seme-alaben %60 baino gehiago izatetik 5 eta 9 urte arteko seme-alaben artean %30 baino pixka bat gehiago izatera pasatuz.

⁴² Izen horrek euskaraz ondo hitz egiten ez duten seme-alaba guztiak adierazten ditu.

⁴³ 25 eta 29 urte bitarteko taldean lagun gutxi ageri da, gurasoekin bizi diren 2 eta 29 urte bitarteko seme-alabek osatzen baitute aukeratu den unibertsoa.

Amaitu aurretik gogora ekarri behar dugu populazioa orokorrean zahartzen ari dela eta biztanle kopurua nabarmen jaisten dela adinarekin⁴³. Horregatik, elebidunen portzentajea handitu arren kopuru absolutuak behera egiten du eta badirudi kopuru absolutuak eta portzentajeak kontrajarri egiten direla. Hala eta guztiz, hizkuntzaren erabilerari dagokionez, garrantzitsuagoa da hiztunen sarearen dentsitatea hiztun-kopurua baino.

46. irudia. 2-29 urte bitarteko seme-alaba elebidunen adin-taldekako banaketa, etxeke hizkuntzaren erabileraren (ERABIL) arabera. EAE, 2001 (%)



Iturria: EUSTAT

58. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alabak adin-taldeka, ERABIL tipologiaren arabera. EAE, 2001

ERABIL tipologia	2-29 urte bitarteko seme-alabak						
	Guztira	25-29	20-24	15-19	10-14	5-9	2-4
Euskaraz aktiboak	64.834	10.827	14.978	12.286	10.984	11.209	4.550
Euskaldun zaharrak	61.860	10.480	14.371	11.663	10.381	10.649	4.316
Jatorrizko elebidunak	1.433	196	276	272	269	281	139
Euskaldun berriak	1.541	151	331	351	334	279	95
Euskaraz eta gaztelaniaz aktiboak	47.696	6.291	10.003	9.479	9.113	9.298	3.512
Euskaldun zaharrak	17.674	2.926	4.155	3.623	3.081	2.819	1.070
Jatorrizko elebidunak	19.296	2.217	3.564	3.501	3.760	4.437	1.817
Euskaldun berriak	10.726	1.148	2.284	2.355	2.272	2.042	625
Euskaraz pasiboak	132.501	15.504	28.857	30.954	28.138	22.746	6.302
Euskaldun zaharrak	6.627	1.080	1.655	1.423	1.106	947	416
Jatorrizko elebidunak	9.780	989	1.962	2.081	1.890	1.992	866
Euskaldun berriak	116.094	13.435	25.240	27.450	25.142	19.807	5.020
Elebidunak guztira	245.031	32.622	53.838	52.719	48.235	43.253	14.364
Ez elebidunak	217.562	51.530	60.061	37.480	23.218	20.872	24.401
Guztira 2-29 urte bitarteko seme-alabak	462.593	84.152	113.899	90.199	71.453	64.125	38.765

Iturria: EUSTAT



59. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alaba elebidunen adin-taldeen egitura, ERABIL tipologiaren arabera. EAE, 2001 (%)

ERABIL tipologia	2-29 urte bitarteko seme-alabak						
	Guztira	25-29	20-24	15-19	10-14	5-9	2-4
Elebidunak guztira	245.031	32.622	53.838	52.719	48.235	43.253	14.364
Euskaraz aktiboak	64.834	33,2	27,8	23,3	22,8	25,9	31,7
Euskaldun zaharrak	61.860	32,1	26,7	22,1	21,5	24,6	30,0
Jatorrizko elebidunak	1.433	0,6	0,5	0,5	0,6	0,6	1,0
Euskaldun berriak	1.541	0,5	0,6	0,7	0,7	0,6	0,7
Euskaraz eta gaztelaniaz aktiboak	47.696	19,3	18,6	18,0	18,9	21,5	24,5
Euskaldun zaharrak	17.674	9,0	7,7	6,9	6,4	6,5	7,4
Jatorrizko elebidunak	19.296	6,8	6,6	6,6	7,8	10,3	12,6
Euskaldun berriak	10.726	3,5	4,2	4,5	4,7	4,7	4,4
Euskaraz pasiboak	132.501	47,5	53,6	58,7	58,3	52,6	43,9
Euskaldun zaharrak	6.627	3,3	3,1	2,7	2,3	2,2	2,9
Jatorrizko elebidunak	9.780	3,0	3,6	3,9	3,9	4,6	6,0
Euskaldun berriak	116.094	41,2	46,9	52,1	52,1	45,8	34,9
Elebidunak guztira	100	100	100	100	100	100	100

Iturria: EUSTAT

5.3. 2 eta 29 urte bitarteko seme-alaba elebidunen Etxeko Hizkuntzaren Erabileraren Indizea (ERABIL), gurasoen tipologiaren arabera.

Euskararen erabileran ere gurasoen bikote-motaren eragina erabakigarria da. Gurasoek hizkuntza zenbat eta hobeto jakin, orduan eta handiagoa da etxean euskaraz egiten duten seme-alaben portzentajea (47. irudia).

Hala bada, D motako gurasoen seme-alaben ia %85 euskaraz aktiboak dira, eta portzentaje hori %97 baino gehiagoraino igotzen da bi hizkuntzetan aktiboak direnak gehitzen badizkiegu. Euskaraz pasiboak direnak, berriz, %2,7 baino ez dira (60. eta 61. taulak).

Bikotea B+ motakoa denean (kide bat euskaldun zaharra edo jatorrizko elebiduna eta bestea euskaldun berria), izugarri jaisten da nagusiki euskaraz aktiboak diren seme-alaben portzentajea, hortaz, erdia baino gehixeago (%58,1) izatera pasatzen da. Jaitsiera handi hori konpentsatu egiten da, nolabait, bi hizkuntzetan aktiboak diren seme-alaben igoeraz, ia herena baitira (%32,9). Oro har, euskaraz aktiboak direnek behera egiten dute, portzentaje handia izaten jarraitzen duten arren, %90ekoa hain zuzen. Pasiboek gora egiten dute, baina euren ehunekoa %10etik behera geratzen da.

Kide biak euskaldun berriak diren bikoteetan (B mota), sekulako beherakada du euskaraz aktiboak diren seme-alaben ehunekoak eta apenas gaintitzen du %25a (%28,3). Portzentaje hori baino zertxobait txikiagoa da euskaldun zahar edo jatorrizko elebidun batek eta ez elebidun batek (A+) osatutako bikotee-

tatik datozen eta euskaraz aktiboak diren seme-alabek erakusten dutena (%23,8). Baina, bi hizkuntzetan aktiboak diren seme-alabak B motako gurasoen seme-alaben %30 dira, eta aldiz seme-alaben mota horrek berak ehuneko askoz ere handiagoa du (%53,8) A+ motako gurasoetatik datozenean. Ondorioz, euskara bakarrik edo gaztelaniarekin batera erabiltzen duten seme-alaba guztien portzentajea handiagoa da, argi eta garbi, A+ motako gurasoetatik datozen seme-alaben artean, B motako gurasoetatik datozenen artean baino (%77,6 vs. %58,8). Bi hizkuntzetan aktiboak diren seme-alaben ehunekoetan ageri den alde hori euskaraz pasiboak direnen portzentajeetan islatzen da: B motako gurasoen seme-alaben artean, A+

motako gurasoen seme-alaben ia bikoitza baitira (%41,3 vs. %22,4).

Euskaldun berri batek eta ez elebidun batek osatutako A motako gurasoen tipologian ere, beherakada handia dago portzentajeetan: nagusiki euskaraz aktiboak diren seme-alaben portzentajea %6,6ra jaisten da, euskaraz eta gaztelaniaz aktiboak direnen portzentajeak doi-doi gaintitzen du %30, eta ia bi herenak (%61,9), berriz, pasiboak dira euskaraz.

Azkenik, guraso ez elebidunen (X mota) seme-alaba gehienak (%88,3) euskaraz pasiboak dira, eta %10ek ostera euskara gaztelaniarekin batera erabiltzen du. Euskaraz aktiboak direnen portzentajea oso txikia da (%1,2).

60. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alaba elebidunen etxeko euskararen erabilera, gurasoen tipologiaren arabera. EAE, 2001

Gurasoen-tipologia	2-29 urte bitarteko seme-alaba elebidunak		
	Aktiboak Euskaraz	Euskaraz eta gaztelaniaz	Euskaraz pasiboak
D	48.487	7.309	1.533
B+	4.444	2.517	686
B	1.057	1.139	1.543
A+	8.330	18.868	7.855
A	972	4.607	9.062
X	1.544	13.256	111.822


Iturria: EUSTAT

61. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alaba elebidunen etxeko euskararen erabilera, gurasoen tipologiaren arabera. EAE, 2001 (%)

Gurasoen-tipologia	2-29 urte bitarteko seme-alaba elebidunak		
	Aktiboak Euskaraz	Euskaraz eta gaztelaniaz	Euskaraz pasiboak
D	84,6	12,7	2,7
B+	58,1	32,9	9,0
B	28,3	30,5	41,3
A+	23,8	53,8	22,4
A	6,6	31,5	61,9
X	1,2	10,5	88,3



47. irudia. 2-29 urte bitarteko seme-alaben etxeko hizkuntzaren erabilera, gurasoen tipologiaren arabera. EAE, 2001 (%)



Iturria: EUSTAT

Jarraian aztertuko dugu zer-nolako eragina duen gurasoen arteko euskararen erabilerak seme-alaben erabileraren gainean. Horretarako guraso-mota bakoitzean azpitaldeak bereiziko ditugu, gurasoen arteko euskara-erabileraren arabera azpitaldeak, eta horietako bakoitzean seme-alabek etxean erabiltzen duten hizkuntza aztertuko dugu (62. taula).

Azterketan ez ditugu kontuan hartuko seme-alaba ez elebidunak, baina gogorarazi nahi dugu berauen ehunekoak gora egiten duela bikotearen hizkuntza-

gaitasunak edota hizkuntza-erabilerak behera egin ahala. Bikote-mota desberdinetan seme-alaba ez elebidunen batez bestekoa %4tik %30era bitartekoa da, baina aldaketa garrantzitsuak gertatzen dira bikotekideen euskararen erabileraren arabera. Portzentaje absolutuak bi muturren artean dabilta: D motako bikoteen seme-alaben, hau da, bi gurasoak euskaraz aktiboak dituztenen %3,5etik eta A motako bikoteen seme-alaben, alegia, euskaraz hitz egiten ez duen guraso elebidun bat dutenen, %35,2ra bitartean.

Lehenik D motako bikoteak ditugu, bi kide euskaldun zahar edo jatorrizko elebidunek osatua (48. eta 49. irudiak). Era honetako bikoteetan bi kideak euskaraz aktiboak izatea nagusitzen da, seme-alaben %97 era honetako bikoteetatik baitatoz. Beraz, D motako bikote gutxi-gutxitan gertatzen da kide bat ala biak euskaraz pasiboak izatea.

Seme-alabei dagokienez, aurreikusi bezala, zenbat eta gurasoak euskaraz aktiboagoak izan orduan eta aktiboagoak dira seme-alabak ere. Hala, bi bikotekideak euskaraz aktiboak direnean seme-alaba ia guztiak ere aktiboak dira (%98,9). Gainera, gehienak nagusiki euskaraz aktiboak dira (%86,4), euskaraz eta gaztelaniaz aktiboak direnen aldean, %12,5. Euskaraz pasiboak direnak %1era iristen dira ozta-ozta.

Arestian aipatu dugunez, D motako bikoteen seme-alaben artean %3 bakarrik dira gutxienez euskaraz pasiboa den guraso bat dutenak. Interesgarria da seme-alaba horien banaketa etxeko hizkuntzaren erabileraren arabera aztertzea, alde adierazgarriak daude eta.

Euskaraz aktiboa bikotekide bakarra denean, seme-alaba aktiboen portzentajea dezente jaisten da (%78,8). Horietatik erdia baino gehixeago (guztien %41,6) nagusiki euskaraz dira aktiboak, eta gainerako %37,2 gaztelaniaz euskaraz bezain aktiboak. Euskaraz pasiboak direnek ere gora egiten dute nabarmen eta seme-alaben %20 inguru dira.

Etxeko hizkuntzaren erabileraren indizea (ERABIL)

Bi bikotekideak euskaraz pasiboak direnean seme-alaba gehienak ere hala dira (%85,3), eta %15 baino ez dira euskaraz aktiboak, eta hauen heren batek bakarrik (guztien %4,6) erabiliko du nagusiki euskara; azkenik, %10,1ek euskara gaztelania beste erabiltzen du.

62. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alaba elebidunen etxeko hizkuntzaren erabilera, gurasoek erabilitako hizkuntzaren arabera. D motako bikoteak. EAE, 2001

D motako bikoteak	Seme-alaba aktiboak		Seme-alaba pasiboak euskaraz	Guztira
	Euskaraz	Euskaraz eta gaztelaniaz		
Biak aktiboak ⁴⁴	48.178	6.977	603	55.758
Aktiboa + pasiboa	266	238	136	640
Biak pasiboak	43	94	794	931
Guztira	48.487	7.309	1.533	57.329

D motako bikoteak	Seme-alaba aktiboak		Seme-alaba pasiboak euskaraz	Guztira
	Euskaraz	Euskaraz eta gaztelaniaz		
Biak aktiboak	84,0	12,2	1,1	97,3
Aktiboa + pasiboa	0,5	0,4	0,2	1,1
Biak pasiboak	0,1	0,1	1,4	1,6
Guztira	84,6	12,7	2,7	100



D motako bikoteak	Seme-alaba aktiboak		Seme-alaba pasiboak euskaraz	Guztira
	Euskaraz	Euskaraz eta gaztelaniaz		
Biak aktiboak	86,4	12,5	1,1	100
Aktiboa + pasiboa	41,6	37,2	21,2	100
Biak pasiboak	4,6	10,1	85,3	100
Guztira	84,6	12,7	2,7	100

Iturria: EUSTAT

⁴⁴ "Aktiboak" bakarrik esatean, etxean euskaraz, bera bakarrik nahiz gaztelaniarekin batera, egiten duten guztiak adierazi nahi dugu.




48. irudia. 2-29 urte bitarteko seme-alaba elebidunen etxeko hizkuntzaren erabilera, gurasoek erabilitako hizkuntzaren arabera. D motako bikoteak. EAE, 2001



Iturria: EUSTAT

49. irudia. 2-29 urte bitarteko seme-alaba elebidunen etxeko hizkuntzaren erabilera, gurasoek erabilitako hizkuntzaren arabera. D motako bikoteak. EAE, 2001 (%)



B+ motako bikotea euskaldun zahar edo jatorrizko elebidun batek⁴⁵ eta euskaldun berri batek⁴⁶ osatzen dute. Aurreko kasuan baino portzentaje txikiagoan bada ere, talde honetako seme-alaba gehienek (%80,7) euskaraz aktiboak diren gurasoak dituzte, nagusiki euskaraz nahiz gaztelaniarekin batera (50. irudia eta 63. taula).

Bestalde, seme-alaben %10,5en kasuan, euskaldun zaharra edo jatorrizko elebiduna den gurasoa bakarrik da aktiboa euskaraz eta, aldiz, euskaraz aktiboa den bikotekide bakarra euskaldun berria denean, dagokion seme-alaben portzentajea %1,2koa da. Azkenik, seme-alaben %7,6 euskaraz aktiboak ez diren bi kidez osatutako bikoteenak dira.

Hemen ere joera orokorra islatzen da, hau da, gurasoek euskaraz zenbat eta gutxiago egin, orduan eta gutxiago egiten dute seme-alabek ere (51. irudia eta 64. taula).

Hala, bi kideak euskaraz aktiboak direnean ia seme-alaba guztiak ere aktiboak dira euskaraz, D motako bikoteen seme-alaben ehunekoaren oso antzeko portzentajea (%98,6). Baina, aktiboak nagusiki euskaraz direnak aztertzen baditugu, ehuneko hori nabarmen jaisten da, %64,7raigo (%86,4 D bikoteei

⁴⁵ Tauletan euskaldun zaharren eta jatorrizko elebidunen multzoa "EZ" laburduraz adieraziko da.

⁴⁶ Tauletan euskaldun berriak "EB" laburduraz adieraziko dira, euskaraz aktiboak edo pasiboak direnean erantsiko zaien "akt." edo "pas." laburdurekin batera.

⁴⁷ Euskaldun zahar edo jatorrizko elebidun batek (EZ) eta euskaldun berri batek (EB) osatuak.

63. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alaba elebidunen etxeko hizkuntzaren erabilera, gurasoek erabilitako hizkuntzaren arabera. B+⁴⁷ motako bikoteak. EAE, 2001

B+ motako bikoteak	Seme-alaba aktiboak		Seme-alaba pasiboak euskaraz	Guztira
	Euskaraz	Euskaraz eta gaztelaniaz		
Biak aktiboak	3.992	2.094	84	6.170
EZ akt. + EB pas.	386	313	104	803
EZ pas. + EB akt.	29	30	29	88
Biak pasiboak	37	80	469	586
Guztira	4.444	2.517	686	7.647

B+ motako bikoteak	Seme-alaba aktiboak		Seme-alaba pasiboak euskaraz	Guztira
	Euskaraz	Euskaraz eta gaztelaniaz		
Biak aktiboak	52,2	27,4	1,1	80,7
EZ akt. + EB pas.	5,0	4,1	1,4	10,5
EZ pas. + EB akt.	0,4	0,4	0,4	1,2
Biak pasiboak	0,5	1,0	6,1	7,6
Guztira	58,1	32,9	9,0	100

B+ motako bikoteak	Seme-alaba aktiboak		Seme-alaba pasiboak euskaraz	Guztira
	Euskaraz	Euskaraz eta gaztelaniaz		
Biak aktiboak	64,7	33,9	1,4	100
EZ akt. + EB pas.	48,1	39,0	12,9	100
EZ pas. + EB akt.	33,0	34,0	33,0	100
Biak pasiboak	6,3	13,7	80,0	100
Guztira	58,1	32,9	9,0	100

Iturria: EUSTAT

EZ akt.: Euskaldun zaharrak edo jatorrizko elebidunak, aktiboak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz.

EZ pas.: Euskaldun zaharrak edo jatorrizko elebidunak, pasiboak euskaraz.

EB akt.: Euskaldun berriak, aktiboak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz.

EB pas.: Euskaldun berriak, pasiboak euskaraz.



dagokien taldeko seme-alaben kasuan), eta euskaraz nahiz gaztelaniaz aktiboak direnak, berriz, %30 baino gehiago dira (%33,9). Euskaraz pasiboak diren seme-alaben ehunekoa %1en inguruko portzentajearen geratzen da.


Euskararen etxeko erabileraren araberako seme-alaben banaketa oso ondo bereizita dago euskaraz aktiboa den bikotekidea euskaldun zahar edo jato-

rrizko elebidun izatearen edo euskaldun berri izatearen arabera. Lehen kasuan euskaraz aktiboak diren seme-alaben portzentajea %87,1ekoa da eta %67raino jaisten da aktiboa euskaldun berria denean. Alde hori aktiboak nagusiki euskaraz diren seme-alabengan islatzen da batez ere: %48,1 %33ren aldean, bikotekide aktiboa euskaldun zahar/jatorrizko elebidun edo euskaldun berri den kontuan hartuta. Euskaraz gaztelaniaz bezain aktiboak

diren seme-alaben artean aldeak txikitu egiten dira, %39 eta %34, hurrenez hurren.

Bi bikotekideak euskaraz pasiboak direnean, seme-alaben erabilera %20ra erortzen da (%6,3k nagusiki euskara erabiltzen du eta %13,7k gaztelania beste). Euskaraz pasiboak diren seme-alabak %80 dira.


50. irudia. 2-29 urte bitarteko seme-alaba elebidunen etxeko hizkuntzaren erabilera, gurasoek erabilitako hizkuntzaren arabera. B+ motako bikoteak. EAE, 2001



EZ : Euskaldun zaharrak edo jatorrizko elebidunak; EB : Euskaldun berriak.

Iturria: EUSTAT

51. irudia. 2-29 urte bitarteko seme-alaba elebidunen etxeko hizkuntzaren erabilera, gurasoek erabilitako hizkuntzaren arabera. B+ motako bikoteak. EAE, 2001 (%)



B motako bikoteak osatzen dituztenak euskaldun berriak dira biak. Talde honetako seme-alabak ia zati berdinetan banatzen dira (52. irudia eta 64. taula) euskaraz aktiboak diren bi guraso dituztenen (%51,6) eta euskaraz pasiboak diren bi guraso dituztenen (%44,7) artean; seme-alaben %3,7 bakarrik dator euskaraz aktiboa den kide batek eta pasiboa den beste batek osatutako bikoteetatik.

Bi gurasoak euskaraz aktiboak direnean euskaraz aktiboak diren seme-alaben portzentaje osoa aurreko kasuetakoen antzekoa da (%98,3), baina jaitsiera txiki bat nabaritzen da aktiboak nagusiki euskaraz direnetan (%50,5), gaztelania beste (%47,8) hitz egiten dutenen mesedetan. Euskaraz pasiboak seme-alaben %2 baino gutxiago (%1,7) dira.

Kontrako kasuan, etxean gurasoetako batek ere euskaraz hitz egiten ez duenean, euskaraz pasiboak diren seme-alaben portzentajea izugarri handitzen da, ia %90eraino (%87,8). Gainerakoei dagokienez, %3 baino gehixeago dira nagusiki euskaraz mintzatzen direnak eta %9 inguru, gaztelania beste hitz egiten dutenak.

64. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alaba elebidunen etxeko hizkuntzaren erabilera, gurasoek erabilitako hizkuntzaren arabera. B motako bikoteak. EAE, 2001

B motako bikoteak	Seme-alaba aktiboak		Seme-alaba	Guztira
	Euskaraz	Euskaraz eta gaztelaniaz	pasiboak euskaraz	
Biak aktiboak ⁴⁸	975	923	33	1.931
Aktiboa + pasiboa	30	65	43	138
Biak pasiboak	52	151	1.467	1.670
Guztira	1.057	1.139	1.543	3.739

B motako bikoteak	Seme-alaba aktiboak		Seme-alaba	Guztira
	Euskaraz	Euskaraz eta gaztelaniaz	pasiboak euskaraz	
Biak aktiboak	26,1	24,7	0,9	51,7
Aktiboa + pasiboa	0,8	1,7	1,2	3,7
Biak pasiboak	1,4	4,0	39,2	44,6
Guztira	28,3	30,4	41,3	100

B motako bikoteak	Seme-alaba aktiboak		Seme-alaba	Guztira
	Euskaraz	Euskaraz eta gaztelaniaz	pasiboak euskaraz	
Biak aktiboak	50,5	47,8	1,7	100
Aktiboa + pasiboa	21,7	47,1	31,2	100
Biak pasiboak	3,1	9,0	87,8	100
Guztira	28,3	30,4	41,3	100


Iturria: EUSTAT

⁴⁸ "Aktiboak" bakarrik esatean etxean euskaraz hitz egiten duten guztiak esan nahi dugu, hau da, batez ere euskaraz mintzatzen direnak eta euskara gaztelaniarekin batera erabiltzen dutenak.




Azkenik, euskaraz aktiboa bikotekide bakarra denean, portzentajeak aurreko bi taldeen arteko balioetan kokatzen dira. Hala, euskaraz aktiboak diren seme-alaben ehuneko orokorra %70 baino pixka bat txikiagoa da (%68,8), baina gehienek ez dute nagusiki euskaraz hitz egiten, gaztelaniarekin batera baizik (%47,1 vs. %21,7). Euskaraz pasiboak diren seme-alabak %30 baino gehiago dira (53. irudia eta 64. taula).

52. irudia. 2-29 urte bitarteko seme-alaba elebidunen etxeko hizkuntzaren erabilera, gurasoek erabilitako hizkuntzaren arabera. B motako bikoteak. EAE, 2001



Iturria: EUSTAT

53. irudia. 2-29 urte bitarteko seme-alaba elebidunen etxeko hizkuntzaren erabilera, gurasoek erabilitako hizkuntzaren arabera. B motako bikoteak. EAE, 2001 (%)



Iturria: EUSTAT

A+ eta A motetako bikoteetan, hurrenez hurren euskaldun zahar edo jatorrizko elebidun batek ez-elebidun batekin batera (A) eta euskaldun berri batek ez-elebidun batekin (A+) osatzen dituztenetan, bikotekide batek bakarrik du euskaraz aktibo izateko aukera, ez-elebidunak, hasiera batean behintzat, behar adinako hizkuntza-gaitasunik ez duelako.

A+ bikoteetan, kide elebiduna (euskaldun zaharra edo jatorrizko elebiduna) euskaraz aktiboa denean, euskaraz aktiboak diren seme-alaben portzentaje orokorra handia da (65. taula), %90etik gorakoa (%94,6). Horietatik gehienek (%64,9k) euskaraz

gaztelaniaz beste hitz egiten dute, eta %29,7, aldiz, batez ere euskaraz dira aktiboak. Euskaraz pasiboak direnen ehunekoa txiki samarra da, %5,4koa.

A motako bikoteetan kide elebiduna (euskaldun berria) euskaraz aktiboa denean, seme-alaben euskararen erabilerari dagozkion portzentajeek alde adierazgarriak erakusten dituzte, A+ taldekoekin alderatuta (66. taula). Hortaz, euskaraz aktiboak diren seme-alaben proportzio orokorra %90etik gorakoa (%94,1) da baita ere, baina nagusiki euskaraz aktiboak direnen ehunekoa nabarmen txikiagoa da (%17,5 vs. %29,7) eta euskaraz nahiz gaztelaniaz

aktiboak direnena handitu egiten da (%76,6 vs. %64,9). Euskaraz pasiboak diren seme-alaben portzentajea %5en inguruan geratzen da.

Alabaina, bi bikote-mota horietako (A+ eta A) kide elebiduna euskaraz pasiboa denean, seme-alabek etxean erabiltzen duten hizkuntzaren banaketa antzekoa da, oso adierazgarriak ez diren hainbat aldagetarekin. Hala, aktiboak nagusiki euskaraz direnen ehunekoa %3ren azpitik dago bi kasuetan, eta euskaraz nahiz gaztelaniaz aktiboak diren seme-alaben ehunekoa, berriz, zertxobait handiagoa da A+ motako bikoteen seme-alaben artean (%14,1) A motakoetan baino (%10,9). Ondorioz, euskaraz aktiboak direnen portzentaje orokorra pixka bat txikiagoa da A motako bikoteen seme-alaben artean (%12,6 vs. %16,7).

Euskaraz pasiboak diren seme-alaben portzentajerik handienak bi talde horietan (A+ eta A) ematen dira, kide elebiduna euskaraz pasiboa denean, eta %85en inguruko balioetan dabilta: A+ motako bikoteen seme-alaben %83,3 eta A motako bikoteen seme-alaben %87,4 (54. iruditik 57.era).



65. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alaben etxeko hizkuntzaren erabilera, gurasoek erabilitako hizkuntzaren arabera.
A+ motako bikoteak. EAE, 2001

A+ motako bikoteak	Seme-alaba aktiboak		Seme-alaba pasiboak euskaraz	Guztira
	Euskaraz	Euskaraz eta gaztelaniaz		
EZ akt. ⁴⁹ + EE	8.131	17.783	1.465	27.379
EZ pas. + EE	199	1.085	6.390	7.674
Guztira	8.330	18.868	7.855	35.053

A+ motako bikoteak	Seme-alaba aktiboak		Seme-alaba pasiboak euskaraz	Guztira
	Euskaraz	Euskaraz eta gaztelaniaz		
EZ akt. + EE	29,7	64,9	5,4	100
EZ pas. + EE	2,6	14,1	83,3	100
Guztira	23,8	53,8	22,4	100

66. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alaben etxeko hizkuntzaren erabilera, gurasoek erabilitako hizkuntzaren arabera.
A motako bikoteak. EAE, 2001

A motako bikoteak	Seme-alaba aktiboak		Seme-alaba pasiboak euskaraz	Guztira
	Euskaraz	Euskaraz eta gaztelaniaz		
EZ akt. + EE	802	3.508	270	4.580
EZ pas. + EE	170	1.099	8.792	10.061
Guztira	972	4.607	9.062	14.641

A motako bikoteak	Seme-alaba aktiboak		Seme-alaba pasiboak euskaraz	Guztira
	Euskaraz	Euskaraz eta gaztelaniaz		
EZ akt. + EE	17,5	76,6	5,9	100
EZ pas. + EE	1,7	10,9	87,4	100
Guztira	6,6	31,5	61,9	100

Iturria: EUSTAT


EZ akt.: Euskaldun zaharrak edo Jatorrizko elebidunak, aktiboak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz

EZ pas.: Euskaldun zaharrak edo Jatorrizko elebidunak, pasiboak euskaraz


EE: Ez elebidunak

⁴⁹ "Aktiboak" bakarrik esatean etxean euskaraz hitz egiten duten guztiak esan nahi dugu, hau da, batez ere euskaraz mintzaten direnak eta euskara gaztelaniarekin batera erabiltzen dutenak.


54. irudia. 2-29 urte bitarteko seme-alaba elebidunen etxeko hizkuntzaren erabilera, gurasoek erabilitako hizkuntzaren arabera. A+ motako bikoteak. EAE, 2001




55. irudia. 2-29 urte bitarteko seme-alaba elebidunen etxeko hizkuntzaren erabilera, gurasoek erabilitako hizkuntzaren arabera. A+ motako bikoteak. EAE, 2001 (%)



56. irudia. 2-29 urte bitarteko seme-alaba elebidunen etxeko hizkuntzaren erabilera, gurasoek erabilitako hizkuntzaren arabera. A motako bikoteak. EAE, 2001



57. irudia. 2-29 urte bitarteko seme-alaba elebidunen etxeko hizkuntzaren erabilera, gurasoek erabilitako hizkuntzaren arabera. A motako bikoteak. EAE, 2001 (%)



Iturria: EUSTAT



Azkenik X motako bikoteen kasuan ezin da alderik izan gurasoek etxean erabiltzen duten hizkuntzan, bietako batek ere ez baitu ondo hitz egiten euskaraz eta, beraz, erabiltzen duten hizkuntza batez ere erdara da, salbuespenak salbuespen. Hala eta guztiz, talde honetako seme-alaben etxeko hizkuntza-erabilera ere aztertuko dugu, laburki azertu, alde batetik, gurasoen tipologiaren arabera azterketa osatzearen, eta, bestetik, talde honetan biltzen direlako 2-29 urte bitarteko seme-alaba guztien %70.

Horrezaz gain, guraso ez elebidunen seme-alaba gehienak (%61,4) eurak ere ez direnez elebidun, kategoria hori ere sartuko dugu.

Dena den, seme-alaba elebidunen proportzioa handi samarra da, guraso ez elebidunen seme-alaba guztien ia %40 (%38,6), hain zuzen. Beraz, talde hau hain handia izanik, kide kopurua ere handia da, 125.000 lagunetik gorakoa.

Alabaina, esan beharra dago seme-alaba elebidun gehienek ez dutela etxean euskaraz hitz egiten⁵⁰. Euskaraz aktiboak diren seme-alaba guztietatik (%4,5) ia %90ek (%4) euskaraz eta gaztelaniaz neurri bertsuan hitz egiten dute, eta gainerako %10a, talde honetako seme-alaba guztien %0,5 direna, nagusiki euskaraz egiten dute (58. irudia eta 67. taula).


⁵⁰ Kontuan hartu behar da, gurasoak elebidunak ez direla-eta, solaskideen kopurua mugatua izateak, edo batere ez izateak, hizkuntza erabiltzeko aukerak murrizten dituela.

67. taula. X motako bikoteen 2-29 urte bitarteko seme-alaben etxeko hizkuntzaren erabilera. EAE, 2001

X motako bikoteak	2-29 urte bitarteko seme-alabak					Guztira
	Euskaraz aktiboak	Bietan aktiboak	Aktiboak guztira	Euskaraz pasiboak	Ez elebidunak	
Biak ez elebidunak	1.544	13.256	14.800	111.822	201.170	327.792
Biak ez elebidunak (%)	0,5	4,0	4,5	34,1	61,4	100

Iturria: EUSTAT

58. irudia. X motako bikoteen 2-29 urte bitarteko seme-alaben etxeko hizkuntzaren erabilera. EAE, 2001 (%)



Iturria: EUSTAT

Seme-alaben lehen hizkuntza nahiz euren BILA Indizea aztertzean egiaztatu ahal izan dugunez, bikotekideen hizkuntza-ezaugarriak berdinak ez direnean, euskararen transmisioari edota jarraipenari dagozkion emaitzak hobekak dira beti hizkuntza-identitate euskaldunagoa duena ama denean. Biak elebidunak izan arren etxean hizkuntzaren erabilera desberdina duten kideez osatutako bikoteen seme-alabek familian erabiltzen duten hizkuntza aztertuko dugu, laburki, Etxeko Hizkuntzaren Erabileraren Indizearekin (ERABIL) antzeko joera ematen dela egiaztatzeko.

Horretarako, bikote elebidunen talde desberdinak sailkatuko ditugu erabiltzen duten hizkuntza bakarrik kontuan hartuta, elebidun guztiak euskaraz ondo egiteko gai direla premisatzat hartuta eta euren lehen hizkuntza alde batera utzita.

Beraz, hiru kategoriaz izango dira: aktiboak nagusiki euskaraz direnak, euskaraz gaztelaniaz bezain aktiboak direnak, eta euskaraz pasiboak, hau da, batez ere gaztelaniaz hitz egiten dutenak. Arestian seme-alaben hizkuntza-erabilera aztertzeko egin bezala, hemen ere seme-alaba elebidunetara mugatuko gara, era honetako bikoteen seme-alaben %90 baitira.

Esan dezagun gainera, azterketa sakon honen unitertsoa, alegia, etxean hizkuntzaren erabilera desberdina duten bikotekideen seme-alaben multzoa, gutxiengo txiki batek osatzen duela, 2 eta 29 urte arteko seme-alaba guztien %1,1 diren 5.329 lagunek hain zuzen. Hau da, bi gurasoak elebidunak dituzten seme-alaben %7 baino gehixeago (%7,4).

Izan ere, seme-alaben ia %85 (%84,4) gutxienez kide bat elebiduna ez duten bikoteetatik datoz, eta horri erantsi behar zaio %14 baino gehiago (%14,5) hizkuntzaren erabilera berdintsua duten kidez osatutako bikoteetatik datozela (68. taula).

68. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alaben banaketa, gurasoen ERABIL Indizearen arabera. EAE, 2001

Bikotekideen ERABIL indizea	2-29 urte bitarteko seme-alabak	
	Kop.	%
Biak elebidunak dira	72.359	15,6
<i>Biak aktiboak euskaraz</i>	51.712	11,2
<i>Biak aktiboak euskaraz eta gaztelaniaz</i>	11.291	2,4
<i>Biak pasiboak euskaraz</i>	4.027	0,9
<i>ERABIL desberdina dute</i>	5.329	1,1
Bat edo biak "ez-elebidunak" dira	390.234	84,4
Guztira	462.593	100

Iturria: EUSTAT

Kategoria desberdinen konbinazioa kontuan hartuta, etxean euskararen erabilera desberdina duten kidez osatutako bikote-mota elebidunak ondoko hauek dira:

Euskaraz aktiboa (EAK) + Bietan aktiboa (Ak2)

Euskaraz aktiboa (EAK) + Euskaraz pasiboa (EP)

Bietan aktiboa (Ak2) + Euskaraz pasiboa (EP)

Euskararen erabilera-maila desberdina duten gurasoen seme-alaben bi heren (%65,2) bi kideek euskaraz hitz egiten duten bikoteetatik datoz, bata nagusiki euskaraz egiten du eta besteak gaztelaniaz beste. Euskara gutxiago erabiltzen duten bikoteetan, alegia, bata gaztelania beste hitz egiten duenean eta besteak batere hitz egiten ez duenean, %25 baino gehixeago dira.

Azkenik, hizkuntza-erabilera kontrajarria duten bikoteen kasuan, hau da, bata nagusiki euskaraz mintzatzen denean eta bestea gaztelaniaz, euren seme-alaben proportzioa txikia dela kontuan izanik (%9,2), badirudi era honetako bikoteak urrienak direla (59. irudia eta 69. taula).



69. taula. 2-29 urte arteko seme-alaba elebidunen etxeko hizkuntzaren erabilera, gurasoen erabileraren arabera.
EAE, 2001

Bikote mota	Seme-alaba elebidunak				Guztira
	Euskaraz aktiboak	Bietan aktiboak	Euskaraz pasiboak	EZ elebidunak	
EAK + Ak2	2.273	541	313	391	3.518
EAK + EP	213	178	53	26	470
Ak2 + EP	498	468	259	116	1.341
Guztira	2.984	1.187	625	533	5.329

Bikote mota	Seme-alaba elebidunak				Guztira
	Euskaraz aktiboak	Bietan aktiboak	Euskaraz pasiboak		
EAK + Ak2	47,4	11,3	6,5		65,2
EAK + EP	4,4	3,7	1,1		9,2
Ak2 + EP	10,4	9,8	5,4		25,6
Guztira	62,2	24,8	13,0		100

Bikote mota	Seme-alaba elebidunak				Guztira
	Euskaraz aktiboak	Bietan aktiboak	Euskaraz pasiboak		
EAK + Ak2	72,7	17,3	10,0		100
EAK + EP	48,0	40,1	11,9		100
Ak2 + EP	40,7	38,2	21,1		100
Guztira	62,2	24,8	13,0		100


Iturria: EUSTAT

EAK: euskaraz aktiboak

Ak2: bietan aktiboak (euskaraz eta gaztelaniaz)

EP: euskaraz pasiboak

59. irudia. 2-29 urte bitarteko seme-alaba elebidunen etxeko hizkuntzaren erabilera, gurasoek euskararen erabilera desberdina dutenean. EAE, 2001 (%)



Zirkuluaren tamaina, dagokion taldearen populazioaren arabera da, eta euren ehunekoa parentesi artean azaltzen da.
Iturria: EUSTAT

Hizkuntzaren erabilera-maila desberdineko bikote-talde bakoitzean, gainera, bikotekide bakoitzaren erabilera-maila bereizten badugu, lortutako tipologia erabiliko dugu hizkuntzaren erabilera-maila jakin bat duena aita ala ama izatearen arabera seme-alaben erabilera-maila ere aldatu egiten den aztertzeko.

Aztertu beharreko konbinazioak honako hauek dira:

1. Euskaraz aktiboa den aita (AiAk) + Bietan aktiboa den ama (AmAk2)

2. Bietan aktiboa den aita (AiAk2) + Euskaraz aktiboa den ama (AmAk)

3. Euskaraz aktiboa den aita (AiAk) + Euskaraz pasiboa den ama (AmP)

4. Euskaraz pasiboa den aita (AiP) + Euskaraz aktiboa den ama (AmAk)

5. Bietan aktiboa den aita (AiAk2) + Euskaraz pasiboa den ama (AmP)

6. Euskaraz pasiboa den aita (AiP) + Bietan aktiboa den ama (AmAk2)

Jarraian, hiru mota-pare horietako bakoitzeko bikoteen seme-alabak ERABIL Indizearen arabera nola banatzen diren aztertuko dugu (60. irudia eta 73. eta 74. taulak).

1. Gurasoetako batek nagusiki euskaraz hitz egiten du eta besteak euskaraz gaztelaniaz beste. Bikote-mota honen seme-alaben portzentajea da handiena, seme-alaba guztien bi heren (% 65,2) baitira.

Oro har, bikote horien seme-alaben %90 euskaraz aktiboak dira eta gehienek (%72,7) nagusiki erabiltzen dute hizkuntza hori. Bikotekide bakoitzaren erabilerearen arabera aztertzen badugu, nagusiki euskaraz hitz egiten duten seme-alabak %70 inguru (%69,1) dira aita denean nagusiki euskaraz mintzatzen dena, eta ama denean berriaz, %75etik gora dira (%76,2).

Euskaraz gaztelaniaz beste egiten duten seme-alaben portzentajea %20 baino pixka bat gehiago da (%21,7) lehen kasuan eta %10 baino apur bat gehiago (%12,9) bigarrean.

Euskaraz hitz egiten ez duten seme-alaben portzentajea oso antzekoa da, %9-11 bitartekoa, hain zuzen.

2. Gurasoetako batek nagusiki euskaraz hitz egiten du eta besteak gaztelaniaz. Arestian aipatu dugunez, hizkuntza-erabilera kontrajarriak dituzten era honetako bikoteak dira, dirudienez, aztertzen ari garen unibertsoan gutxien agertzen direnak (hizkuntzaren erabilera-maila desberdina duten bikote elebidunen seme-alabak), seme-alaben %9,2 bakarrik baitira.



Nagusiki euskaraz hitz egiten duten seme-alaben portzentajea nabarmen jaisten da, hala ere handixeagoa da euskaraz aktiboa den bikotekidea ama denean, %50,5 vs. %45,7.

Beherakada hori euskaraz gaztelaniaz beste hitz egiten duten seme-alaben portzentajearen dagoen aldean islatzen da, dagokion balioa handiagoa baita euskaraz hitz egiten duena aita denean (42,3% vs. 37,6%). Izan ere, euskaraz pasiboak diren seme-alaben portzentajeak egonkor jarraitzen du %12ren inguruan.

3. Gurasoetako batek euskaraz gaztelaniaz beste hitz egiten du eta besteak gaztelaniaz.

Azken bikote-mota honi dagozkion seme-alaba elebidunen kolektiboak guztien laurdena biltzen du (%25,6).

Kasu honetan nagusiki euskaraz mintzatzen diren seme-alaben portzentajeak bere balio txikiak ditu, beherakada berez pentsa zitekeena bezain handia ez bada ere. Halaz ere, hemen ematen da alde handiena euskara gaztelania beste erabiltzen duena aita edo ama izatearen artean. Hala, aita euskaraz gaztelaniaz beste hitz egiten duenean seme-alaben herenak baino apur bat gehiagok (%35,7) nagusiki euskaraz hitz egiten du, baina portzentaje hori hamar puntu handiagoa da (%46,3) bi hizkuntzak erabiltzen dituen ama denean.


Bestalde, euskaraz gaztelaniaz bezain aktibo diren seme-alaben portzentajea ia egonkor geratzen da %38ren inguruko balioetan.

Beraz, euskaraz aktiboak diren seme-alaben artean dagoen alde handiak euskaraz pasibo diren seme-alabengan du eragina batez ere, hauek nabarmen hazten baitira ama euskaraz

pasiboa bada (%26,6). Amak euskaraz gaztelaniaz beste hitz egiten duenean, ordea, seme-alaba pasiboaren portzentajea % 14,9koa da.

Ikus daitekeenez, etxean euskara erabiltzen duena gurasoetako bat ala bestea izatearen emaitzek gorago ikusi dugun ildo bereko joera dute.

60. irudia. 2-29 urte bitarteko seme-alaba elebidunen etxeko hizkuntzaren erabilera, guraso biak elebidunak izanik, eurretako bakoitzaren erabileraren arabera. EAE, 2001 (%)



Iturria: EUSTAT

70. taula. 2-29 urte arteko seme-alaba elebidunen etxeko hizkuntzaren erabilera, guraso biak elebidunak izanik, eureta-ko bakoitzaren erabileraren arabera. EAE, 2001 (%)

Aita+ama	Seme-alaba elebidunak			Guztira
	Euskaraz aktiboak	Bietan aktiboak	Euskaraz pasiboak	
AiAk + AmAk2	1.070	337	142	1.549
AiAk2 + AmAk	1.203	204	171	1.578
AiAk + AmP	107	99	28	234
AiP + AmAk	106	79	25	210
AiAk2 + AmP	234	247	174	655
AiP+ AmAk2	264	221	85	570
Guztira	2.984	1.187	625	4.796

Aita+ama	Seme-alaba elebidunak			Guztira
	Euskaraz aktiboak	Bietan aktiboak	Euskaraz pasiboak	
AiAk + AmAk2	69,1	21,7	9,2	100
AiAk2 + AmAk	76,2	12,9	10,9	100
AiAk + AmP	45,7	42,3	12,0	100
AiP + AmAk	50,5	37,6	11,9	100
AiAk2 + AmP	35,7	37,7	26,6	100
AiP+ AmAk2	46,3	38,8	14,9	100
Guztira	62,2	24,8	13,0	100

Iturria: EUSTAT



5.4. Seme-alaba elebidunen Etxeko Hizkuntzaren Erabileraren Indizea (ERABIL) familiako elebidunen dentsitatearen arabera

Lehenago ikusi dugunez, gurasoek etxean erabiltzen duten hizkuntzak eragina du seme-alaben hizkuntzaren erabileran. Hala eta guztiz ere, ez dugu ahaztu behar gurasoak eta seme-alabak ez direla, askotan, familia-etxean bizi diren pertsona bakarrak⁵¹ eta familia osoaren hizkuntza-inguruneak ere eragina duela seme-alabek esparru horretan erabiltzen duten hizkuntzan. Fenomeno hori ikeritzeko, familian dauden elebidunen dentsitatearen arabera aztertuko dugu seme-alaba elebidunen etxeko hizkuntzaren erabilera.

Familian dauden elebidunen dentsitatearen arabera 2-29 urte bitarteko seme-alaben banaketak erakusten du haietatik %40 baino apur bat gehiago (%41,2) bizi dela elebidunen portzentajea %25etik beherakoa duten familietan. Baina emaitza hori adierazgarriagoa da seme-alaba elebidunak eta elebidun ez direnak bananduta aztertzen baditugu, banaketa guztiz desberdina baitute (71. taula).

Elebidun ez diren seme-alaben banaketa oso polarizatuta dago, gehienak (%84,6) elebidun-

